# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2015-02-13
EGUBAKOITZA
628. ZENBAKIA
14. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM


## Udala eta hiru ikastetxeak mugikortasun iraunkorraren alde Oñatin | 14

## Parte-hartze handiena Amodiozko Gutunen Lehiaketan | 31

Emakumeak Lanbide Heziketara erakartzen laguntzen Bergaran | 2



Debagoieneko lau udal, epaiketarako dataren zain | 3



Aste bukaerako futbol partiduak bertan behera, protesta modura | 30

# Mozorroa lozorrotik kalera

Zapatuan, domekan eta martitzenean tartekatuko dira ospakizunak | Ikus. 'Herriak' saila



Martin Antxia eta Eñaut Kortabarria aurrean eta Txapel Txin atzean, Aratusteak prestatzen.

JAGOBA DOMINGO




ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

**Arrasate Telebista sortu zela 25 urte dira gaur**

**Mabel Artziniega, minbizia gainditu duen medikua**

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943-25 05 05






## SINADURAK

- Enpresako balioak | 5 — JOXEMARI MUXIKA
- Despedidak poz txiki bat | 5 — JULEN IRIONDO
- Espetxeratze berraztergarriak | 15 — GORETTI MADINA
- Isiltasuna apurtzen | 19 — ANDER BOLIBAR
- Modernoen 'new' kaikua | 21 — OLATZ PAGALDAI
- Deskarga: errealitate gordina | 40 — AINTZANE OIARBIDE


DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 5 | HERRIAK 9 | KIROLA 27 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 34 | ZORION AGURRAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

# Emakumeak Lanbide Heziketara erakarri guran

## Miguel Altuna Institutuaren jardunaldietan erakunde eta enpresa esanguratsuetako ordezkariak izango dira

**MAIALEN TORRES** | DEBAGOIENA

Lanbide Heziketan eta, oro har, lan esparruan "oraindik dauden estereotipoak" ikusita, Bergarako Miguel Altuna Institutuak *Lanbide teknikoa da nire aukera* izenburupean emakumeak Lanbide Heziketara gerturatzeko jardunaldiak antolatu ditu otsailaren 24rako, 25erako eta 26rako. "Zergatik ez neska bat mekanikari lanetan eta mutil bat administrazioan?", galdetu du Miren Josune Irazabalek, Miguel Altuna Institutuko zuzendariak.


Emakume bat makina aurrean lanean. | JOXU ARANA

### Bergaran, %30era igo

Urteetako matrikulazio datuak aztertuta ikusi dute Lanbide Heziketan emakumeek "tradizionalki euren lanak izan diren lanbideen ikasketak" aukeratzen dituztela. Gaur egun, esaterako, Euskal Herrian fabrikazio mekanikoa ikastea aukeratzen dutenen %7 baino ez dira emakumeak. Datu horiek apurtuz, Bergarako institutuan emakumeen kopurua %30era igo da aurten alor berean, eta datu hori "albiste on" izateaz gainera, hausnarketa baten abiapuntu ere bilakatu zen. Eta, hain justu, jardunaldiok dira hausnarketa haren emaitza.

Hori horrela, Miguel Altuna institutuan gai horrekin lotutako adituak gonbidatu, eta hitzaldiak, mahai-inguruak eta beste antolatu dituzte.

### Confebask, Emakunde...

Otsailaren 24a da lehen hitzordua, martitzena. Irekiera ekitaldia eta erakundeetako ordezkariekin mahai-ingurua iragarri dituzte egun horretarako.

Besteak beste, Confebaskeko zuzendari nagusi Eduardo Aretxaga, Emakundeko zuzendari nagusi Izaskun Landaida eta Lanbideko zuzendari nagusi Adolfo Alustizak, nork bere alorretan emakumeak industrian laneratzearen inguruan lantzen diharduten lan ildoei nahiz estrategiei buruz hitz egingo dute. 12:00etatik 13:00etara izango da saioa.

Hurrengo egunean, berriz, bisita eguna izango da. Soraluce kooperatibara bisita antolatu dute, 16:00etan. Eta 18:30ean, berriz, eskualdeko hainbat enpresatako ordezkariekin mahai-ingurua egingo dute. Hain justu, enpresa industrialetan Lanbide Heziketa ikasi duten emakumeen laneratzeari buruz hitz egingo dute Elayko, Soraluceko, Fagor Ederlaneko eta Ulma Packagingeko ordezkariek.

Eta jardunaldiak borobiltzeko, *Prestatu zure curriculuma* izenburua duen tailerra egingo dute otsailaren 26an –17:30 –; baita beste mahai-inguru bat ere –18:30–. Kasu horretan, lanean dabiltzan ikasle ohiekin.

Horrez guztiaz gainera, iragarri dute jardunaldiek irauten duten bitartean, institutuan bertan lanerako orientazio zerbitzu berezia eskainiko dutela, batez ere, emakumeei zuzenduta. Eta emakumezko ikasle ohiak euren lantokietan erakusten dituen argazki erakusketa izango dela.

Hori bai, antolatzaileek adierazi dute izen-ematea beharrezkoa dela; hiru bide daude horretarako: institutura bertara joan, 943-76 70 49 edo 943-76 93 94 telefonora deitu edo *ekitaldia@imaltuna.com* helbidera idatzi.

# Idatziz bidaliko du eskola Sarrionandiak bere saiorako

**LARRAITZ ZEBERIO** | DEBAGOIENA

Mondragon Unibertsitateak eskaintzen diharduen Euskal Kulturgintzaren Transmisioaren aditu tituluaren hurrengo asteburuko eskola Joseba Sarrionandia idazleari dagokiona da. Bada, idatziz bidaliko du Sarrionandiak bere hitzaldia. Graduondoko gai-ardatza, aurten, euskal nazio kulturalaren aurrerabidea, da, eta koordinatzaile Julen Arexolaleibaren esanetan, interesgarria izango da gaiaren inguruan Sarrionandiak erbestetik egiten duen gogoeta. Pentsalariaren ekarpenari ematen dio garrantzia Arexolaleibak: "*Sarri*-k gai honen inguruan idatzi izan du liburuetan, baina gai honi buruz idaztea eta gogoeta bideratzea... horixe da guretzako garrantzitsua. (...) Aldez aurretik bidaliko digu eta ikasleei pasatuko diegu. Eta ikasleekin landu ondoren zabalduko dugu. Baina, lehenengo eta behin, graduondoa egiten ari diren ikasleen artean". Sarrionandiak beste eskola bat ere emango du Mondragon Unibertsitatean.

ZUHAITZ EGUNA 2015



OTSAILAREN 21EAN

BASERRITARREN AZOKA

ZUHAITZ FERIXIA

ETA DANOK SAN BALEIXON

ZUHAITZ BANA LANDATZERA!!!

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

ARRASATE GEROA
gaur eta biharaz

# Uemako hainbat udal epaitegietara joateko dataren zain daude

## Urkixok Debagoieneko lau udal salatu ditu: iaz bi eta aurten beste bi

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Urtebete. Horixe da Uemari, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateari, abokatuek emandako gutxi gorabeherako data, epaitegietan euskararekin lotuta zabalduta dagoen auziaren epaia emateko aurreikusten dutena.

Carlos Urkixok, Espainiako Gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoan duen ordezkariak, iaz urte amaieran eta aurtengoaren hasieran Uemako kide diren hainbat udalen kontra euren aktak –obrei, kontratazioari… dagozkienak– euskaraz bidaltzearren aurkeztutako helegiteak direla-eta dago, hain justu, kontua epaitegietan.

Debagoienari dagokionez, Oñati, Elgeta –urtarrilean– eta Antzuola eta Bergara –abenduan– dira Urkixok salatutako Udalak.



Maren Belastegi, Antzuolako Udalari jarritako helegitearekin. | UEMA

### Erabakia atzera bota

Uematik bidali dute Urkixok erreferitutako informazio guztia. Eta orain, epailearen aurrean deklaratzeko dataren zain daude.

Edozein modutan, ez dute epaitegietan esperantza handirik jarrita: "Abokatuek esaten digute galtzeko guztiak ditugula. Aurrekari bat badago, beste herri batena, eta hari hartutako erabakia atzera botatzea eragin diote", jakinarazi du Maren Belastegik, Uemako lehendakariak.

### "20 urteko lana zalantzan"

Erabakia atzera botatze horrek udalendako bi ondorio ekar ditzake. Ekonomikoa da bata: orain arte euskaraz idatzitako aktak ele bitan idatzi beharrarengatik.

Eta euskararen normalizazioarekin lotutakoa da bestea, "larriena", Belastegik azpimarratu duen moduan: "Euskararen normalizazioan administrazioaren arteko harremanak euskaratzeko egindako aurrerapauso guztiak bertan behera geratuko lirateke (…) 20 urteko lana zalantzan dago", dio bergararrak.

### Legea aldatu beharra

Gauzak horrela, Uemako lehendakariak ez du baztertzen gaur egun indarrean dagoen Euskararen Legea aldatu beharra. "Gaur egungo legearen arabera, Urkixok dio euskara ofiziala dela, betiere, erdara ondoan badu. Orduan, gaur egungo legeak ez du lagatzen euskara hutsean funtzionatzen. Horregatik erabaki dugu epaitegietara joatea Eusko Jaurlaritzak egindako txostenarekin; izan ere, haren txostenak dio legezkoa dela erakundeen arteko harremana euskaraz egitea (…) Edozelan ere, epaiketa galtzen bada, lantzen hasi beharko dugu erakundeen zein eragileen artean beste lege motaren bat, udalerri euskaldunak eta euskara babestuko dituena. Kasu horretan, lege kontua ez dago Uemaren esku; beraz, denon artean landu beharko dugu lege babes bat udalek euskaraz funtzionatzeko", azaldu du.

Hori guztiori "euskararen kontrako eraso orokorraren" barruan kokatzen du Belastegik. " Legealdi honetan, Urkixok hasieratik izan du euskararen kontrako erasoa martxan (…) Uste dut euskara bera ezabatu nahi duela eta erdarari inoiz baino indar handiagoa eman".

### Manifestazioa Donostian

Hala, bide judizialarekin batera, auzi hori gizarteratu egin gura du euskalgintzak, uste dutelako gizarteak berak ere erantzunen bat eman beharko lukeela euskara jasaten dabilen erasoen aurrean; erantzun bateratua, alegia. Dagoeneko egin dute lehen hitzordua: otsailaren 28rako manifestazioa deitu du Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak Donostian; 17:30ean irtengo da, Gipuzkoa plazatik.

Manifestazio horren bitartez, orokorrean salatuko dute hainbat administraziok euskararekiko duten jarrera. Izan ere, Urkixoren jarduteko moduaz gainera, salatuko dute, adibidez, Nafarroako Gobernuarena: Baztanen, euskararen gaineko ordenantzei helegitea jarri die.

# Elkarrizketa mahaia lortzeko pauso gehiago

## Datorren astean Barakaldoko BECera joango dira Ordainduko eta Eskuratuko bazkideak

U.M. | DEBAGOIENA

"Oraingoz, ez dugu erantzunik. Edozein modutan, negoziazioa gura dugu, eta, negoziazioaren bidea zabaltzeko, elkarrizketa mahaia lortzeak segitzen du izaten helburu nagusia", jakinarazi du Mikel Olabek, Ordaindu elkarteko ordezkariak. Hori azpimarratzeaz bat, datozen mobilizazioen berri eman du.

Izan ere, eguaztenean, otsailaren 18an, dute hurrengo hitzordua, Barakaldoko BEC erakustazokan. Eroskik batzar nagusia du orduan, eta hura baliatuko dute euren aldarrikapenei oihartzuna emateko, Eskuratukoak joango dira Bizkaitik eta Ordaindukoak, Gipuzkoatik. Autobusetan joateko izena eman behar da aurrez.

Batez beste, 200 lagun inguru dabiltza astero protestak egiten. "Gehiago, dei bereziak direnean", azaldu du Olabek.

### Mozioak: Bergara, Oñati...

Hortik aurrerako hitzorduak Debagoienean izango dira. Batetik, Bergarako, Oñatiko eta Aramaioko otsaileko osoko bilkuretarako –azkeneko astean– mozioa sartu dute. Arrasaten eta Eskoriatzan moduan –bietan onartuta–, eskatuko diete hiru udalei Mondragon Taldearekin bitartekaritza lanak egin ditzatela. Eta mozioak beste bi eskaera ere izango ditu: lanpostua galdu duten guztiak beste lanposturen baten birkokatzea eta kideen aurrezkiak bueltatzea. "Galdakaon, Basaurin, Arrigorriagan eta Etxebarrin (Bizkaia) ere onartu dira", jakinarazi du Olabek. Mozio bera aurkeztuko dute Aretxabaletan, martxoan.

### Bide juridikoa aztergai

Mobilizazioekin batera, segituko dute aztertzen ea bide juridikotik jotzea posible den. "Izan ere, arrazoiketa etikoa izan arren, demostrazioa behar da. Eta hori zaila da. Hala ere, horrek ez du esan gura arrazoirik ez dugunik. Gure herrian badira halako adibide asko: soldadutza, tortura kasuak…", dio Olabek.

# 'Photocall'-ak jarriko dituzte hainbat herritan Aratuste argazkiak ateratzeko

U.M. | DEBAGOIENA

*Badatoz Aratusteak Debagoienera, anima zaitez eta ospa itzazu gurekin*! lelopean, *photocall*-ak jarriko dituzte Arrasaten –Ibai Arte–, Bergaran –Bedelkar–, Oñatin –Txanda–, Aretxabaletan –Aretxarte– eta Eskoriatzan –Axtroki–. *Erosketak Debagoienean egin* kanpainaren barruan, banaka, binaka zein taldeka argazkiak ateratzeko dei egin dute, eta parte-hartzaileen artean 20 euroko 65 erosketa-bonu zozketatuko dituzte otsailaren 18an, eguaztena. Gero, bonu horiek merkatari elkarteetako kide diren komertzioetan erabili ahal izango dira.

Argazkiak, berriz, Whatsappez bidali behar dira 688 69 00 17 telefono zenbakira, zapatutik martitzenera arte.

### 'Photocall'-ak eta argazkiak non

Argazkiak *Goiena.eus* webgunean egongo dira ikusgai zapatutik bertatik; eta otsailaren 20ko GOIENA paperean argitaratuko dira horietako hainbat –bonuen irabazleen zerrenda ere bai.

*Photocall*-ei dagokienez, honako leku hauetan jarriko dituzte: Arrasaten, zapatuan (12:00-14:00 eta 18:00-20:00) eta martitzenean (17:00-20:00) Seber Altuben. Bergaran, zapatuan Irala kalean (12:00-15:00 eta 18:00- 21:00) eta martitzenean San Martin plazan (18:00-21:00). Oñatin, zapatuan eta martitzenean udaletxe aurrean (18:00-20:00). Aretxabaletan, domekan Eroski ondoko plazan (12:00-14:00) eta herri bazkarian (14:30etik aurrera). Eta Eskoriatzan, zapatuan Fernando Eskoriatza plazan (10:00-15:00).




*Photocall*–erako erabiliko den irudia Iñaki San Miguelek egin du. | IÑAKI SAN MIGUEL

# Epeleko eraikuntza lanak "abiada onean"

GOIATZ ARANA | DEBAGOIENA

Epeleko konpostatze planta eta transferentzia estazioaren eraikuntza-lanak "abiadura onean" doazela adierazi dute Gipuzkoako Hondakinen Kontsorziotik (GHK), eta bost hilabetean amaituta egotea espero dutela. Hori betez gero, ekainean materia organikoa jasotzen eta tratatzen hasiko da. Azpiegituraren eraikuntzaren hirugarren fasean dihardute: obra zibilari eta urbanizazioari dagokiona.

Finantzaziorako, GHK-k eta Alemaniako Akf Bank-ek akordioa sinatu dute. Horren arabera, Akf Bankek GHKren esku utziko du zortzi milioi euroko kreditua. GHKtik adierazi dute "merkatuan aurki daitezkeen baldintza ezin hobeetan" lortu dutela kreditua. "Partzuergoak beharren arabera erabili ahal izango du behar duena, kopurua gainditu gabe, %4,3ko interes-tasan. Hau da, errauste plantarako lortutakoa baino %2,5 merkeago eskuratuko du dirua partzuergoak, *swap*-ak bezalako estaldura espekulatiborik gabe".

**Aitor Eraña** | Bergarako Gure Esku Dago ekimeneko kidea

# "Herritar guztienganaino iristea da aurtengo erronka nagusia"

- Gure Esku Dago ekimenak bi ekitaldi egingo ditu uda aurretik
- Herritar ugari dabiltza herriz herri egiten dihardutenbatzarretara joaten

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA

Iazko giza kate erraldoiaren ostean, Gure Esku Dago ekimenak abiarazi du aurtengo jarduna. Bi hitzordu ditu ipar: apirilaren 25a eta ekainaren 20a. *Erabakia ehuntzen* izenburuarekin, bide-orria dabiltza aurkezten, baita Debagoienean ere (ikus *Herriak* saila). Bergaran, Oñatin, Aramaion, Antzuolan... herritar ugari bertaratzen dabiltza. Aurten ere gizartea gogotsu dator, bada, erabakitzeko eskubidearen alde. Bergarako taldeko kide da Aitor Eraña:



Aitor Eraña, Bergarako Gure Esku Dago ekimeneko kidea. | MIREN ARREGI

**Ze tenperatura sumatzen da?**

Herritarren gehiengoak dagoeneko badauka ekimen honen berri, eta, horregatik, ekintza berrietan parte hartzeko prestutasuna azaldu dute. Gogotsu daude herritarrak. Aurreko urtearekin alderatuta, gure dinamikaren helburuek edo norabideak ez dute azalpen handiegien beharrik, eta poztekoa da hori. Hala ere, herritar guztienganaino iristea izango da aurtengo erronka nagusia.

**Apirilaren 25a da hurrengo hitzordua. Zertarako?**

Aurtengo *Ehuntzen* ekimenaren baitako egun esanguratsu bat da. Apirilera bitartean, oihal zatietara atxikiko diren herritarrak bilatzea da egingizun nagusia. Parte-hartzaile bakoitzak dagokion oihal zatia apainduko du, idatzi, marrazki, poema edo bertsoekin. Oihal bakoitzean hogei herritarrek sinatuko dute. Apirilaren 25ean, herrian osatu diren oihal guztiok elkarrekin josi eta patchwork handi bat osatuko dugu. Ekitaldi jendetsua eta ikusgarria egin nahiko genuke Bergaran; eta, jakina, herri guztietan.

**Bien bitartean, non eta zelan eskura daitezke oihal pusketak?**

Ostegun arratsaldeetan Martinez de Irala kalean egongo gara; ezin duenak hona idatz diezaguke: *bergaraehuntzen@gmail.com*. Dena den, apirilera bitarteko ekintzetan ere eskainiko dugu erosteko aukera. Emango dugu horren berri hedabideetan.

## "Aniztasuna lortzen saiatu gara eta emaitza politak jaso ditugu"

## "Bakoitzaren garrantziaz ohartarazi nahi ditugu herritarrak"

**Tutoreak izendatzen diharduzue. Zertarako?**

Tutoreak oihalen arduradunak dira. Oihalak jaso eta hogei parte-hartzaile bilatzea da haien lana. Norberaren kirol taldean, aisialdiko taldean, lagunartean edo familian parte hartzeko prest dauden hogei horiek aurkitzean, izen-emate txartelak betearazi eta oihalean sina dezaten arduratuko dira. Oihal bakoitza hogei zatitan banatuko dute. Lan erraza da tutorearena, baina, aldi berean, garrantzitsua. Hala ere, hogei lagun aurkitzeko zailtasunak dituztenei laguntza eskainiko diegu. Helburuak lortzeko, Bergaran 100 tutoretik gora beharko genituzke; beraz, herritar guztien laguntza beharko dugu.

**Desberdinen topaleku izan gura du ekimenak; zelan beteko da hori?**

Hasieratik argi izan dugu erabakitzeko eskubidea lortu nahi badugu, guztiok batera egin behar dugula bidea. Aurtengo ekimenak sare hori osatzen joateko aukera polita eskaintzen du. Batetik, hogei pertsonako taldeak bilatzerakoan ezinbestekoa izango delako gai honen inguruko elkarrizketa. Bestetik, tutore bakoitzak bere esparruan eragingo duelako, eta bakoitzaren ingurua desberdina izango delako. Hori horrela izan dadin, gure lantaldearen lana izango da joera, gustu eta pentsaera askotariko tutore eta parte-hartzaileak bilatzea. Orain arte aniztasuna lortzen saiatu gara eta emaitza politak jaso ditugu; hala ere, bidea egiteko dago.

**Eta gero... ekainaren 20an, Joste Eguna; zer da hori?**

Aurtengo ekintza honen emaitzak ikusiko ditugun egun handia izango da. Euskal Herriko hiriburuetako estadioetan, hautetsontzi erraldoiak irudikatuko ditugu. Herriz herri apaindu eta ehundu ditugun oihal horiek elkarren artean josi beharko ditugu. Ekitaldi erraldoi hau, beste behin ere, herritar anitzak elkartu eta aldarrikapen honi indarra emateko baliatuko dugu. Beraz, estadioak jendez betetzea garrantzitsua izango da, herriz herri egingo den lanaren isla izan dadin.

**Besterik gura baduzu gaineratu...**

Herritarrak ekimen honen handitasunaz eta banakako bakoitzaren garrantziaz ohartarazi nahiko genituzke. Horrela, ekimen honetan era batean zein bestean parte hartzera animatu nahi ditugu. Lantaldean parte hartu nahi dutenentzat, astelehen arratsaldeetan 18:30ean elkartzen gara Bergarako Kultura Etxean.

Arrasateko Udalari esker

Euskadi Brass eta Kirmen Uriberen "Hitzak haizeak eramaten ditu" musika ekitaldirako sarrerak ditugu.

Amaia Antzokia. Arrasate

Otsailaren 22an, 19:00etan

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [Hitzak haizeak eramaten ditu] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA Hitzak haizeak eramaten ditu [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba

# EAEko babes sistema defendatu du Lanbideko zuzendariak Arrasaten

Gezurtatu egin du jendea erkidegora gizarte laguntzetatik bizi izatera datorrela, adibidez

**JULEN IRIONDO** | ARRASATE

Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (RGI) pobreziaren kontrako tresna dela azpimarratu zuen atzo, eguena, Adolfo Alustizak, Lanbideko zuzendari nagusiak. EAJk gonbidatuta, Arrasateko batzokian hitzaldia egin zuen.

Bestelakoen artean, laguntzen banaketa zalantzan jartzea Gasteizko alkate Javier Marotok azken hilabeteotan martxan jarritako hauteskundeen testuinguruan boto batzuen truke egindako kanpaina izan dela adierazi zuen. Eta gezurtatu egin zituen hainbat esan, jendea Euskal Autonomia Erkidegora gizarte laguntzetatik bizi izatera etortzen dela, adibidez.



Adolfo Alustiza, Arrasaten. | J.I.

**Erantzun positiboa**

Era berean, baina, "gezurretan oinarritutako" kanpaina horri eman zaion erantzuna oso positiboa izan dela adierazi zuen Alustizak.

## Amaia Berrin egindako lapurretaren ikerketa bere horretan dago

Aretxabaletako Amaia Berri iturgintzaren tailerrera lapurrak sartu eta furgoneta berria, materiala eta erremintak eraman zizkieten joan den astean. "Kolpe gogorra izan da, baina orain arte moduan segituko dugu lanean", azpimarratu du Asier Biain ugazabak. "Orain lau bat hilabete, atzeko ate hori berori –patiotik tailerrera sartzekoa– azaldu zen zulo bat eginda zuela, baina barruan ez zegoen ezer ukituta. Susmoa da orduan barrukoari begiratu ziotela eta orain lapurretan egin digutela", gaineratu du. Ikerketa zabalik dago, baina, oraingoz, ez da berririk.

## Ezker abertzaleko 34 hautetsiren kontrako epaiketa, data barik

04/08 epaiketak, *Segura auzia* izenez ezagutzen den epaiketak, data barik segitzen du. Urtarrilaren 12an hastekoa zen epaiketa bertan behera geratu zen, egun berean defentsako abokatuen kontra egindako polizia operazioren ondorioz. Bada, horren ostean, inputatuetako batzuek abokatu barik segitzen zutela-eta epaileak otsailaren 25era arteko epe-muga jarri die abokatu berriak izendatzeko. "Ez dakigu ezer, baina uste dugu, akaso, behin abokatuak izendatuta jakin dezakegula epaiketaren dataren berri", esan du Ino Galparsoro inputatuak.

# Arizmendi Ikastolako hiru ikasle EYPko hurrengo fasera

**KOMUNITATEA GOIENA** | ARIZMENDI IKASTOLA | DEBGAOIENA

Aurten ere Arizmendi Ikastolako bi talde izan dira parte hartzen European Youth Parliament-eko hasierako saioetan. Almeneko taldean Jon Egidazu, Lorea Armendariz, Ainhoa Sanchez, Ainara Merino, Naiara Carmona eta Ariane Agilera aritu dira; eta Gaztelupekoan, berriz, Jon Lizarraga, Laura Balantzategi, Jone Heriz, Ainhoa Murillo, Maider Azkarate eta Kepa Urzelai.

Biek ala biek oso lan ona egin dute eskualdeko lehenengo kanporaketa honetan, eta hiru ikasle hurrengo faserako sailkatu dira, hain zuzen ere, Gaztelupeko taldeko Jon Lizarraga, Jone Heriz eta Maider Azkarate.

**Sevillan, hurrengo**

Hurrengo saioak, nazio mailakoak, Sevillan izango dira datorren apirilaren 8tik 14ra bitartean, eta, kanporaketa horietan sailkatuz gero, Europarako fasera iritsiko dira; azkeneko fasera, hain zuzen ere.

Sevillako saioetan, Arizmendi Ikastolako hiru ikasleak hainbat taldetan izango dira; estatu osoko ikasleak hamabost taldetan banatuko dituzte.

## ZABALIK



**JOXEMARI MUXIKA**
goiena.eus/komunitatea/

# Enpresako balioak

Gizarteak balioekiko duen atxikimendua asko arduratzeko modukoa da. Izan ere, elkarbizitza izango badugu, balioen baitako antolakuntza beharrezkoa dugula pentsatzen dut.

Orain dela gutxi, bere nagusigopean langileak dituen enpresari batek zioen "ilusioa, konpromisoa eta ongi egindako lanarekiko maitasuna" zirela beretzat "betiko balioak". Ez daukat zalantzarik ondo funtzionatu nahi duen lantegi baten ikuspegitik oinarrizko jarduera balioak direla horiek.

Hori irakurrita, aspaldian buruan bueltaka dabilkidan galdera bat bururatu zitzaidan, enpresako antolakuntzan "elkartasuna, justizia, demokrazia eta berdintasuna" eta halako balioek lekurik ba ote duten; izan ere, maitasun handiz, ilusioz eta konpromisoz egindako lanak etekin ekonomikoa du helburu, azken batean, baita zerbitzuak ematen dituzten enpresak beraiek ere.

> **"Ongi egindako lanarekiko maitasuna, ilusioa eta konpromisoa"**

Enpresa bateko etekinak zenbat eta hobeak izan, orduan eta soldata hobeak banatuko direla espero daiteke. Hori horrela gertatzen bada ere, banatzeko geratzen den irabazien jabetasuna noren esku geratzen da? Izan ere, fondoa, erreserbetan jarri edo inbertsioetan sartu, norbaiten jabetzan geratzen da. Enpresariak hori gaizki joanez gero ezer gabe geratzeko arriskua ere berea dela esango du. Horrela ote da? Eta bertako langileak ez al dira geratzen, ba, kale gorrian?

Enpresari hark adierazten zituen "betiko balioek" aplikazioa izateko beste oinarri batekin garatutako enpresa antolakuntza behar dela esango nuke. Oinarrizko balio horiek elkartasuna, justizia, demokrazia eta berdintasuna lirateke, horietan oinarritutako funtzionamendu batean "betiko balioak", "ilusioa, konpromisoa eta ongi egindako lanarekiko maitasuna", aplikagarriagoak lirateke. Horrela, betiko balioekiko sor daitezkeen zalantzak justifikatzea zailagoa litzateke.

## MARRAZKIZ

**UNAI BUSTURIA** | goiena.eus/komunitatea/




## USTEAK USTE

**JULEN IRIONDO** | jiriondo@goiena.eus

# Despedidak poz txiki bat

Maite dugun bati agur esatea tokatzen denean, ohituak gaude elizan entzutera "gaur egun pozgarria da", "Jainkoaren aldamenera doa" eta halakoak. Kontsolamendu eskasa: maite ditugunak, aldamenean nahiago. Oraindik ere hala uste dut, noski. Baina aitortu behar dut azken despedida batean sentitu dudala emoziotxo baikor bat –nahiz eta ez *betiereko bizitzarekin* lotua–. Ikusi nituen adin bateko gizonezkoak ia hitzik gabe, baina joandakoarekiko maitasuna ageri-agerian utziz; beste hainbeste joandakoaren anaia fraideak. Maitasun adierazpen horiek poz txiki bat eragin zidaten barrenean, basakeria itzeletara ere ohitzen hasiak garen garaiotan.

## HANDIK ETA HEMENDIK

# Euskal-amerikar izatearen harrotasuna

**Xabier Mendiguren Elizegi**
eibar.org/blogak/mendiguren/

Anne Marie Chiramberro neska kaliforniar bat da, aita baxenabartarra duena eta hellabasque.com izeneko blog interesgarri bat idazten duena, gazte euskal-amerikar baten esperientziez eta ikuspuntuez. Berriki artikulu bat plazaratu zuen, *Why I say I'm proud to be Basque American, not Basque* tituluduna (Zergatik diodan harro nagoela euskal-amerikar izateaz, ez euskaldun izateaz), eta bertan esandakoek gogora ekarri dizkidate euskal-amerikar nortasunaz idatzi izan diren beste lan batzuk.

Estatu Batuetako mendebaldeko euskaldunen imajinario kolektiboa sortzeko eta finkatzeko, berebiziko garrantzia izan zuen Robert Laxalt-ek. Laxaltek zuberotarra zuen aita, Nevadara artzain joandakoa; bigarren belaunaldi arrakastatsuaren eredu izan zen haren familia: Robert idazle ospetsua izatera heldu bazen, gorago iritsi zen Paul anaia, AEBko senataria izan baitzen urte luzez, Alderdi Errepublikanoarekin, eta Robert Reagan lehendakariaren lagun mina.

Laxalten lehen liburua eta ospetsuena *Sweet Promised Land* izan zen (1957an kaleratua), hitzez hitz "Lur agindu eztia", euskaraz beste izenburu batez itzuli bazen ere: *Dominique, artzain xiberotar bat Nevadan,* orain dela 25 bat urte nire izenkide Xabier Mendiguren Bereziartuk euskaratu zuena, Joxe Anjel Arbelaitzen bultzadaz eta Zuberoa jatetxearen laguntzaz.

Eleberri horretan, Robertek aitaren historia kontatzen du: gaztetan Ameriketara joan, bizitza osoan artzain jardun, mendiko bakardadean, eta zahartzaroan, semearen laguntzaz sorterrira nola itzuli zen, ahaide galduak eta haurtzaroko bazterrak berriz ikustera. Euskal izaeraren amodio gartsuz idatzia dago nobela osoa, askotan gogoratu denez, baina aldi berean (eta ezaugarri hau ez dut horrela aipaturik ikusi), euskal-amerikar nortasuna definitzeko orduan, gure herri zahar honen eta hango herri berriaren arteko kontrajartze argi bat egiten du: hemengo euskaldunak lehenean iltzaturik geratu dira, ohitura, hizkuntza eta bizimodu zaharrei loturik; Ameriketara joan direnek, berriz, borroka latzen ondotik, aberri berri bat irabazi dute, garapen eta aberasbide handiagoak eskaintzen dizkiena. Dominiquek badaki bera euskalduna dela soin eta arima, inoiz ez dela guztiz egokituko AEBko bizimoldeetara, baina hura du jada bere lekua, beretzat baino gehiago bere seme-alabentzat.

Ez dut gaia ondo ezagutzen, baina imajinatzen dut antzeko ikuspegi eta burubideak erabiliko zituztela Estatu Batuetara joandako komunitate etniko ugarik: greziarrek, errusiarrek, italiarrek... AEB den Melting Pot horretan, bakoitzak ditu bere sustraiak, eta horiek harro aldarrikatzen ditu, jatorri partikular horrek ez baitu ukatzen amerikar izaera, hura azpimarratu baizik. Horren erakusgarri da Anne Marie gaztearen artikulua ere, hasieran aipatu dudana. Ez dago gaizki horrela izatea, baina hobe da guk ere argi edukitzea zertaz dauden harro, euskal izaeraz harro daudela diotenean.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.eus

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.eus

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## GUTUNAK

### Gure ikuspuntua

**Jose Antonio Amundarain**
(Oñatiko Duintasuna pentsiodunen taldearen izenean)
Oñati

*Puntua* astekarian 4. zenbakian argitaratutako idatzi batek hauxe dio izenburuan: *Gero arte, kopago.* Politikarien ustelkeriak eta ustez guk guztiok egin omen ditugun ustelkeria txikiak –adibideak jartzen ditu– edo etxeetan sartzean ikusten ziren farmako pilaketak orain ez direla ikusten kontzientziatuagoak omen gaudelako, eta ez dela txarto etorri alde horretatik kopagoa eta bere alde positibo nabarmena eduki duela.

Gure erantzuna: medikamentuak medikuak errezetatutakoak izaten dira eta farmazian errezetekin hartzen ditugu botikak; etxean batzuetan pilatu egiten baldin badira, ez da izango bilduma egin nahi dugulako, gaixotasuna gainditu eta sendatu egin garelako baizik.

Laburbilduz, artikulugileak kopagoaren zama ondo merezia ez ote daukagun demostratu nahi duela dirudi, ustelak eta iruzurtiak garela esaten baitu.

Baina ikus dezagun nondik datorren eta zergatik aplikatu zaigun kopagoa.

Munduko merkatu finantzarioak osasun publikotik 7.000 milioi euro kentzeko eskatu zion PPren gobernuari eta Ministro Kontseiluak murrizketak agindu zituen: Hezkuntzan 3.000 milioi. Osasungintzan 7.000 milioi; horietatik, 3.550 milioi farmaziako gastuan.

Apirilaren 20an, 16/2012 lege-dekretua atera zuten eta berrordainketa –kopagoa– ezarri zuten pentsiodunentzat eta aktiboentzat. Berrordainketak denok kaltetzen gaitu, baina bereziki gaixoak. 2012ko uztailean sartu zen indarrean berrordainketa eta abuztutik aurrera PPren gobernuak ez zituen 425 botika finantzatu.

Gero, 2013ko azaroan, agindu bat atera zuen Jaurlaritzak, mediku-errezetarekin farmazian ordaindutakoa berriz itzultzekoa, baina kasu batzuetan bakarrik: urtean 18.000 eurotik behera duten pentsiodunei, esate baterako.

EAJk gobernatzen duen Jaurlaritzak, itxuraz, gutxien kobratzen duten pentsiodunei lagundu nahi die, baina errealitatea beste bat da: joan den urtean, 2014an, laguntza eskaria egin zezaketen 450.000 pertsonetatik, 126.225 pertsonak bakarrik egin dute.

Jaurlaritzak benetan lagundu nahiko balu, ez luke paperik eskatu behar, hark gestionatu beharko luke diru itzulketa, horretarako ditu-eta guztion datu fiskalak. Baliabide gutxien duen edadeko pentsioduna behartu nahi izatea papera bete eta eskaera egitera asmo txarrez jokatzea da. Horrelako jarrerarekin, EAJren Jaurlaritza, gauzak erraztu beharrean, oztopoak jartzen ari da, eta lehendik ondo izorratuta dagoen pentsiodunen egoera okertu egin da.

Argi ikusten denez, urtean 18.000 eurora ailegatzen ez diren pentsiodunak eta gainontzekook ez gaude egoera honetan ustelkeria, lapurreta edo iruzurra egin dugulako, gure diruarekin hori guztia beste batzuek egin dutelako baizik.

Zoritxarrez, duintasunez bizi izateko larri eta estu dabilen pentsiodun gehiegi dago Euskal Herrian, eta ez dugu uste *Puntua*-ren 4. zenbakian datorren artikulu horrek orain deskribatu dugun errealitatearekin zerikusirik daukanik. Askotan esan ohi da: *Zenbat buru, hainbat aburu.* Baina eroso dagoen lekutik egiten den diskurtsoak eta larritasunez betetako zahartzaroak ez daukate elkarren artean zerikusirik, eta horregatik saiatu gara gure ikuspuntua ematen idatzi honen bitartez.

### Izanari izenetik EUSten

**Itxaro Artola Lizarralde**
(AED elkartearen izenean)
Arrasate

Euskara eta euskararen herria iritsi dira mundu digitalean berezko tokia aitortzen zaien puntura. PuntuEUS domeinura.

Gure hizkuntzaren egoera normalizatzeko bidean urrats garrantzitsua da, ezbairik gabe, eta AEDk gonbita luzatzen dizu, webgune edota posta elektroniko baten jabe bazara, haien *abizenak* alda ditzazun. Dagoeneko 2.000tik gora dira halaxe egin dutenak eta gure elkartea ere bidean da. Zu ez zara atzean geratuko, ezta?

Izan ere, edonork –izan norbanako, izan entitate, izan hemengo, izan nonahiko– egin dezake eskaera eta nahikoa da hiru pauso erraz eta azkar jarraitzea horretarako: *www. domeinuak.eus* webgunean sartu, webguneari jarri nahi diogun domeinua eskuragarri dagoen begiratu eta, horrela bada, bertan ageri den erregistradoreen zerrendatik bat aukeratu, haren bitartez erosketa-prozesua gauzatzeko.

Diru aldetik ez zaizu garesti irtengo –30 eta 100 euro bitartean, kontratatu nahi ditugun zerbitzuen arabera– eta asko daukazu irabazteko nortasunean eta erreferentzialtasun mailan. Zergatik? Ba… EUS laburdurak euskararen eta euskal kulturaren komunitateko kide sentiarazten gaituelako; kohesiorako gune delako; muga geografikorik gabeko sarean gu geu izateko aukera eta tokia onartzen dizkigulako; nazioartean ikusgarri egiten gaituelako; euskara beste hizkuntzen pare jartzen duelako… Bada dEUS, ezta?

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

GALDE
GAZTE

GOIENA TELEBISTA | DEBAGOIENEKO GAZTEEKIN SAIOA
EGUAZTENEAN | OTSAILAREN 18AN, 22:00ETAN
GONBIDATUA: XABIER SOLANO (ESNE BELTZA)




ANTOLATZAILEAK:
goiena KOMUNIKAZIO TALDEA
DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

BABESLEA:
MONDRAGON UNIBERTSITATEA

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

ARETXABALETA

HERRITARRAK

**Manolo Zubillaga** Asegarceko langilea izan da 22 urtean eta txirrindularitza lasterketen antolatzailea urte gehiagoan. Erretiroa hartuta dago baina erretiratu ezinik dabil oraindik. | MIRARI ALTUBE

# "Kirol saltsa askotan sartuta bai, baina kirolaria ez naiz sekula izan"

Herrigintzaren gainean badaki zerbait Manolo Zubillaga Altubek (Aretxabaleta, 1940). Pilotaren inguruan –Asegarce enpresan egin du lan 22 urtean– dabil oraindik, beti ere txirrindularitza ahaztu barik. UDAko eta Alkar elkarteko presidente izandakoa, baita zinegotzia ere, erretiratu ezinik dago.

**Erretiroa noiz iritsiko da?**
Ofizialki erretiratuta nago, baina oraindik han eta hemen nabil, ezin utzi. Batzuetan lotsatu ere egiten naiz, 74 urte ditut-eta.

**Pilota, txirrindularitza... zeu izan zara sekula kirolaria?**
Ez, nagi xamarra izan naiz beti eta gaztetan orain baino gehiago. Hortaz, saltsa askotan sartuta bai, baina kirolaria sekula ez.

**Asegarcerekin lanean ezagutu zaituzte askok; pilota munduan zenbat urte?**
22 urte egin ditut, Asegarce jaioz geroztik; lehenengo partiduan ez nintzen egon baina bigarrenean bai. Pilotaren inguruan lanean, baina, aurretik nengoen hasita. Euskadiko pilota federazioa sortu zenean, Iurretan, lau urtetan izan nintzen zuzendaritzako kide eta harreman publikoen eta publizitatearen ardura izan nuen.

**Jakin ez zenbat partidu ikusi dituzun, ezta?**
Auskalo! Lehen egubakoitz, zapatu eta domeka guztietan joaten nintzen, eta orain ere, aste bukaera guztietan joaten naiz partiduren batera.

**Euskal Herriko eta inguruko pilotaleku asko ezagutuko dituzu...**
Bai, bai. Gaztelako pilota partiduetara ere joaten naiz, pilotaleku askotara, eta ezagun asko ditut han eta hemen.

**Lagun asko orduan...**
Askotan uste dut gehiegi. Izan ere, pilotalekuetan sartu orduko agurtzen naute batak eta besteak, eta emazteak esan izan dit: *zein da ba hori?* Eta nik jakin ez.

**Baina pilota baino lehen txirrindularitza izan zen, ala?**
Bai, ezkon bidaiatik itzuli nintzenean esan zidaten Aretxabaletako kirol elkartearen zuzendaritza batzordean nengoela. Hasieran, atletismoaren ardura izan nuen eta gero txirrindularitzarena. Talde ederra osatu genuen eta kontu mordoa egin. Astero-astero antolatzen genuen txirrindularitza lasterketaren bat orduan: emakumeena, ziklokrosa... Ez dakit dirua zelan lortzen genuen hori guztia antolatzeko!

**Gaztetatik txirrindularitza zalea?**
Aita txirrindularia izan zen eta behar bada hortik etorriko zait zaletasuna. Gogoan dut 12 urte nituela ziklokros txapelketa izan zela herrian eta txirrindulari famatuak etorri zirela. Ibilbidea erakusteko txirrindulari horiei esan zidaten, eta nik pozik egin nuen. Ordutik giro horretan...

**Aretxabaletako ziklokros txapelketek ospe handia izan zuten...**
Bai, 20 urte pasatxoan urtero antolatu ziren eta beldur barik diot Europako bigarren edo hirugarren lasterketa garrantzitsuenak zirela gurean egindakoak; halaxe onartu ziguten gainera, Belgikan, Frantzian, Alemanian... Herrialde horietan jokatutako munduko txapelketatan izan nintzen eta guztietan hartu gintuzten ohorez. Izugarrizko lana zen antolatzea, baina gustura egindakoa.

**Orain dela bi urte esan zenuen Andramaixetan jokatzen den lasterketaren ardura utzi egingo zenuela.**

**Oraindik, baina, hor jarraitzen duzu...**
Bai, aurten guztiz utziko dudala esan berri dut, baina era berean antolatu ahal izateko diru bila nora jo pentsatzen hasita nago dagoeneko. Ardura horri heltzeko atzetik datorrenik ez dut ikusten-eta... Izan ere, orain ez dut uste ardurak lehen bezala hartzen direnik.

**Alkarreko presidentea ere izan zinen. Zer zen Alkar?**
Kultur elkartea zen eta ekintza mordoa antolatzen zituen: hitzaldiak, kontzertuak, arropak jaso etxeetan eta Santa Agedara eraman... Alkar desagertu ostean Loramendi sortu zen.

**Zinegotzi ere izan zinen.**
Bai, baina bi urtean bakarrik, gehiago ezin izan nuen iraun. Ez dut gustuko politika. Herriarendako lan egitea gustuko dut, baina gero politika sartzen da tartean... Eta nik pentsatzen nuen orduan: *zergatik bozkatu behar dut besteek agindutakoa nik ez badut egoki ikusten?* Utzi ostean ere sarri esan zidaten itzultzeko, baina ez dut gura izan.

**"Beldur barik diot gure ziklokros txapelketa Europako onenetakoa zela"**

**"Bi urte bakarrik egin nituen udaletxean, ez dut gustuko politika"**


Manolo Zubillaga Aretxabaletako kalean. | MIRARI ALTUBE

NIRE HERRIAN

**:) ANDRAMAIXAK ETA ARATUSTEAK**

Andramari jaiak abuztuan izatea defendatu izan dut beti. Gaztea nintzenean, izugarrizko jaiak ziren; orduan ez zegoen oporrik eta Arrasateko eta Eskoriatzako jende mordoa etortzen zen. Oraindik ere jai handiak dira, baita Aratusteak ere. Gurean egiten den edozein jai, ospakizun eta kultur ekitaldi dut gustuko.

**:( BORONDATEZKO LANIK EZA**

Boluntarioen lanak behera egin du. Borondatez lan egiterakoan ardurak ez dira lehen bezala hartzen orain; lehen edozein lan egiteko gertu izaten ziren herritarrak, gogor lan egin ere. Ez dut ulertzen orain buruhandi ateratzeko ordaindu behar izatea gazteei; zinegotzi nintzela erraldoiak ateratzen genituen, ezer jaso barik. Hortaz, auzolana berreskuratuko nuke.






**PUNTUA** ETXEAN ASTERO JASOTZEKO*:
**943 25 05 05** edo ***kluba@goiena.eus***

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

*GOIENA KLUBEKO BAZKIDEOK EZ DAUKAZUE ESKATU BEHARRIK.

# HERRIAK

ANTZUOLA

# Lehentasuna, oinezkoek

▶ Erdigunean aldaketak egingo dituzte, batez ere, eskola, plaza eta frontoi inguruetan

▶ Zirkulazioa ez dute erabat moztuko, irisgarritasuna eta zamalanak garantizatzeko

MAIALEN TORRES | ANTZUOLA

Urtarrilean, aurrekontuen onarpenarekin batera eman zioten behar zuen bultzada proiektuari. Herriko erdiguneko hainbat kaletan egokitzapenak egingo dituzte, zirkulazioa murriztu eta oinezkoei lehentasuna emateko.

Segurtasuna garantizatzeko helburuarekin, oinezko gehien ibiltzen diren inguruei eragingo die aldaketak; batez ere, eskola, frontoi eta taberna inguruari, hain zuzen. "Ez da inoiz istripurik gertatu, baina sustoren bat edo beste izan dugu", dio Iker Mansok, Hirigintzako zinegotziak.

Horregatik, eta hainbat herritarrek egindako eskaerari erantzunez, ibilgailuen zirkulazioa beste modu batera bideratzea erabaki du Udalak. "Oinezkoei lehentasuna eman nahi diegu, eta bide batez, kaleei bizia eman", azaldu du Ima Beristain alkateak.

Dena den, zirkulazio handien duten kaleak ez dituzte erabat itxiko, denda, taberna eta etxeetarako sarbidea ez dutelako moztu nahi. Horren ordez, ibilgailuen joan-etorria murrizteko hainbat neurri hartuko dituzte.

**Erdigunean, aldaketak**

Alboko argazkietan ageri diren aldaketa nagusiez gain, badira kontuan hartu beharreko beste hainbat ere: batetik, Beheko auzora doan bidearen noranzkoa aldatu egingo dute; beraz, erdiguneTik hara joateko, herria inguratzen duen saihesbidea erabili beharko da. Bestetik, plazatik frontoira doan aldapa, berez itxita egon arren, azoka egunetan zabaldu egingo dute.

Gainera, Etxezuri parean, orain irteera gisa funtzionatzen duen zatia sarrera bakarrik izango da aurrerantzean.

Herritarrei plana zehazki azaltzeko bilera bat dagoeneko egin zuten arren, beste bat egingo dute martitzenean, azken ekarpenak batu ostean oinezkoei lehentasuna emango dien plana lehenbailehen martxan jartzeko.

Udaleko ordezkariek argi dute herritarren kexak izango direla, baina "orokorrean begiratuta, herriarentzat onuragarria" izango dela uste dute. "Sistema berrira ohitu ostean, udaberri edo uda aldean, eguraldi ona iristean igarriko dituzte herritarrek aldaketaren onurak", dio Mansok.

**Behin-behineko piboteak**

Bideak itxi edo egokitzeko erabiliko diren piboteak eta loreontziak finkoak ez izatea erabaki du Udalak. Hartara, plan hori proban jartzeko aukera izango dute, eta espero bezala funtzionatzen ez badu, aldatzeko aukera izango dute. Horretaz gain, sistema horrek festetan eta antzeko data esanguratsuetan aldaketak egitea ahalbidetuko du.

Jarriko dituztenen artean, urrutiko aginte bidez jaits daitezkeen piboteak ere izango dira puntu batzuetan, elbarriei pasabidea errazteko eta garajeetara sarbidea emateko.



M.T.

**BUZTINZURI KALEA** Piboteak eta loreontziak jarrita, ibilgailuentzako errei bakarreko bidea utziko dute zabalik, eskuinaldean espaloi estu bat eta ezkerraldean oinezkoentzako eta terrazentzako bost metroko tartea dituena.



M.T.

**KALEBARRENEKO BIDEGURUTZEA** Mañarieta paretik Kalebarren kaleko hemeretzigarren zenbakiraino itxi egingo diete bidea ibilgailuei, asteburuetako ordu jendetsuenetan.



M.T.

**FRONTOI INGURUA** Frontoiaren atetik herriko plazatik datorren aldaparainoko tartea itxi egingo dute. Dena den, aparkalekuetara beste bide batzuetatik sartu ahal izango da.



M.T.

**ELIZA ATZEKO APARKALEKUA** Eskola ondoko patioaren aldamenetik jaisten den errepideak noranzko bikoitza izango du, eliza atzeko aparkalekura sarbidea garantizatzeko.



M.T.

**PLAZA** Orain arte bezala, aurrerantzean ere plazan zamalanetarako soilik egongo da aparkatzeko lekua, baina neurria gogortu eta betearazteko asmoa dute, asteburuetan autorik egon ez dadin.



M.T.

**HAINBAT KALE ITXITA** Plazatik Ondarrera doan pasabidea itxi egingo dute, baina goitik behera jaitsi ahal izango da, aparkalekuraino. Plazatik frontoira doan aldapa ere moztu egingo dute.

## PLANAREN BERRI EMATEKO BILERA

Lehenbailehen jarri nahi dute martxan erdialdea oinezkoentzako egokitu eta zirkulazioa berrantolatzeko plana. Aurretik, ordea, herritarrekin bilera egingo dute, ekarpenak jasotzeko.

**Eguna:** Otsailak 17, asteartea.
**Ordua:** 19:00.
**Tokia:** Olaran etxea.

# Arrasate pasealekua, oinezkoendako eta bizikletendako laster

Hilaren 23an hasiko dira Udala eta Foruen plazen arteko zatia kale egiteko obrak



Udala eta Foruen plazen arteko tartean izango dira lehen faseko lanak. | J. DOMINGO

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Takolo-Goiru proiektuaren barruko lehen faseko lanak otsailaren 23an hasiko ditu Construcciones Amenabar enpresak. Lehen fase hori Arrasate pasealekuari dagokio, Foruen eta Udala plazen arteko tarteari. Bide zati hori kale bihurtuko dute, oinezkoei lehentasuna emanda eta bidegorria txertatuta. 1.135.000 euro izango da aurrekontua eta obrek sei hilabete iraungo dute: "Labur esateko, Takolo eta Goiru arteko zatian gaur egun errepide den guztia kale bihurtuko dugu. Horrek esan gura du oinezkoei eta bizikletei lehentasuna emango zaiela, espaloiak zabalduta eta bidegorria txertatuta", adierazi du Inazio Azkarragaurizar alkateak proiektua aurkezteko agerraldian.

**Herrira sartzeko, saihesbidetik**

Mugikortasun eredua aldatu eta arrasatearren bizi kalitatea hobetzeko helburuaren barruan, Udalak lehentasuna eman dio bederatzi fasetan egingo den Takolo-Goiru proiektuari. Arrasate pasealekuko zirkulazioa beste bide batzuetatik desbideratuko dute: saihesbidearen eremura doazen ibilgailuei Olandixoko tunela erabiltzea gomendatuko diete, hori izango delako irtenbide azkarrena eta egokiena. Barne mugimenduak Loramendi eta Uribe kaleetatik bideratuko dira, eta egokitzapen txiki batzuk egin beharko dituzte.

Hortaz, Aretxabaletatik, Elorriotik eta Bergaratik datozenendako, saihesbideak erabiltzea izango da gomendioa. Gesalibar-Garagartzara edo Uribarri-Erguinera joateko ere Olandixoko tunela erabiltzea aholkatuko dute, eta herri barruko kaleak "ahalik eta gutxien" erabili: "Mugimendu horiek gutxituz gero, Uribarri eta San Andres arteko lotura Loramendi eta Uribe kaleetatik egiteak ez luke arazorik ekarri behar".

Lehen faseko lan horiek izango dira bederatzi faseetatik konplexuenak, hirigintza oztopo guztiak kendu beharko dira-eta: "Udala eta Foruen plazen arteko bide zati osoa altxatuko da, alderik alde. Emaitza izango da plataforma bakar bat lortzea", adierazi du Hirigintza teknikariburu Juan Antonio Urdangarinek. Biribilguneei dagokienez, Udala plazakoaren ardatza bere horretan mantenduko da: "Erdigunea ez da ukituko, baina ertzak bai, espaloiak-eta egokitzeko. Horregatik, obretan ere biribilgunea funtzionamenduan egongo da beti, geldialdi puntual batzuk izan ezik", dio Urdangarinek. Foruen plazakoan, ordea, benetako biribilgune bat jarriko dute, eta, beraz, ardatza aldatu: "Gaur egun bidegurutze arraro bat dena biribilgune bihurtuko da. Ardatza aldatu egingo da, eta horrek ekarriko du inguru guztia altxatu beharra. Beraz, errepidea puntualki moztu egin beharko dute; obren zuzendaria aztertzen ari da nola eragin ahalik eta mozketa gutxien".

**San Isidroko zubiaren adibidea**

Obra handia izango da eta eragina izango du zirkulazioan. "Ohitura aldatu beharra" ekarriko die arrasatearrei. Hala ere, herritarrak lasaitzeko adibide bat ere jarri zuen martitzeneko agerraldian Udaleko Hirigintza teknikariburuak: "San Isidroko zubiaren obran denok pentsatzen genuen sekulakoa izango zela, baina oso ondo funtzionatu zuen. Zubia itxita egon zen eta herrian zirkulazioak nahiko ondo funtzionatu zuen".


URTEKO AUTORIK ONENA EZ DA AUTO BAT. ........IRAULTZA DA.

www.citroen.es

12.100 €-tik *
> Eskuzko aire girogailua
> 7"-ko ukipen pantaila
> (Bluetootha + USB + AUX)
> Sei airbag
> Sabai-barrak

CITROËN C4 CACTUS, URTEKO AUTOA ESPAINIAN.



Hasiera baten, autoa dela ematen du. Besterik barik. Baina ondo begiratuta, pentsatzeko beste modu bat da. Automozio-kontzeptu iraultzailea, aurrekoa hausten duena. Ideiak zure beharrei egokitzeko. Mugikortasuna, dibertsioa eta konfiantza lau gurpilen gainean eta detaile askoren mikrokosmosa, zure bizimodua arinagoa izan dadin. Batzuetan iraultza honelakoa da: arina, suabea eta kolorez betea.

CRÉATIVE TECHNOLOGIE
Citroënek nahiago du TOTAL

CITROËN

PRECIOS SÚPER ESTRELLA
PIVE 6

KONTSUMO MISTOA : (L/100 KM)/ CO2 EMISIOA(G/KM):
CITROEN C4 CACTUS: 3,1-4,7/82-107

Salneurri gomendatua C4 Cactus PureTech 82 Feel Fine autoarendako: 12.100 euro (zergak, garraioak, eskaintza eta Pive plana barne), euren izenean dagoen ibilgailu bat entregatzen duten bezeroendako eta Banque PSA Financeren bidez gutxienez 6.000 euro finantzatzen badituzte 36 hilabeteko gutxieneko iraupen-konpromisoarekin. Eskaintza baliagarria hilabetea bukatu arte parte hartzen duten saltokietan, penintsulan eta Balear Uharteetan. Salneurri gomendatua finantzatzen ez duen bezeroarendako: 13.330 euro. Iragarkian agertzen den modeloa: C4 Cactus PureTech 82 Feel Fine.

TALLERES CHAPIME
San Andres 5, 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 45 22




JOKIN BEREZIARTUA

## Azoka Plazako igogailua martxan

Otsailaren 6a ezkero martxan dago Azoka Plazako irisgarritasuna hobetzeko igogailua. Udalak sustatu ditu lanok eta Pablo Telleria arkitektoaren proiektua bete du Construcciones Moyua enpresak. Obra egin aurretik kanpoko eskailerak zeuden lekuan jarri dute igogailua, eta 160.000 euroko kostua izan du. Igogailu berriak hogei lagunendako lekua dauka eta jeneroa jaisteko ere erabil daiteke.

## Gurasoendako tailerrak antolatu ditu Prebentzio Sailak; otsailaren 20rako eman beharko da izena

Udaleko Prebentzio Sailak gurasoendako bi ikastaro antolatu ditu martxorako eta apirilerako: batetik, 0 eta 12 urte arteko haurrak dituztenendako *Elkarbizitzarako tresnak eskuratzen: etxean errespetua, komunikazioa eta lasaitasuna areagotzeko tailer praktikoa* izenekoa; bestetik, 13 eta 19 urte artekoak dituztenendako *Zer egingo dut nik orain?* ikastaroa. Hilaren 20rako eman behar da izena: 943-25 20 07.

# Zuhaitz Egunak eta zuhaitz feriak bat egingo dute otsailaren 21ean

J.B. | ARRASATE
Meatzerrekarekin "diskriminazio positiboz" jokatu eta auzoak azken urteetan jasotako "tratu txarrak" konpentsatu gura ditu Udalak. Saneamendu lanak egiteaz gain, ondare kulturala eta naturala berreskuratu gura dute, besteak beste. Azken asmo horren baitan kokatzen da, hain justu, otsailaren 21erako antolatu duten Zuhaitz Eguna: "Herritarrak gonbidatu gura ditugu familian goiz-pasa eder bat egitera", adierazi du Ingurumen teknikari Pello Garaik. 09:00etan elkartuko dira Arbolapetan eta oinez egingo dute Meatzerrekarako bidea. 09:30 aldera, Arantza Otadui historialariak auzoaren historiaren gainean jardungo du San Baleixo ermitaren ondoan. Gero, 10:30 aldera, hasiko da landaketa: 60 bat intxaurrondo eta gaztainondo landatuko dituzte.

Amaitzeko, 13:00ak aldera, mokadutxoa egingo dute Erein Da Jan elkartekoen postuan.

### Zuhaitz feria Seber Altuben
Hilaren 21eko baserritarren azokan, ohiko postuez gain, lau mintegitako arbolak ikusi eta erosteko aukera egongo da Seber Altuben (08:00-14:00): Gatikako (Bizkaia) Etxebarria mintegia, Zarauzko (Gipuzkoa) Lurberri mintegi ekologikoa eta Zaldibarko (Bizkaia) Areitio eta Belar mintegiak. Udala "oso pozik" dago iazko feriarekin; aurrerantzean zuhaitz feria urtarrilean egitea gura dute.

## Iturbide egoitzan otsailaren 17an ospatuko dituzte Aratusteak, Jose Mari Soroaren jaialdi eta guzti

Aurten ere Aratusteek ez dute hutsik egingo Iturbide egoitzan. Otsailaren 17an ospatuko dute eta egoiliarrak igelez mozorrotuko direla aurreratu dute antolatzaileek. Arratsalderako plana egin dute: 16:00etan hasiko da ospakizuna, txokolate-janarekin; gero, 17:00etan, Nagusilan elkarteko Jose Mari Soroak askotariko abestiak eta dantzak eskainiko ditu eta ondoren opariak banatuko dituzte. Bestalde, Aratusteak direla-eta otsailaren 17an Musakolako kiroldegia 19:00etan itxiko dutela iragarri du Udaleko Kirol Zerbitzuak.



JOKIN BEREZIARTUA

## Hasi dira San Josepeko lanak

San Josepe auzoa berriro urbanizatzeko lanak direla-eta San Andres kalea itxita dago. Izan ere, bertan zeuden zuhaitzak mozten ibili dira azken egunotan San Josepe eta San Andres kaleen artean eustorma bat jartzeko. Auzoaren irisgarritasuna hobetzea helburu duten lanek bi hilabete eta erdi iraungo dute; aurrekontua 362.000 euro da.



Martitzenean bateratze saioa egin zuten, Kulturaten, prozesuan parte hartu duten eragile gehienekin. | JOKIN BEREZIARTUA

# Gogoetaren eta ekarpenen ostean, abiatu da Arrasatek Hezi ekimena

Lehen faseko ondorioak bateratzeko saio jendetsua egin zuten martitzenean Kulturaten; Txatxilipurdik, Bagarak eta Udalak sustatutako proiektua da

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Txatxilipurdik, Bagarak eta Udalak elkarlanean landutako proiektua da Arrasatek Hezi, herria ikuspegi hezitzailetik hobetzea helburu duena. Arrasate ikuspegi hezitzailetik hobetzea hezkuntzako eragileei bakarrik ez dagokiela sinistuta, 2014ko urrian abiatu zuten proiektua. Sei interes talde definitu zituzten orduan eta horiekin bilera irekiak egin dira: hezkuntza formala, hezkuntza ez-formala, eragile sozialak, adituak zein arituak, haur, nerabe eta gazteak, herritarrak eta Udaleko sailak.

### Pozik orain arteko bidearekin
Gogoetarako fase hori martitzen iluntzean amaitu zuten, Kulturaten egindako bateratze saio jendetsuan; orain arte egindako bidean izandako parte-hartzearekin eta jasotako ekarpenekin pozik daude sustatzaileak: "Parte-hartzearen aldetik oso pozik gaude. Askotariko eragileek hartu dute parte; hezkuntza arloko guztiek eta, neurri txikiagoan bada ere, baita eragile sozialek ere. Era berean, aipatzekoak dira herritarren aldetik jasotako ekarpenak, 130 galdetegi inguru jaso ditugu-eta. Parte-hartze hori eskertzekoa da", adierazi du Txatxilipurdiko Amaia Etxabek. Martitzeneko bateratze saioan hiru ildo nagusiren gainean jardun zuten; haur eta gazteen aisialdia, kulturartekotasuna eta hiri antolamendua.

> **ESANAK**
>
> **"Sekulako lana egin da; Udaleko sail guztiek egiten dute bat proiektuarekin"**
>
> AMAIA LARRAÑAGA | UDALA
>
> **"Herritarren aldetik 130 bat galdetegi jaso ditugu; hori eskertzekoa da"**
>
> AMAIA ETXABE | TXATXILIPURDI

### Udalaren "babes osoa"
Epe luzerako proiektua da Arrasatek Hezi, "iraunkorra" izateko asmoa du eta herriko ezaugarriak kontuan hartu gura ditu: "Gaurko [martitzeneko] saioaren ostean abiatzen da gure ekimena", esan zuten. Bide horretan Udalaren "babes osoa" izango dute. "Bi helburu nagusi markatu genituen: ikuspegi hezitzailetik bide berriak jorratzea eta egungo errealitatearen diagnostikoa egitea. Orain arte sekulako lana egin da eta aurrerantzean plangintza findu beharko dugu, epe luzerako proiektua delako. Udalak proiektuaren aldeko apustu irmoa egiten du; ez bakarrik Hezkuntza Sailak, baizik eta Udaleko sail guztiek", dio Hezkuntza zinegotzi Amaia Larrañagak.

Ekarpenak errealitate bihur daitezen ekintza plana diseinatu, antolaketa eredua landu, lantaldeak egin eta, azkenik, ekintza plana martxan jarriko dute. Beste bi saio egingo dituzte, martxoaren 10ean eta apirilaren 21ean.

*Nire bezero oñatiarrei:*
*Eskerrik asko urte hauetan guztietan zuen azala zaintzeko nigan izan duzuen konfiantzarengatik*

*Kontsulta ARRASATEra eraman dugu.*
*Betiko moduan, zuen zerbitzura izango gaituzue.*

**HELBIDE BERRIA:**
**ZUATZU klinika** (egungo EDERSALUD klinika)
**Nafarroa etorbidea 4, behea** (anbulatorioko biribilgunean)
**ARRASATE**
**Tel.: 943 79 20 18 // 620 12 48 43**

*Oñatiar guztiei eskerrik asko.*
*Kontxi Tamayo. Dermatologoa.*



**Ordutegia eta zerbitzuen eskaintza zabaldu ditugu, dermatologiarako eta azalaren estetikarako eskuratu dugun teknologia berriari esker.**

- **DERMATOLOGIA KLINIKOA:** psoriasia, aknea, ekzemak, ileko eta azazkaletako gaixotasunak
- **AZALEKO MINBIZIAREN DIAGNOSTIKO GOIZTIARRA,** lunarren (nevus) kontrola dermatoskopia digitalaren bidez, Fotofinderra
- **LASER UNITATEA:** eguzkiak eta adinak eragindako azalaren orbanak eta gorriuneak ezabatzea, laser depilazioa
- **ESTETIKA DERMATOLOGIKOA:** botoxa, azido hialuronikoarekin azal betetzeak...
- **KIRURGIA DERMATOLOGIKOA:** kirurgia anestesia lokalarekin, tumore on eta txarrak kentzea

**RPS: Tramitatzen ari da.**




# Jantzi mozorroak eta atera karrozak, Inauteriak dira!

Jaia gaur hasiko da, kontzertuarekin, eta martitzenean sardina erreko dute

**MIRARI ALTUBE** | ARRASATE

Badatoz Inauteriak: mozorroa, jaia eta gehiegikeria. Ohiko egitaraua gertatu du Udalak, Inauterietako Komisioak lagun eginda, eta 100 lagunek parte hartuko duten Arrasate Musikalen kontzertuarekin hasiko dituzte ekitaldiok gaur.

Egun handia, baina, bihar da. Biteri plazan egingo duten pregoiak atea zabalduko dio jaiari, eta orduan ekingo diote desfileari. Eta mozorroak erakutsi ostean, sariak banatuko dituzte eta ondoren bazkaltzeko elkartuko dira. Komisioko kideek herriko tabernetan bazkaltzera animatu dituzte arrasatearrak. Arratsaldean jarraituko du jaiak, txarangak girotuta lehenengo eta Joselu Anaiak taldearen doinuekin gero.



Pailazo kuadrilla euritik babestu guran, iazko Inauterietan. | IMANOL SORIANO

Mozorroak, baina, ezin gorde zapatuan, martitzenean jarraipena izango du-eta jaiak, desfile eta guzti. Umeek *Magiklown* izango dute Amaia antzokian, magia eta umorea batzen dituen ikuskizuna. Eta, ohitura den legez, sardinaren hiletarekin –segizioa Zerrajeratik irtengo da, 20:30ean– agurtuko dituzte Inauteriak.

## INAUTERIETAKO EGITARAUA

**EGUBAKOITZA**

**18:30** Arrasate Musikalen kontzertua Amaia antzokian.

**ZAPATUA**

**12:00** Pregoia, Biteri plazan.

**12:15** Desfilea, txarangarekin.

**13:30** Mozorro lehiaketaren sari banaketa Herriko Plazan.

**18:00** Txaranga kalean.

**19:30** Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin plazan.

**22:30** Dantzaldiaren jarraipena.

**DOMEKA**

**19:30** Glu Glu taldearen *De cuerpo presente* antzezlana, Amaia antzokian.

**MARTITZENA**

**17:00** Desfilea, Herriko Plazan.

**17:00** *Magiklown* ikuskizuna Amaia antzokian.

**17:30** Samasiku txarangarekin animazioa kaleetan.

**18:30** Kalejira erraldoien eta kilikien konpartsarekin.

**19:30** Dantzaldia Lisker taldearekin Herriko Plazan.

**21:00** Sardinaren hileta plazan.

**22:30** Dantzaldiaren jarraipena.

# Xabier Vallina: "EH Bildun, herritarrik gabe ez dago proiekturik"

Herritarren ekarpenekin osatuko du EH Bilduk aurtengo udal hauteskundeetarako programa

**JULEN IRIONDO** | ARRASATE

Dozena bat lantaldetan banatuta –kirola, hezkuntza, kultura...–, 70 lagun inguru lanean ibili ziren zapatuan. Izan ere, EH Bilduk hauteskundeetarako programa lantzeko bigarren saio irekia egin zuen Kulturaten.



Zapatuan Kulturaten egin zuten saio irekia. | JULEN IRIONDO

Han batu zirenek aukera izan zuten aurrez landutako proposamenak ezagutu, eta alorrez alor kontrastatzeko. Dinamikan "zeharkakotasuna bermatzea" izan da helburua, EH Bilduko Xabier Vallinaren esanetan.

Vallinak, gainera, argi du programa berria sortzeko metodologia egokia hautatu dutela. "EH Bildu herritarrok osatzen dugu; herritarrik gabe, ez dago proiekturik", dio. Prozesuan parte hartu duen Eider Zumaldek ere hori uste du: "Herritarrok gara egunerokotasunean arazoak eta beharrak ikusten ditugunak"; eta gaineratu du prozesua "abegarria" izan dela.

Agintaldiaren "balantze ona" egin dute orain arteko parte-hartze saioetan, "hobetzeko gauza asko" daudela dioten arren.

### Ekarpen gehiago

Orain, otsail osoan, Irati eta Amaiur tabernetan jarritako kutxatxoetan batu nahi dituzte proposamen gehiago, edo *arrasate@ehbildu.net* helbidean, eta asmoa da martxoan egitea bai programa eta bai zerrenda onartuko dituen saioa.




Jonathan Perez ahalegin betean, asteburuko jauzietako baten. | FELIX SANTXEZ

# Perez: "Pozik nago markarekin; aspaldiko garaiak nabil gogoratzen"

Euskadiko proban urrezko domina lortu du berriro atleta arrasatearrak, 4,90 metroko saltoarekin

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Jonathan Perez pertika jauzilari arrasatearra sasoi betean dago oraindik, Euskadiko onena izaten jarraitzen du 33 urterekin. Joan den aste bukaeran Donostiako belodromoan jokatutako Euskadiko txapelketa 4,90 metroko saltoarekin irabazi zuen. Hotza "erabateko protagonista" izan zen: "Pozik nago markarekin, baina baita penarekin ere, hobe nezakeelako. Hotzak erabat baldintzatu zuen proba; berogailua apurtuta zegoenez, kanpoan baino hotz handiagoa egiten zuen belodromoan". Izan ere, azken saltoan iskiotibialetan tiroi bat igarri, eta 4,90 markarekin geratzea erabaki zuen: "Hotzagatik izan zen. Gogoa nuen pista estalian bost metroko saltoa egiteko, baina baldintza haietan ezinezkoa zen. Bestalde, oso denboraldi erregularra egiten ari naiz eta pozik nago. Zaintzen nabil, ondo entrenatzen, eta aspaldiko garaiak gogoratzen".

**Ruiz de Azua eta Axpe**

Naroa Agirre Belgikan lehiatu zela aprobetxatu zuen Malen Ruiz de Azuak urrezko domina eramateko, 3,75 metroko jauziarekin: "Gripearekin egon ostean hartu zuen parte Euskadikoan. Marka ez da oso ona, saiatu zen 3,95 metroko langa gainditzen, baina ez zegoen %100ean oraindik", dio Perezek. Maialen Axpek, berriz, Zaragozako mitin baten eman zuen asteburua; 3,90 metroko saltoa egin zuen.

## ZALDIBAR

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Betrayer- Jibaros | 3-5 |
| Drink Team - Sonografos | 3-12 |
| Dribling 2.0 - Ostantz | 6-3 |
| Kantzerlauten - Lasagabaster | 2-11 |
| Abokajarro- Haizea's Weah | 8-3 |
| Abokajarro- Arrasate Taberna | 5-0 |
| Kantzerlauten-Ostantz | 2-6 |
| Iluntz- Haizea's Weah | 0-1 |

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Dribling 2.0 | 28 | 11 |
| 2. | Aldatz | 24 | 10 |
| 3. | Jibaros F.C. | 24 | 11 |
| 4. | Sonografos | 21 | 11 |
| 5. | Abokajarro | 21 | 11 |
| 6. | Lasagabaster | 19 | 11 |
| 7. | Alytis FK 2.0 | 17 | 10 |
| 8. | Ostantz | 16 | 11 |
| 9. | Haizea's Weah | 14 | 11 |
| 10. | Betrayer | 14 | 11 |
| 11. | Kantzerlauten | 8 | 11 |
| 12. | Drink Team | 5 | 11 |
| 13. | Arrasate Taberna | 4 | 11 |
| 14. | Iluntz | 0 | 11 |

**ARATUSTEETAKO ETENA**

Aste bukaera honetan ez da jardunaldirik egongo Aratusteak direla-eta.



*De cuerpo presente* antzezlana. | GLU GLU

## Glu Glu taldea barrea eragitera dator etzi Amaiara, 'De cuerpo presente' obrarekin

**J.B.** | ARRASATE

Glu Glu antzerki taldearen azken obra domeka honetan, hilak 15, helduko da Amaiara (19:30): *De cuerpo presente. Heriotzazko komedia* deitu diote obrari, eta barrea eragiten ondo dakiten aktoreak igoko dira agertokira: Gorka Aginagalde, Loli Astoreka, Galder Perez, Mari Cruz Melgosa eta Ylenia Baglietto. Perezek eta Aginagaldek sortutako obra da eta Perez ibili da zuzendari lanetan. Diru gosearen eta eskuzabaltasunaren "alderdi sakonena" lantzen du antzezlanak, gaubeila baten kokatua, eta, jakina, umore klabean.

Hildakoa, zikoitza eta xuhurra, bizirik dago. Gainerakoek ez dute ikusten eta entzuten, baina bertan dago, haren arimak ez du atseden hartzen: "Zer gertatuko litzateke, hilkutxan zaudela, zure inguruan gertatzen den guztia entzungo eta ikusiko bazenu?". Herentzia kontuak azaleratuko dira agertokian, adibidez.

**Sarrerak salgai hamar eurotan**

Sarrera hamar euro ordaindu beharko da. Udalaren webgunean salgai daude eta leihatilan bertan ere erosi ahal izango dira.

## Arrasate Musikalen Aratusteetako saioa gaur Amaian (18:30)

Urteroko ohiturari jarraituz, Arrasate Musikaleko ikasleek Aratusteetako kontzertua eskainiko dute gaur Amaian (18:30). 100 musikari inguru igoko dira agertokira, guztiak mozorrotuta, eta denetariko instrumentuak joko dituzte. Adinen eta instrumentuen araberako taldeetan joko dute. Sarrera doakoa izango da.

## Zahar-Berrikoen Mintzasagardo Eguna otsailaren 27an

Zahar-Berri mintzalagun taldekoek Aramaioko Iturrieta sagardotegira egingo dute irteera hilaren 27an. Arrasatekoez gain, Bergarako, Eskoriatzako eta Aretxabaletako mintzalagunak ere batuko dira. Izena emateko azken eguna otsailaren 17a da; txartelak AEDn eta euskaltegietan daude salgai, 31 eurotan.



AKE

## Frontenis txapelketako finalak

Urtarrilaren 24an eta 31n eta otsailaren 8an —finalak— AKE elkarteak antolatutako III. Neguko AKE Frontenis Txapelketa jokatu zen Musakolako kiroldegian. David Marcos eta Ander Antsoategi izan ziren irabazleak, Aimar Cebrino eta Julen Lozano bikotea 30-21 menperatuta: " Hamasei bikotek hartu dute parte eta antolatzaileok oso pozik gaude", esan du AKEko kide Eneko Fernandezek.

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Lore
LURRINDEGIA
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

arbolapeta
arrasate
beinke

# Eskolako Bidea proiektua martxan, mugikortasun iraunkorraren alde

Oñatiko Udaleko Hezkuntza Sailak eta herriko hiru ikastetxeek hartzen dute parte, elkarlanean

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

Oñatiko Udaleko Hezkuntza Sailak eta herriko ikastetxeek elkarlanean, Eskolako Bidea proiektua jarri dute martxan. Proiektu horretan Oñatiko Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztiek hartuko dute parte: Urgain eskolak, Txantxiku ikastolak eta Elkar Hezi ikastetxeak, hain zuzen. Mugikortasun iraunkorraren aldeko proiektua da.



Umeak Txantxiku ikastolako autobus geltokian, Eskolabus proiektua martxan jarri zenean. | GOIENA

**Aste Santu ostean**

Eskolako Bidea partaidetza komunitarioko proiektua da, eta hezkuntza komunitatean mugitzeko edo joan-etorriak egiteko modu iraunkorragoak sustatzen ditu. Etxetik eskolara eta eskolatik etxera egiten diren joan-etorriak aztertuz, joan-etorri horiek umeek oinez, patinetez edo bizikletaz eta modu autonomoan egin ditzatela bultzatu gura dute. Horretarako, berebiziko garrantzia izango du ibilbideetan bide-segurtasun baldintza egokiak izatea.

Nerea Zubia Hezkuntza zinegotziak azaldu duen moduan, ikastetxe bakoitzak pentsatuko du eskolarako bidea nola egoki dezakeen, ikastetxearen gunearen arabera, ikasle kopuruaren arabera eta beste hainbat faktore kontuan hartuta. "Asmoa da hemendik eta Aste Santuko oporrak heldu bitartean lanketa hori egitea. Hau da, ikastetxe bakoitzak bere modua bilatzea. Urgain-Errekaldek, esaterako, eginda dauka eta praktikan ere jarri izan du. Aste Santuko oporren ostean jarriko du martxan ikastetxe bakoitzak bere esperientzia pilotua, eta bi hilabetez edo ikasturtea bukatu arte mantenduko da. Eskolabus egitasmoarekin egin genuen moduan egingo dugu orain ere. Proba horren ondoren balorazioa egingo da eta aztertuko da zer hobe daitekeen datorren ikasturtean hasieratik martxan jartzeko. Prozesu bateratua izango da", adierazi du Nerea Zubiak.

**Esperientzia pilotua**

Proiektua martxan jarri aurretik gaur egun ikasleek eskolarako bidea nola egiten duten jakiteko, galdeketa bat egin da Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleen artean. Datu horien arabera, adin tarte horretako ikasleen artean mugikortasun aktiboa da nagusi (joan-etorrien %58tik gora), hau da, joan-etorri gehienak oinez, patinetez edo bizikletaz egiten dira. Datuei begiratuta, ikasleen %45 oinez doaz eskolara, %31 autoz, %11 patinetez, %10 autobusez eta %1 bizikletaz.

Esperientzia pilotua prestatu aurretik egin behako duten beste gauza bat ikastetxeetara joateko ibilbide nagusien bide segurtasun azterketa tekniko bat da. Aldi berean ikastetxe bakoitzean mugikortasunari buruzko diagnostiko komunitarioa osatu gura da, gurasoek, irakasleek eta ikasleek beraien ikuspuntutik egindako ekarpenekin. Ikuspuntu guzti hauek azterketa teknikoarekin kontrastatuko dira eta diagnostiko osatu bat lortuko da, arazoak eta konponbide aukerak atzemango dira eta ekintza proposamen batzuk azaleratuko dira.

Ikuspegi hezitzailetik haurren autonomiari buruz egingo den lanketa proiektuaren elementu nagusia izango dela diote proiektuan parte hartzen duten eragile guztiek.

## Oñatiko hiru aukera, Aldundiko gomendioetan

Txokolateixia, Aizkorri–Aratz eta Arrikrutz daude 'Jolastera? Museora!' egitasmoan

**O.E.** | OÑATI

Kultura Saretzen proiektuaren barruan, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako museoek sustatutako ekimena da *Jolastera? Museora!* Museoen kultura balioan jartzea da plangintza horren helburua, sarean egindako lana indartzeko eta ondarearen ezagutza sustatzeko.

Lehen edizio honetan 25 herritako 44 museok hartu dute parte; 47 ekintza antolatu dituzte, datozen sei asteetan egingo direnak, otsailaren 13tik martxoaren 22ra.

Aukeren artean daude Oñatiko hiru eskaintza: Txokolateixia, Aikorri-Aratz parke naturalaren interpretazio zentroa eta Arantzazu eta Gomiztegi arteko ibilbide irisgarria, eta Arrikrutz kobak eta Pottokaleku.

Familiendako da ekimen hori eta museo bakoitzak hainbat ekintza antolatu ditu familian egiteko. Aukera bakoitzak egun eta ordu jakinak ditu eta erreserbak egin behar dira. Informazio gehiago helbide honetan: *www.gipuzkoaberri.eus*.




Txokolateixan ikusgai dauden produktuetako batzuk | GOIENA



Espaloia mailaz jaisteko lanak egiten, martitzenean. | O.E.

## Bidebarrieta kalea irisgarriagoa izateko lanak aurrera doaz

**O.E.** | OÑATI

Bidebarrieta kalea irisgarriagoa izateko lanak duela hiru aste hasi zituzten, eta joan den astean egindako eguraldi txarrak –elurra tarteko– pixka bat atzeratu dituen arren, martxa onean doazela ziurtatu du Egaralur enpresak, lanen arduradunak.

Hainbat lan egingo dituzte irisgarritasuna hobetzeko. Batetik, Bellotza denda parean hasi eta kiroldegi ondoko biribilgunearen artean dauden zebra-bideak egokitu egingo dituzte; Zurrust tabernaren eta D'Or dendaren parekoak, gainera, altxatu egingo dituzte, ibilgailuen abiadura moteltzeko helburuarekin. Horien maila igotzeko lanak, baina, izango dira egingo dituzten azkenak.

Bidebarrieta kalean dauden oinezkoendako pasabideak ere egokituko dituzte. Kasu horretan, espaloiaren maila jaitsi egingo dute, errepidearen mailara, mugikortasun arazoak dituztenek koskarik ez izateko. Pasabide horien inguruko baldosak ere aldatuko dituzte, ikusmen arazoak dituztenek zebra-bideak non dauden errazago jakiteko. Bestalde, Errementari plazako espaloian zehar, kioskoa dagoen aldean, pasabide bat egingo dute ikusmen arazoak dituztenendako.

### Zea Mays taldea berriz noiz ekarri ari da aztertzen Udala

Zea Mays taldea berriz gaztelekura ekartzen saiatzen ari da Oñatiko Udala, eta, hain zuzen, data bat zehazteko harremanetan dago taldearekin. Otsailaren 6an zen jotzekoa Bilboko taldea gaztelekuan, baina kontzertua bertan behera gelditu zen eguraldi txarragatik.

Bestalde, duela astebete egitekoa zen kontzerturako sarrerak aldez aurretik erosi dituztenei erosi zuten lekuan bertan itzuliko diete dirua.

### Eteon musika taldeen lokalak egokitzeko lanak esleituko dituzte

Eltzia proiektuaren barruan, Eteon egongo diren musika taldeen lokalak egokitzeko lanak kontratatzeko deialdia argitaratu dute Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Eta, hain zuzen ere, lan horiek esleitzeko prozesua martxan dago. Interesa duten enpresek martxoaren 3a aurretik egin behar dituzte proposamenak udal bulegoetan. Lanak lau hilabeteko epean egin beharko dituzte eta aurrekontua 379.000 euro da, BEZa kontuan hartu gabe.

# Bisoi europarra, ingurumen jardunaldien ardatzetako bat

## Eguaztenean hasiko dira, Natur Eskolaren eskutik

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Bi atal nagusitan banatu ditu Natur Eskolak aurtengo ingurumen jardunaldiak: mehatxatutako habitatak batetik, eta desagertzeko arriskuan dagoen bisoi europarra, bestetik. "Bisoi amerikarraren ugaltzeak ekarri du europarra gutxitzea. Oñatin ere ikusi ditugu bisoi amerikarrak, herrian topatu dute euren tokia, egin dituzte umeak, eta horregatik pentsatu dugu bisoi europarraren egoera zein den azaltzea jardunaldi hauetan", dio Natur Eskolako Imanol Biainek.

Biainen esanetan, Europa osoan desagertu da bisoi europarra eta Euskal Herrian eta beste toki gutxi batzuetan, bakarrik, ikus daiteke oraindik. Esaterako, Nafarroan, Ega ibaiaren ertzetan. "Bisoi amerikarrak larrugintzarako hasi ziren hezten Europan. Etxaldetatik ihes egiten zuten askok eta asko ugaldu dira. Oñatira ere Bizkaitik eta Arabatik sartu dira eta gurean bizi dira duela bi urtetik hona. Politak dira, bai, baina jendeak ulertu behar du bisoi amerikarra ugaltzeak esan gura duela europarra erabat desagertuko dela. Amerikarrak tamainaz handiagoak eta oldarkorragoak dira eta eraso egiten diete europarrei, hiltzeraino".

**Hamabostaldia**

Eguaztenean zabalduko dute bisoi europarrari buruzko erakusketa kultura etxean, ingurumen jardunaldiak hasten diren egun berean. Horrez gain, sei hitzaldi, zineklubean emango dituzten bi filma, zuhaitz azoka eta zuhaitzak landatzeko bi irteera ere antolatu ditu Natur Eskolak.



Bisoi europarrari ateratako argazkia. | NAVARRA.ES

### JARDUNALDIEN EGITARAUA

**HITZALDIAK**

**Otsailak 18:** *Gure ingurumen mehatxatua; zeintzuk dira gure panda hartzak?.*

**Otsailak 24:** *Bisoi europarra galzorian; Gipuzkoako LIFE proiektua.*

**Otsailak 25:** *Giza historia ikuspegi energetikotik.*

**Otsailak 27:** *Biomímesis. La única vía para la sostenibilidad.*

**Martxoak 3:** *Aingira espezie mehatxatua eta angulak arrandegian; nola liteke?*

**Martxoak 4:** *Iraunkortasunerako trantsizioa.*

**IRTEERAK**

**Martxoak 7:** Zuhaitz azoka.

**Martxoak 8:** Zuhaitz eguna.

**Martxoak 15:** Landaketa.

**FILMAK, ZINEKLUBEAN**

**Otsailak 19:** *Wildmed; el último bosque mediterráneo.*

**Otsailak 26:** *La sal de la Tierra.*

**ERAKUSKETA**

**Otsailak 18 - Martxoak1:** *Ingurumen mehatxatua; gure bisoia galtzorian.* Kultura etxeko erakusketa gelan, egunero, 18:00etatik 20:00etara.

**OHARRA**

Hitzaldiak 19:00etan dira kultura etxean eta filma emanaldiak 20:00etan zinema aretoan.

NIRE USTEZ



GORETTI MADINA

## Espetxeratze berraztergarriak

Egun hauetan kartzela zigor iraunkor berraztergarriak eragin duen eztabaida politiko eta juridikoaren behatzaile bihurtu gara. Kode Penalaren erreformaren zergatiak eta arrazoiak, politikoak izan daitezkeen arren, berori ikuskatzeak ez nau gehien erakartzen, bai ostera, hausnarketa juridiko eta moralak.

Espetxeratze iraunkor berraztergarria, batzuek diote, Konstituzioarekin bat datorrela eta beste batzuek berriz, bere funtsezko printzipioak zapaltzen dituela.

Azken honen eztabaida oso interesgarria dela aitortzen dut, baina dena den, teknikoki konstituzionala balitz ere, betetzen ahal ditu maila honetako arau batek, bete beharreko baldintza juridiko - moralak?

Kartzela zigorra, iraunkorra bada, jasangaitza eta krudela da, birgizarteratzearen oinarrien aurkakoa delako.

Berriz, berraztergarria bada, zehaztugabea da; segurtasun juridiko gabeziaz erabaki behar ahal da pertsonen birgizarteratzea?

Giza duintasuna eta segurtasun juridikoa eztabaidan jartzen duen erreforma, konstituzionala balitz ere, nire iritzi apalean, ez da ona izango, ez bait gaitu delitu gupidagabeez gehiago babestuko, ez eta zibilizatzaileagoak bihurtuko.

**"Kartzela zigorra iraunkorra bada, jasangaitza eta krudela da"**

# Ehundu dute Oñatiko lehen oihal zatia, erabakitzeko eskubidearen alde

## Oñatiko Gure Esku Dago taldeak lokala zabalduko du Kale Barria 45 zenbakian; atxikimenduak egiteko eta oihalak lortzeko aukera egongo da han

A. TXINTXURRETA / O. ELORTZA | OÑATI

Erabakia Ehuntzen izeneko proiektua aurkeztu du astean Oñatiko Gure Esku Dago taldeak. Ekimen horrek herriz herri oihalak erabiliko ditu erabakitzeko eskubidearen aldeko atxikimenduak batzeko. Oihal unitate bakoitzean 20 lagun atxikituko dira –euro bat jarri eta saretze txartela beteta–, eta unitate horiek elkarri josiko dizkiote gero, apirilaren 25ean Oñatin –beste herrietan bezala–, eta ekainaren 20an hiriburuetan, hautestontzi erraldoia sortuko da. Bada Oñatin, ehundu dute, dagoeneko, lehen oihal zatia.

Oihal unitate bakoitza 20 lagunek irudikatuko dute eta horiek lortzea tutoreen lana izango da. Aurtengo ekimena "aurrera pausu bat gehiago" dela azaldu zuen Oñatiko Gure Esku Dago ekimeneko Lierni Olmedok asteleheneko aurkezpenean, eta "iazko arrakasta edo handiagoa" edukitzea espero dutela adierazi zuen.



Oñatiko GED taldeak astelehenean gaztelekuan egin zuen aurkezpena. | A. T.

Bestalde, astelehenean *Jostunak* dokumentala eskainiko dute Santa Anan, 19:00etan. Iazko ekintzen laburpena jasoko da hor.

# Txorimaloak eta erraldoiak berritu egin dituzte

O.E. | OÑATI

Eskuan edo buruan kolpeak zituzten erraldoiak ez ezik, erabileraren ondorioz kaltetuta zeuden txorimaloen karetak ere berritu egin dituzte, esaterako, Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoenak. Zituzten kolpeak konpondu eta berriro margotu dituzte erraldoi eta txorimaloak. Apurtuta edo falta zituzten elementuak ere jarri zaizkie. Arropak zein egoeratan zeuden ere hartu dute kontutan eta zulatuta zeudenak josi egin dituzte. Irungo Garate anaien tailerrean berritu dituzte eta Aratusteetako martitzenean aterako dituzte kalera, eta kalez kale ibiliko dira.

1992an egin zen konpartsako elementuen lehen berritze lan orokorra. Urte horretan erraldoi taldea osatu zen, baserritarrak irudikatzen dituzten bi erraldoiak ekarriz.

# Sierrak eta Anduagak Gipuzkoako Challenge saria jaso dute

Anton Sierra eta Gorka Anduaga zikloturista oñatiarrak Gipuzkoako txirrindularitza federazioak banatu dituen Challenge sariak jaso dituzte. 2014an Gipuzkoan egin ziren zikloturista martxetan parte hartu zutenen errekonozimendu sariak dira Challenge sariak. Iaz 10 zikloturista martxa egin ziren Gipuzkoan eta gutxienez zazpitan parte hartu zuten txirrindulariak hartu zituen aintzat Gipuzkoako txirrindularitza federazioak. Sierrak eta Anduagak, zazpi baino gehiago egin zituzten.



Oñatiko inauterietako lantaldeak antolatutako kalejira, 2013an . | GOIENA

# Atera mozorroak armairutik eta gozatu martitzenera arteko ekitaldiekin

Gaur, egubakoitza, Txalo taldeak *Erdibana* lana eskainiko du, 22:30ean

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Aratuste giroan bete-betean sartuta gaude. Atzo, Eguen Gizen, hainbat ekitaldi izan zituzten Pake Lekun eta Lagun Lekun. Garai honetan ohikoak diren pellak eta torradak jan zituzten.

Gaur, aldiz, ikastetxeetan ospatuko dituzte Aratusteak. Txantxiku Ikastolan kalejira egingo dute 15:00etatik 16:30era. Urgain-Errekalden *Tolosako inauteriak* jaialdia egingo dute 15:00etan eskolako jolaslekuan. Eguraldi txarrarekin bi ekitaldiak kiroldegian egingo dituzte. Elkar Hezin martitzenean ospatuko dituzte Aratusteak.

**'Erdibana' antzezlana**

Gaur, 22:30ean, Txalo antzerki taldeak *Erdibana* antzezlana eskainiko du Santa Ana aretoan. Sarrerak 10 euroren truke daude salgai *bibe.me* atarian. Antzezlanak enbolia eta gripearekin dagoen ama baten eta haren bi semeen istorioak kontatzen ditu.

**230 lagun kalea girotzen**

Bihar, zapatua, dantzan ibiliko dira herritar mordoa. 11:30ean izango dute irteera Olakua auzoan; arratsaldean, 17:30ean hasiko dute kalejira; eta, 20:00etan, plazan egingo dute amaiera ekitaldia. Dantzariak, musikariak eta pertsonaiak kontuan hartuta, 230 lagun ibiliko dira kalejiran. Domekan, Oñatz dantza taldeak Luzaideko dantzen kalejira egingo du, 18:30ean hasita. Musika kontuak ere egongo dira: Pako tabernan, 19:30ean, Joxerramones taldea.

**Aratuste Martitzena**

Martitzenean, 17:00etan, *Tururututu pailazo bihurtu* ikuskizuna Zubikoa Kiroldegian. 18:00etan, aldiz, txokolatada solidarioa egingo dute plazan misio taldeak antolatuta. 18:30ean, txikienen gozamenerako, txorimaloak egongo dira, eta jarraian disko festa plazan.

# Sareko harremanen gaineko hausnarketa

Gaztelekuko Sexologia Zerbitzuan egingo dugu gaur, egubakoitza, 17:30ean hasita

KOMUNITATEA GOIENA | DESIRAK
SEXU AHOLKULARITZA | OÑATI

Sare sozialek gazteen arteko harremanetan ze eragin duten ikusteko tailerra egingo dugu gaur, egubakoitza, Oñatiko gaztelekuan dagoen Sexologia Zerbitzuan. Baina gai hau eurekin batera ikusi eta aztertu gura dugu eta modu parte-hartzaile baten bidez egin gura dugu. Hau da, gertatzen diren egoera jakinetan eurek zer egiten duten edo euren iritzia zein den jakin gura dugu eta elkarrekin hitz eginez entzun gura ditugu iritzi horiek.

Harreman hauei buruzko irakurketa kritikoa egin gura dugu, betiere, harreman positiboen alde. Adibidez, ikusiko dugu zer-nolako mezuak jasotzen dituzten eta horiei nola buelta eman, beti harreman positiboen alde. Txat orrialdeak eta Twitter ere aztertuko ditugu, esate baterako, eta hausnarketa egingo dugu. Baina beti, esan bezala, euren erabilera positiboa izan dadin.

**Bideoak ere bai**

Argazkiak igotzeak zer esan gura duen, edertasun irudiek zein mezu duten, gizonezkoek nola ulertzen dituzten mezuak eta emakumezkoek nola... Gai askori buruz berba egingo dugu, baina horren adibide grafikoak ere izango ditugu. Esaterako, bideoak eramango ditugu.

Esan bezala, Sexusarean izeneko tailer honen helburua da gazteek sare sozialen bitartez sortzen dituzten harreman moten hausnarketa kritikoa bultzatzea, modu parte-hartzaile baten bitartez. 12 eta 18 urte bitarteko gaztetxoendako izango da, 17:30ean.



Hiru gazte mugikor bana eskuetan dituztela. | WWW.STOPVIH.ORG



Arkada Social taldeko Brian de Inda eta Mikel Arriaran, zuzenean. | IMANOL SORIANO

# Rock, punk, oi!, country eta folk doinuak gaztetxean

Arkada Social, Knout Out, Bidelapurrak eta The Mockers taldeek joko dute aste bukaeran

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Kontzertuak egongo dira asteburu honetan Antixena gaztetxean, eta musika estiloak ere askotarikoak izango dira. Hala, gaur, egubakoitza, Arrasateko Arkada Social eta Madrilgo Knout Out taldeek joko dute, 22:00etan. Punk, rock eta oi! doinuak entzuteko aukera izango da, beraz.

Bihar, zapatua, bestalde, beste bi taldek joko dute: Durangoko The Mockers taldeak eta Bidelapurrak izeneko bikoteak. Ander –gitarra akustikoa, bonboa– eta Ekaitz –banjoa, harmonika, pandereta– dira talde horretako kideak, eta, hainbat proiektutan ibili badira ere, country eta folk doinuekin etorriko dira Oñatira. Biharko kontzertua ere 22:00etan hasiko da.

UR kristaldegia

BERRIZ ERE ZUEKIN!

Eska ezazu aurrekontua kompromiso gabe.

Kristaleria orokorrean, ispiluak, beirateak, alakoatuak, isolatzailea, plastikoak

Martoko 1-3 behea -BERGARA-Tel.: 688 60 34 02

# Gure Esku Dagok 'Erabakia ehuntzen' ekimena aurkeztu du

Oihalak erabiliko dituzte erabakitzeko eskubidearen aldeko atxikimenduak batzeko

**IMANOL GALLEGO** | BERGARA



Zapatuan osoko bilkuren aretoan egin zuten batzarra. | BERGARAKO GURE ESKU DAGO

Zapatuan aurkeztu zuten oihal zatiak elkarri josiz hautestontzi erraldoia egitea helburu duen ekimena, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Apirilaren 25ean izango da herriz herriko Ehuntze Eguna, eta ekainaren 20an, herrialdeetako hiriburuetan ekitaldi nagusia: Joste Eguna. Herriko aurkezpenean, tutore izateko euren burua aurkeztu duten lau lagunek ere hartu zuten parte; ingurukoen artean atxikimenduak lortzeko ardura izango dute, hain zuzen ere.

Pozik agertu ziren Bergarako Gure Esku Dago taldeko kideak aurkezpenak izan zuen erantzunarekin. Zapatuan, Beart taldeko margolariek pintatuko bi oihal erakutsi zituzten. Oihal bakoitza hogei herritarren artean banatuko dute. Ekintza horren bidez, datozen hilabeteetan egin nahi duten ekimena irudikatu zuten.

**'Erabakia ehuntzen'**

Ekimen horrek oihalak erabiliko ditu erabakitzeko eskubidearen aldeko atxikimenduak batzeko. Oihal zati bakoitzak hogei herritarren atxikimenduak irudikatu ditu, eta zati horiek elkarri josiko dizkiote gero, apirilaren 25ean Bergaran –beste herrietan bezala–, eta ekainaren 20an hiriburuetan, hautestontzi erraldoia sortuta.

Bergararrek herrian bertan izango dute euren oihal zatia eskuratzeko aukera; eguen arratsalde-iluntzeetan eta zapatu goiz-eguerdietan jarriko dute mahaia Domingo Irala kalean. Internetez ere eman ahal izango da atxikimendua, eta, horrez gain, tutorearen figura ere sortu dute ekimen horretarako. Tutoreen ardura izango da euren ingurukoen atxikimenduak jasotzea; futbol taldeko kide bat bada, taldekideena jasotzea, adibidez.

**'Jostunak' dokumentala**

*Jostunak; herritarren borondateak jositako istorio bat* dokumentala eskaini zuten martitzenean. Zabalotegi aretora joan zirenek Durango eta Iruñea arteko ekaineko giza katearen eta Gure Esku Dagoren sustraitze prozesua ikusteko aukera izan zuten. Dokumentalak pertsona askoren gogoetak ere jasotzen ditu.



IMANOL SORIANO

## 'Mesias', Orfeoiaren ahotsetan

Händel konpositorearen lanak ez dira jotzeko errazak, eta, abesbatza batendako, konplexua bezain ezaguna den *Mesias* erronka polita da. Aitor Biainen zuzendaritzapean, eta kontzerturako sortu zen ganbera orkestraren laguntzarekin, Bergarako Orfeoiak ez zuen hutsik egin, eta emanaldi borobila egin zuen joan den zapatuan. Kontzertuak, gainera, helburu solidarioa izan zuen, sarreren salmentatik lortutako irabaziak San Pedro parrokiako Stoltz-Freres organo baliotsua konpontzen laguntzeko izango dira-eta.

## Paco Etxeberriaren berbaldia gaur osoko bilkuren aretoan

Torturaren Aurkako Egunaren harira, eta herriko Lokarri Foroaren eskutik, Paco Etxeberria EHUko irakasle, auzitegiko mediku eta antropologo ezagunak berbaldia egingo du gaur. 19:00etan, memoria historikoaren gainean berba egingo du Etxeberriak udaletxeko osoko bilkuren aretoan.



Paco Etxeberria. | GOIENA


20 urte baino gehiagoko esperientzia inplantologian
CLINICA DENTAL BERGARA
Bidekurutzeta 36 BERGARA • Tel.: 943 76 05 77
www.clinicadentalbergara.es
Kontsulta eta aurrekontua doan
Zure tratamendua finantzatzen dugu.
Espezialitate bakoitzerako mediku-talde kualifikatua dugu
ODONTOLOGIA
A. Pastor doktorea
U. Artetxe doktorea
I. Goikoetxea doktorea
ORTODONTZIA
Y. Otero doktorea
PERIODONTZIA
I. Goikoetxea doktorea
INPLANTOLOGIA
F. Juarros doktorea
U. Artetxe doktorea
ENDODONTZIA
G. Campos doktorea
DKV • MAPFRE • IMQ/ADESLAS • SANTA LUCIA • EROSKI
OCASO • PREVISORA BILBAINA • ORBITA • ACUNSA • AEGON
RPS: 207/12

# Badator mozorroen kolore dantza alaia

▸ Inauteri kontzerturako frontoia kabaret bihurtuko da

▸ Aratuste-martitzena herri batukadak girotuko du

**IMANOL GALLEGO** | BERGARA

Euskal Herriko herri askotan bezala, Bergaran ere Aratusteak gogoz ospatuko dituzte. Hausterre-eguna iritsi arte Inauterietako pertsonaiak kalera irtengo dira, jendea izutzeko edo espiritu txarrak erretzeko.

### Egubakoitz klasikoa

Mariaren Lagundiko eta Aranzadi Ikastolako gazteak, euren mozorroekin, kaleak girotzera eta egunari kolore jartzera irtengo dira gaur, 15:00etan.

Koloreak, baina, erritmoaren beharra du, eta hori Aratusteetako kontzertuak jarriko dio. Udal Pilotalekua kabaret bihurtuko da. Bandako eta orkestrako kideek aktoreen laguntza izango dute. Jendeari mozorrotuta joateko gonbita egin die Alfredo Gonzalez Chirlaque zuzendariak. "Publikoa girotu nahi dugu, horregatik joko ditugu *Fumando espero* eta halako abesti ezagunak", dio Gonzalez Chirlaquek. Oraindik sarrera gutxi batzuk gelditzen dira. Aldez aurretik kultura etxean saltzen ez badira, 21:30ean salgai jarriko dituzte pilotalekuko txarteldegian.

Astelehenean bete zen Simon Arrietaren mendeurren data zehatza, eta kontzertuan margolari ezagunak bere tokia izango du. Duela 46 urte Aratusteetako kontzerturako prestatzen ari zela gaizki sentitu, eta egun batzuetara hil zen; horregatik omendu-ko dute Arrieta gaur.

### Zapatua kalean

Mozorro bazkaria bertan behera geratu den arren, festak bere horretan jarraituko du. Etxeko txikiek 15:30ean eta 18:00etan Pirritx, Porrotx eta Marimototsen azken abenturarekin gogotik disfrutatuko dute. Azken orduan ibiliko diren horiek kultura etxean eros ditzakete azken sarrerak. Zapatuan bi saioetarako sarreraren bat gelditu gero, 14:30ean salgai jarriko dituzte frontoian.

18:30ean herriko erraldoi, kiliki eta buruhandiekin batera mozorro desfilearen unea izango da. Egunak gauari tokia uzten dion bitartean, 21:00etan DJ Makalak girotuko du festa.

22:30ean Emon taldea igoko da San Martin plazako oholtzara. Disko berria dute Emonekoek, *Sua*, eta sekulako musika festarekin gura dute aurkeztu jaiotearrian. Ez dira eurak bakarrik igoko oholtzara: lagun izango dituzte Esne Beltzako Xabi Solano, Selektah Kolektibokoak, DJ Makala, Aitzol Gandiaga eta Lurra taldeko Ane Gartzia. 23:30etik aurrera DJ Makala bueltatuko da plazako oholtzara.

Zapatua luzatu nahi duten gautxoriek kartzela zaharrean aukera bikaina izango dute: gauerditik aurrera, DJ Vizcainok girotuko du gaztetxea.

### Martitzen indartua

15:00etan San Martin Agirre eskolakoen desfilearekin hasiko da festa. Haien ostean, musika eskolako Gazte Bandak kalejira egingo du erdigunean. Ondoren (18:30), estreinakoz egingo den batukada herrikoiaren txanda iritsiko da. Gazte zein nagusiek Aratusteetako azken orduei erritmoa jarri eta gero, Amaia DJren txanda izango da. Hark erritmo dantzagarrienekin San Martin plaza alaituko du. Haren ostean, Aratusteek kapa grisa jantzi, eta garizumaren txanda iritsiko da.

## ARATUSTEETAKO EGITARAUA

**EGUBAKOITZA**

**15:00** Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastolen mozorro desfilea.

**22:30** Bergarako Bandaren eta Orkestra Sinfonikoaren Aratusteetako kontzertua.

**ZAPATUA**

**15:30** Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen *Txo, mikmak txikia* ikuskizuna.

**18:00** Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen *Txo, mikmak txikia* ikuskizuna.

**18:30** Erraldoi, kiliki eta buruhandien kalejira eta mozorro desfilea.

**21:00 - 22:00** DJ Makala San Martin plazan.

**22:30** Emon taldearen kontzertua San Martin plazan.

**23:30 - 24:30** DJ Makala San Martin plazan.

**00:00** DJ Vizcaino gaztetxean.

**MARTITZENA**

**15:00** San Martin Agirre Eskolaren mozorro desfilea.

**16:30** Musika eskolako Banda Gaztearen kalejira.

**18:30** Batukada herrikoia erdigunean.

**19:00** DJ jaialdia Amaia DJren eskutik.


Gaztetxoak batukadako entseguan. | AMAIA TXINTXURRETA


Joan den urteko Aratusteetako kontzertua. | IMANOL SORIANO





Mari Carmen Barrenetxea eta Denis Itxaso egoitzaren aurrean. | MAIALEN TORRES

# Mari Carmen Barrenetxea da PSE-EEren alkategaia

Ohiko boto-emaileen aurrean aurkeztu du hautagaitza, sozialisten lokal berrituan

**MAIALEN TORRES** | BERGARA

Mari Carmen Barrenetxea hirugarrenez izango da Bergarako PSE-EEren hautagaia alkatetzarako. Bi agintaldi daramatza zinegotzi lanetan, eta, haren esanetan, zerotik hasi zen arren, asko ikasi du urteotan. Hirugarren aldia izanda ere, ilusioz jarraitzen du lanerako.

Denis Itxaso, Gipuzkoako ahaldun nagusi izateko PSE-EEko hautagaia, izan zen aurkezpenean, Barrenetxearen hautagaitza babesten. "Bergararrak zerbitzatzea erronka da. Baina bereziki apalenei, pertsona nagusiei, langileei, langabezia egoeran daudenei eta gure herria osatzen dugunoi zerbitzatzeak ilusioz betetzen nau", azaldu du Barrenetxeak.

**Inposizio barik**

Gaineratu zuen udal politikak aplikatzeko modua ez dela inposizioa izan behar, eta, hondakinen bilketari dagokionez, egungo Udal Gobernuak hala jokatu duela. "Ez dute jakin herritarrei entzuten, eta atez atekoa da horren eredu. Ikusi dugu herritarren gehiengoa sistema horren aurka dagoela, baina eurek euren bidetik jarraitzen dute. Egun osoa garbitzen pasa arren, zikin dago herria", azaldu du Barrenetxeak.

Hori dela eta, aipatu du alkatetzara iritsiko balitz, bere lehen proposamena atez ateko hondakin bilketa alde batera utzi eta bosgarren edukiontzia ezartzea izango litzatekeela; hori bai, herritarrek hala nahi badute. Horrez gain, esan du ahulenen alde egingo duela lan, zaharren egoitzaren egoera hobetuta eta gazte, langabe eta ekintzaileei lagunduta, besteak beste.

Azkenik, herritarrei laguntza eta babesa eskatu die, PSE-EEk proposatutako proiektua aurrera eramateko.

# Preso, iheslari eta senideekin elkartasun jaia egin genuen

KOMUNITATEA GOIENA | BERGARAKO EZKER ABERTZALEA | BERGARA

Presoak, iheslariak eta beraien senideak izan genituen gogoan aurreko asteburuan, baita etxean preso duten Jose Luis Elkoro ere. Egiten digutena egiten digutela ere elkartasuna eta irribarrea ez digutela lapurtuko erakutsi genien. Trikitilariek, Osintxuko Musiraka dantza taldeak, bertsolariek eta herriko musikariek girotuta poteoa, ekitaldia eta afari ederraz gozatu genuen pasa den zapatuan ehunka lagunek.

Presoei, iheslariei eta beraien senideei elkartasun keinu bat egin nahi izan genien, gertutik. Azken urtean, Bergarako hainbat preso eta iheslari itzuli dira etxera. Baina denak etxean izan arte, Euskal Herria libre izan arte ez dugula etsiko berretsi genuen asteburuan.

**Tinko gure bidean**

Bidea ez da erraza izango, Estatu Españolak eta Frantsesak, presoak bahitu politiko gisa erabiltzen ditu, Euskal Herriak independentziarako bidea egin ez dezan. Presoen eta iheslarien, zein beraien senideen sufrimendua erabiltzen dute, ekindako bidea oztopatzeko. Bake egarriz eta askatasun gosez dagoen herri bat gara.



SAN MARTIN AGIRRE

## Hartzaren ohitura berreskuratuz

**Eguen Gizeneko Hartzaren Eguna berreskuratuz eman zioten hasiera Aratusteei San Martin Agirre herri eskolan. Artzainaren konpainian agertu zen hartza, eta ikasleek zein irakasleek ongietorri beroa egin zieten. Batzuek beldurrez, beste batzuek barrez, baina guztiek egin zuten hartzaren aurrean korrika.**

NIRE USTEZ



**ANDER BOLIBAR**

## Isiltasuna apurtzen

2003an *Astindu* fanzinearen eskutik Bergarako 35 musika talde bildu, eta kaleko ondarea altxor bilakatu zuten, 20 urte luzez zuzenekoetan aritutako taldeen lanak bilduko zituen *Isiltasuna apurtzen* diskoa ernatuz.

Bost urte geroago, Txapa Irratiak bultzatuta Txaparrada egitasmoa etorri zen. Zuzeneko musikaldi baten bitartez CD bikoitz batean atera zitzaion argazkia momentuko musika eszena mokoloari.

Kartzela zaharrean, botere ekonomiko eta administratiboetatik at sortu ziren bi bildumak. Tokiko garapen kulturalak ere behar ditu arnasguneak, bilgune fisiko eta mugarri baikorrak.

Musikak badu herri bat batzeko indarra, injustiziak salatzeko tresna bilakatzeko bokazioa, barne gatazkak azaleratzeko aukera, behar sozialak soseguz aldarrikatzeko kanala eta eguneroko problematikari soinu banda jartzeko ahalmena.

Orain ariketa: itxi begiak eta saiatu Goiko-rock elkarteko edo Bergarako zortzi musika talde aktibo zerrendatzen. Egon badaude, askotariko estilo eta adin tarte ezberdinetakoak. Egoera osasuntsuan, eta proposamen interesgarriekin. Ezagutzen dugu herriko kultura?

Bergarako musikari, musikazale eta herrigintzako kideei galdera; heldu zaigu hirugarrenez isiltasuna apurtzeko unea?

**"Tokiko garapen kulturalak ere behar ditu arnasguneak, mugarri baikorrak"**

### Sailkapeneko lehen taldearen aurka jokatuko du eskubaloi taldeak

Urte honetako partidu zaileneta koa izango da biharkoa. Eskubaloi taldeko jokalariek euren mailarik onena erakutsi beharko dute, Irundik sailkapeneko lehenak etorriko baitira. 19:30ean, etxekoek Labegaraietako kantxaren berotasuna igarriko duten arren, puntuak eskuratzeko, ezingo dute akatsik egin.

### Puntuen bidera bueltatzeko partidua gaur Labegaraietan

Saskibaloi taldeak azken jardunaldian Donostian estropezu egin eta gero, Don Jabugo Ensanche Erroibide taldearen aurka puntuak gehitzen jarraitzeko aukera bikaina du. Hain zuzen, 20:00etatik aurrera, jokalariek herrikideen berotasun eta animoak beharko dituzte.

### Soraluce lau t'erdiko txapelketako bi partidu martitzenean

19:30ean hasiko da jaialdia Udal pilotalekuan. Lehenak promes mailako Etxebarria eta Peru Labaka izango dira, eta ostean, nagusien mailako Sanchoren eta Mugurutzaren txanda izango da. Kontrara, aste bukaeran, Aratusteetako ekintzengatik ez da partidurik egongo.

### Txorimalo lehiaketarako izen-ematea zabalik

Erramu zapatuan egiten duten Txorimalo lehiaketarako izenematea zabalik dago. Martxoaren 18ra arte eman daiteke izena, Jardunen bulegoan. Izen-ematearekin batera –asko jota 8 kideko taldeak–, txorimaloak erakutsiko duen euskararen aldeko esaldia ere aurkeztu beharko da.

UREDERRA ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

Kabutzia
ARRANDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

BEHEKO TABERNA
Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

AITONAK
TABERNA
(Jubilatuen etxea)
Bazkariak
Afariak
Ospakizunak
Kintadak
ETOR ZAITEZ!
08:00etatik 21:00etara zabalik!
Tel.: 628 443486
Boni Iaskurain, 9 behea
BERGARA

# Sidati Moh Salem Alimusa: "Han ez dago ezer; ez dago lanik"

## Saharar herriak bizi duen egoera larriaz jardun zuten martitzenean Olaranen

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Urtebete darama Sidati Moh Salem Alimusak Antzuolan. Herrian, baina, guztiz integratuta dago. Euskara ikasten ere badihardu Auzokori esker. Antzuolan oso jende onarekin topo egin duela eta pozik dagoela dio. Gainera, Anelkarrek Sahararen alde egiten duen urteroko kanpainan parte hartu du.

Martitzen arratsaldean Sahararen egoeraz jardun zuen Olaranen. Bete egin zen aretoa.

"Antzuolak hamaika urte daramatza Saharari laguntzen. Aurten aukera izan dut produktu eta kaxen zenbaketan parte hartzeko. Benetan lan zoragarria eta garrantzitsua da herriak egiten duena. Saharan familiak zain daude; izan ere, hemendik bidaltzen diegun laguntzari esker bizi dira".

Egoera benetan gogorra bizi dute sahararrek: "Han ez dago ezer; ez dago lanik. Hemengo laguntza eta berotasuna asko eskertzen dute. Umeek eskolarako koadernoak eta boligrafoak behar dituzte".



Sidati Moh Salem Alimusa martitzeneko hitzaldian. | M.A.

### Libre izan gura duen herria

40 urtean egoera gogorra bizi du saharar herriak eta denbora luzeegia pasatu dela dio. "Familia asko banatuta dago; batzuk kanpamenduetan, errefuxiatu-guneetan bizi dira. Beste batzuk, aldiz, okupatutako zonan. Libre izan gura dute eta gobernuek ez dute ezer egiten", gaineratu du.

Sidati Moh Salem Alimusak 1976an utzi zuen Tindufeko errefuxiatuen kanpamendua Kanariar Uharteetara joateko. "39 urte daramatzat aita ikusi gabe". Egun, Antzuolan emaztearekin eta semearekin bizi da.

### 7.000 kilo, Saharara

Antzuolak hamaika urtean ia 7.000 kilo bidali ditu Saharara. "Herriko eskolari, Udalari eta Anelkarri esker, eta, noski, herritarrei esker, posible izan da 2.000 biztanleko herri batean halako elkartasuna adieraztea", azpimarratu zuen Jabi Etxanizek.

# Badator festarik ausartena eta umoretsuena giroa alaitzera

M.A. | ANTZUOLA.

Aratuste-domeka ospatuko dute antzuolarrek hilaren 15ean. Hala, 10:30ean, Oinarin dantza taldeko dantzarien kalejirak emango dio festari hasiera. Talde bat, sorgin-dantza eginez, hartzarekin, tximinoarekin eta hezitzailearekin Kalegoi aldera joango da; beste taldea, Aratuste giroko dantzak eginez, Kalebarren aldera. Ondoren, 12:30 aldera, guztiek elkarrekin eta dantzari txikiekin batera jaialdi borobila eskainiko dute Herriko Plazan –euria eginez gero, eskolako patioan.

### 50 umetik gora

Umeen saioak emango dio hasiera Herriko Plazako ekitaldiari. 50 ume baino gehiago ibiliko dira dantzan. Aurten dantzan hasi direnen lehen saioa ere izango da. Askotariko dantzak ikusteko aukera izango da; bukaera, baina, sorgin-dantzak emango dio.

### Pailazoen emanaldia

Gaur, hilak 13, Poxpolo Ta Konpainia pailazoen emanaldia izango da, 17:30ean, Torresoroan. Sarrera: 3 euro.

### Afaria gaztetxean

Aratusteetako afari parte-hartzailea egongo da gaztetxean gaur, 21:00etan. Mozorrotuta joateko dei egin dute. Afalostean, parte-hartzaileek ikuskizunak egingo dituzte.



Herritarrak Aratuste-domekaz disfrutatzen iaz. | GOIENA

# Beñardo Kortabarria aukeratu dute EH Bilduren alkategai izateko

M. A. | ANTZUOLA

Antzuolako EH Bilduren alkategai izango da Beñardo Kortabarria datorren agintaldian. Eguaztenean, hilak 11, aurkeztu zuten hainbat herritarren babesarekin.

Kortabarria antzuolarra da, kazetaria, eta azken urteetan Elhuyarren dihardu lanean.

Herrian ezaguna da eta hainbat mugimendutan parte hartu du. "Hautagaitza hau urtarrilaren 8an herritarrekin batera *Antzuola aldatzen (h)ari gara* izenburuarekin eginiko lehen bileran herritarren proposamenen artean lehenetsia izan zen", azaldu du Antzuolako EH Bilduk. "Lehen batzar hartan, gainera, lau urteko agintaldiaren balorazioa ere egin genuen", nabarmendu dute.

### Herritarrei deia

Hala, herri programa osatzeko helburuarekin bilerak egingo ditu EH Bilduk herrian.

Bigarren bilera otsailaren 26an, eguena, izango da Olaran etxeko aretoan, 18:30ean.

Antzuolako EH Bilduk herritar guztiak gonbidatu nahi ditu bileran parte har dezaten. "Asmoa da guztion ekarpenekin guztiona izango den programa eratzea", gaineratu du.



Beñardo Kortabarria. | EHBILDU



GAZTE TXOKOA

## Ndank Ndank elkartea gertutik

Urtarrilean zehar ekintza ugari egin ditugu: bertso-luntxa Aitzol Iturbe eta Hodei Lete bertsolariekin, afari mexikarra, gazte txokoko pareten pintaketa... Ndank Ndank Bergara eta Senegal lotzen dituen elkarteko kideak ere izan ziren gurekin. Elkartea ezagutarazteaz gain, perkusio tailerra ere egin genuen. Bestalde, otsailean bi irteera egingo ditugu: batetik, otsailaren 21ean Bilbo inguruan dagoen abentura parkera joango gara. 12:30ean irtengo da autobusa herritik. Jadanik gaztetxoak apunta daitezke gazte txokoan. Bigarren irteera, berriz, Zuhatzara egingo dugu, maiatz aldera. Aurrez egin behar da erreserba; hain zuzen ere, irteerara joateko asmoa duten gaztetxoek otsailaren 15a, domeka, dute izena emateko azken eguna.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJIKA
HARATEGIA
Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

GAILUR
taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

# Bizikidetza "bultzatzera" dator EAJko alkategai Jose Ramon Zubizarreta

Martitzenean aurkeztu zuten, eta eskoriatzarren "konfiantzaren" arduradun izan gurako luke

**M.A.** | ARETXABALETA
Eskoriatzako EAJk Jose Ramon Zubizarreta alkategaia aurkeztu zuen martitzenean. 59 urte ditu eta irakaskuntzan jardun du beti, azken urteotan Arizmendi Ikastolan. Esan zuen "inposizioa" bukatzea eta bizikidetza bultzatzea dituela helburu.

**Galdeketa errespetatu**
Lanerako "gogotsu" aurkeztu da Zubizarreta. Pozik dago alkategai izateko aukeratu duelako EAJk, eta atzean duen taldearen lana azpimarratu gura izan du.

Azken asteotan herriko elkarte eta erakunde ia guztiekin elkartu direla jakinarazi zuen aurkezpenean, eta guztiak eskertu gura izan zituen, jasotako ekarpenak oso "baliagarriak" izan direlako programa osatzerakoan. Hala, programa hori ia landuta dutela jakinarazi zuen, eta hiru ardatz izango dituela zehaztu. Lehenengoa da bizikidetza bultzatzea: "Inposiziorik ez dugu bultzatuko, elkarrizketa da bultzatu beharrekoa". Eta bizikidetza horrek "zaborraren" kudeaketa ereduarekin zerikusi handia duela uste du; hala, herri galdeketaren alde agertu zen: "Galdeketa egin egingo dugu, eta gero, hori errespetatu".

Egoera ekonomikoarekin arduratuta agertu zen. Fagorrez gain beste enpresa askok bizi izan dutela krisia zioen: "Azken hamabi urteotan herriko negozio erdiak itxi egin dira". Eta hirugarren ardatza hirigintza izango da. Izan ere, aspaldi "agortutako" arau subsidiarioei heldu behar zaiela uste du.



Jose Ramon Zubizarreta alkategaia Eskoriatzako plazan. | M.A.

# Mozorroen atzean ezkutatuta, has dadila jaia!

Atzoko Urdelardero egunarekin iragarri dute umeek bertan direla Inauteriak

**MIRARI ALTUBE** | ESKORIATZA
Txorizo, sagar eta beste hainbat jakiz betetako ziriak esku artean hartu eta kantuan jardun zuten atzo goizean neska-mutikoek: *Urdei lardero, urdeixa janda, bazkaixa gero*... Hala, sasoi bateko ohiturari eutsi diote beste urte batez. Goiza bukatzeko, txorizo muturtxoa jan zuten plazan, eta arratsaldean pailazoen ikuskizuna eta txokolatea izan zituzten.



Neska-mutikoak Urdelardero Eguna ospatzen atzo. | MIRARI ALTUBE

**Sariak mozorroendako**
Eguen Gizeneko ospakizunek ongietorria egin diete Inauteriei, eta biharko egunari begira daude orain. Mozorroen desfile ofiziala eguerdi partean da. Azken urteotan legez, Huheziko aparkalekutik irtengo dira, eta Joseba Iñurrategi pilotalekuraino joan. Kuadrillek aurrez eman dezakete izena kultura etxera jota, eta, bestela, 12:30erako agertu behar dute aparkalekuan. Desfilean parte hartutako mozorrorik onenek saria izango dute –19:00etan banatuko dituzte–, eta epaimahaiko kideek honako hauek baloratuko dituzte: umorea; giroa; originaltasuna; janzkera; eszenografia; eta birziklatutako materiala erabili izana. Eta sariak izango dira, helduen artean: 300 axtrokiko bi sari; 200 axtrokiko bi sari; 100 axtrokiko sari bat; eta 100 axtrokiko sari berezia. 16 urtetik beherakoen artean, ostera, saria izango da merienda bat –pertsona bakoitzeko 6 axtroki; gehienez, 100 axtroki–, eta hiru emango dituzte.

Bazkaltzeko elkartuko dira gero pilotalekuan, eta arratsaldean zezentxoak eta poneyak izango dituzte gaztetxoek. Eguna bukatzeko, dantzaldia izango da Egan taldearekin.

**Martitzena, gaztetxoendako**
Martitzena gaztetxoendako eguna izango da. Goizean, ikastetxeetako neska-mutikoak plazan elkartuko dira, musika lagun dutela. Eta arratsaldean, kukumarroak ibiliko dira, lehenengo, bazterrak astintzen, eta ondoren, Jon Urbieta disko jartzaile ezagunak girotuko du plaza ingurua.

**INAUTERIETAKO EGITARAUA**

**ZAPATUA**

**13:00** Desfilea, Huheziko aparkalekutik pilotalekura.

**14:00** Herri bazkaria, pilotalekuan.

**16:00** Zezentxoak eta poneyak Gorosarri plazan.

**18:00** Dantzaldia plazan, Egan taldearekin.

**MARTITZENA**

**10:30** Umeen jaialdia, plazan.

**17:00** Kukumarroak, kultura etxetik irtenda.

**18:00** Jon Urbieta DJa, plazan.



Dokumentaletan parte hartu duten hainbat kide Zalbibarren. | UDALA

## Ohiturak dokumentaletan jasota

Eskoriatzako ohituren gaineko dokumental bi egin ditu Badihardugu Euskara Elkarteak, *Ahotsak* proiektuaren barruan: *Santa Ageda eta kintoak Eskoriatzan* eta *Inauteriak Eskoriatzan*. Generazio askotariko herritarren testigantzak jaso dituzte horietan: Santa Ageda koplak eta dantzak; Urdelardero eguneko kontuak; kukumarroak... Zaldibarren aurkeztu zituzten bi dokumentalak eta orain Udalaren webgunean daude ikusteko.

**NIRE USTEZ**

**OLATZ PAGALDAI**



# Modernoen 'new' kaikua

Aurreko asteburuan Madrilen egon nintzen. Bilboko lagun bat daukagu bertan. Laguna bisitatu eta parte hartzen duen antzezlana ikusten. Espainiako Estatuko antzerkigintzaren *habian*.

*La cena de los malditos* antzezlana ikusi dugu. Antzerki-formatu berritzailea. Esku programan jartzen duenez: "Inoiz ikusi duzun kultur eskaintza berritzaile eta arriskatuena da".

Kontua da antzerkitik atera eta taldean ikusitakoa komentatzen jarri ginenean, honako honetaz konturatu ginela: antzerkian zehar agertzen ziren abesti gehienak, atzerrikoak izateaz gain, ingelesez abesten zituztela. Azkenaldian, badirudi bertan ez daukagula abestiak sortzeko gai den inor. Bertakook ez garela ona den ezer berririk asmatzeko gai. Atzerrian arrakasta izan duten formulak errepikatzen dira, bertara moldatuak.

Berdin gertatzen da janzteko moduetan –denak berdin-berdin jantzita zihoazen taldetxoak ikusi genituen Madrilen– edo telebista saioetan. *Euskal Mujeres-Hombres y viceversa (Gu ta gutarrak)* ikustea besterik ez dago.

Ez da programatzaile, zuzendari edo ekoizleen kontua soilik. Guk, hori berritzailea dela esaten digutenean, sinistu eta berdina egin edo jantzen dugu. Guk ere moderno-modernoak izan nahi dugulako...

**"Badirudi ez garela gai ezer berririk asmatzeko"**

## Korrika batzordea elkartuko da hilaren 18an, kultur etxean

Eskoriatzako Korrika batzordea lanean dabil azken asteotan martxoaren 23an iritsiko den Korrikaren gaineko ekitaldiak antolatzeko. Eguaztenean, otsailak 18, du hurrengo bilera, 18:30ean, kultur etxean eta edonorendako dituzte ateak zabalik. Han adostuko dute: egitaraua, Korrika Txikia...




# Euriari originaltasunarekin erantzuteko egunak datoz

## Aratusteez gozatu ahalko da bihar eta otsailaren 17an

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aramaio ere murgiltzear da Aratusteetan. Herritarrek bihar, zapatua, ospatuko dute mozorroen festa. Euriari sormenarekin eta originaltasunarekin erantzuteko eguna izango da. Egun osorako egitaraua prestatu dute Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanbladak (ATGA), Trikitixa Eskolak eta Udalak. 12:00etan batuko dira Bizente Goikoetxea plazan eta poteoa egingo dute, Bertso Eskolako kideek eta musikak girotuta. Ondoren, herri bazkaria egingo dute San Martin eskolako gimnasioan; paella eta entsalada jango dituzte, besteak beste. Gazte Asanbladakoek adierazi dutenez, 120 bat lagun elkartzea espero dute biharko herri bazkarian.

Bapo bazkaldu ostean kalejiran joango dira pilotalekutik plazara, trikitilarien laguntzarekin. Ondoren, mozorro lehiaketa egingo dute. Taldeko mozorroen artean –lau lagun behar dira gutxienez– bi sari banatuko dituzte: haurren saria –lehenak 90 euro eta bigarrenak 36– eta 14 urtetik gorakoendako saria –lehenak 90 euro eta bigarrenak 36 euro–. Bestalde, originaltasunaren saria banakakoa edo taldekoa izan daiteke; lehen saria 48 euro izango da eta bigarrena, 30 euro. Parte hartzeko izena eman behar da aurretik liburutegian, eta gaur da horretarako azken eguna.



Familia sevillarra Aramaiora etorri zenekoa. | GOIENA

**Umeendako eguna, martitzena**

Umeendako, martitzena, hilak 17, izango da egun handiena. Ludotekan fantasiazko txano tailerra eta kamiseta margotzeko ikastaroa antolatu dituzte, 17:00etan. 5 urtetik beherakoek heldu batekin joan beharko dute.

Izan ere, eskolan ere martitzenean ospatuko dituzte Aratusteak, eta aurten kirola izan da aukeratu duten gaia. 14:30 aldera irtengo dira kalejiran plazaraino; eguraldi txarrarekin kiroldegian egingo dituzte ikuskizunak, senitartekoen aurrean. Amaitzeko, txokolate-jana izango dute eskolan bertan.

### EGITARAUA, BIHAR

**12:00** Poteoa Bizente Goikoetxea plazatik, Bertso Eskolakoek girotuta.

**14:30** Herri bazkaria eskolako gimnasioan.

**17:00** Kalejira pilotalekutik, herriko trikitilarien eskutik.

**18:00** Mozorro lehiaketa Bizente Goikoetxea plazan. Ondoren, txokolate beroa eta umeendako tailerra ere egongo dira.

# Paula Amilburu izan zen onena Legutioko saioan

## Bigarren itzuliko hiru saioak definituta geratu dira; Aramaion jokatuko da lehena, hilaren 21ean

J.B. | ARAMAIO

Domekan Legution jokatutako Arabako Bertsolari Txapelketako lehen itzuliko hirugarren kanporaketan Paula Amilburu aramaioarrak lortu zuen puntuaziorik altuena (311,5 puntu). Bigarren postuan sailkatu zen Xabi Igoa aramaioarra (310,5), eta haren ostean Iñaki Viñasprek (306,5), Asier Rubiok (286) eta Aramaioko Iker Agirrek (274) eta Peru Abarrategik (267) osatu zuten zerrenda.

**Hurrengo saioak, zehaztuta**

Martxoaren 21ean Gasteizko Printzipal aretoan jokatuko den final handiaren aurretik beste hiru finalaurreko egongo dira. Aramaion izango da lehena, hilaren 21ean, kultura etxean (17:30). Iker Agirre izango da ordezkari aramaioarra; etxean abestuko du. Hilaren 28an Zigoitin jokatuko den finalaurrekoan, berriz, Manex Agirrek eta Peru Abarrategik kantatuko dute. Amaitzeko, martxoaren 7an jokatuko da azken finalaurrekoa; Paula Amilburu eta Xabi Igoa finalerako txartela lortzen saiatuko dira.



Amilburu Legution. | BERTSOZALE ELKARTEA

### Martxoaren 8rako kartel lehiaketa abiatu du aurten ere Udalak

Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta, kartel lehiaketa abiatu du Udalak Martxoaren 8ari begira. Aramaion jaio edo bizi den edonork har dezake parte eta lanak hilaren 25erako entregatu behar dira udaletxean. Irabazleak 200 euroko saria jasoko du eta bigarrenak, berriz, 100 eurokoa.

### Orixolen eski irteeran ohi baino jende gehiago egongo da

Orixol elkarteak eski irteera antolatu du, Astunera, otsailaren 20tik 22ra. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, 43 lagunek eman dute izena: "Ohi baino jende gehiagok eman du izena aurten; pozik gaude". Hilaren 20an irtengo dira autobus geltokitik (19:00) eta bi egun izango dituzte eskiatzeko.

# Aurrekontuak herritarrekin adostu gura ditu Udalak

J.B. | ARAMAIO

2015eko aurrekontuak ere herritarrekin batera adostu gura ditu Udalak. Zirriborroa aurkeztuko diete antolatu diren bi bilera irekietara agertzen diren aramaioarrei, eta, euren ekarpenak jaso ostean, "ahalik eta lasterren" saiatuko dira Ogasun batzordera eramaten.

**Bi saio osoko bilkuren aretoan**

Aurreko urteetan auzoz auzo joan izan dira alkatea eta beste zenbait zinegotzi, baina aurten erabaki dute bi saio egitea, biak udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Lehena otsailaren 18an egingo da, 18:30ean; Ibarrako eta Oletako bizilagunei dago zuzenduta. Bigarren saioa, berriz, hilaren 21ean egingo dute, 11:00etan. Bilera horretara gainerako auzo guztietako bizilagunak deitu dituzte.

Agintaldiko azken aurrekontuak onartzeko osoko bilkuraren data ez dute oraindik zehaztu, baina espero dute martxo erdialdean egingo dela.



Aurrekontuak herritarrei aurkezteko saio bat, artxiboko irudi baten. | J. BEREZIARTUA

# Santa Ageda batzea, baita auzoetan ere

Santa Ageda eskea tradizio berezia da Aramaion eta horren adierazle da, urtarrilaren 31koaz aparte, auzo batzuetan ere ospatu zutela otsailaren 4an. Uribarrin, Untzillan –argazkietan– eta Barajuenen, esaterako. Zuritutako parajeetan ederto ibili ziren, baserriz baserri.



AIZPEA AJURIAGERRA



GOIENA

# Mozorroak gertu: has daitezela Aratusteak!

Musika eskolakoek hasiko dituzte gaur, kuadrillek jarraitu domekan eta ikasleek bukatu martitzenean



*Mayorcetes*, iaz saria eskuratu zuen taldetxoa. | JOSETXO ARANTZABAL

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Hau josi, hori lotu, bestea itsatsi… Mozorroei azken ukituak ematen dabiltza herritarrak, domekarako gertu izateko guztia. Ohiko mozorroek eta originalek bat egingo dute kaleetan, eta, euri edo elur, jai giroak ez du hutsik egingo. Iralabarri plazaren atzeko partetik irtengo dira kuadrillak, eta, Araba ibilbidetik aurrera, Mitarte eta Durana zeharkatuko dute; Errekabarrenen gora joango dira, Andramari auzuneari buelta eman eta Herriko Plazan bukatuko dute.

Eta jai giroak kiroldegian jarraituko du: 600 lagun elkartuko dira bazkaltzeko Mikel disko jartzailea lagun dutela.

Urtero legez, mozorrorik dotoreenek saria izango dute. Helduen artean 160 euro jasoko dituzte honako hauek: originalenak; kale animazio onenak; muntaia onenak; bikote zein bakarkako mozorro onenak; eta adin askotarikoez osatutako talde onenak. 16 urtetik beherakoek ere izango dute saria: lehenengoak, 150 euro; bigarrenak, 120 euro; hirugarrenak, 100 euro; laugarrenak, 80 euro; eta bosgarrenak, 60 euro.

**Aratuste-martitzena**

Martitzenean ikastetxeetako neska-mutikoen txanda izango da, eta 500 ikasle baino gehiago elkartuko dira Herriko Plazan txaranga doinuen atzetik. Euskal Aratusteetako pertsonaiak izango dira nagusi: Kaskarotak, Santa Ageda neska-mutilak… 5 urtekoek Txino-dantza egingo dute eta 6 eta 12 urte artekoek, Aratusteetarako asmatutako dantza.

Mozorroen festa Santa Ageda neska-mutilek agurtuko dute. Txinen zerraldoa bizkarrean hartu, eta Mitarte kaletik plazarainoko ibilbidea egingo dute 20:00etan –lutoz eta kandelak esku artean–; han erreko dute.

## ARATUSTEETAKO EGITARAUA

**EGUBAKOITZA**

**17:30** Aratuste-jaia, Leizarra musika eskolakoen eskutik, Iturrigorri pilotalekuan.

**18:45** Mozorro lehiaketaren sari banaketa Herriko Plazan.

**19:00** Santa Ageda neska-mutilen dantza saioa.

**DOMEKA**

**10:00** Diana txistulariekin.

**11:45** Txino-dantza, Santa Ageda neska-mutilekin.

**12:00** Kuadrillen desfilea herriko kaleetan.

**13:00** Kalejira Akelarre txarangarekin.

**14:30** Herri bazkaria, kiroldegian, Mikel DJ taldeak girotuta.

**18:00** Kalejira txarangarekin kiroldegitik Herriko Plazara.

**MARTITZENA**

**10:30** Ikastetxeetako umeek dantzan egingo dute plazan.

**11:00** Kalejira Irulitxa txarangarekin eta Aratusteetarako asmatutako dantza egingo dute.

**16:00** Kalejira txarangarekin.

**17:30** Kalejira txarangarekin.

**20:00** Txinen hileta. Santa Ageda neska-mutilek zerraldoa eramango dute Mitarte kaletik Herriko Plazara, eta han erre.

**'TXIKI' ETA AITOR**
SUKALDARIAK

## "Torradak maitasunez egiten ditugu"



M.A.

Txapel Txin eguneko torrada lehiaketa bigarrenez irabazi dute Basabe jatetxeko sukaldariek. Aratuste sasoiko jakiok maitasunez gertatzen dituztela diote.

**Zelan egin dituzue?**
Aurreko eguneko ogiarekin, ondo usaingozatutako esnearekin eta azukrearekin, noski. Eta pastel-krema ere gehitzen diegu.

**Hortaz, zein da sekretua?**
Maitasun handiz egitea, ez dago besterik.

**Lehen beste jaten da orain?**
Bai, berdin, jendeak oso gustuko ditu sasoi honetan.

**Gizendu egingo dute ba?**
Bai, noski. Baina goxoak egonez gero ez dio axola. Neguko hotzari aurre egiteko gainera, benetan aproposak dira.

**Bigarrenez jaso duzue txapela, ezta?**
Bai, iaz eta aurten; eta aurretik bigarren sari bi ere bai. Hurrengoan jende gehiago aurkez dadila, lehiakortasun handiagoa egon dadin.



Zure bainuontzia kendu eta dutxa jartzen dizugu
EGUN BATEAN
hori guztia kalitate eta zerbitzu onena emanda.
Dei egiguzu konpromiso barik eta dituzun zalantza guztiak argituko dizkizugu.
SANER
Iturgintza, gasa, kalefakzioa eta eguzki-plaka termikoen instalazioa etxeko urarendako
Mitarte 5 behea - Tel.: 943 71 52 51 - 605 71 66 92 - ARETXABALETA

# Xabier Igartua da EH Bilduren alkategaia Aretxabaletan

Joan den zapatuan egindako parte-hartze saioan eman zioten onespena

**J.IRIONDO/M.ALTUBE** | ARETXABALETA

Parte-hartze saioa egin zuen Aretxabaletako EH Bilduk joan den zapatuan eta maiatzeko udal hauteskundeetarako zerrendaburuari behin betiko onespena eman zioten. Xabier Igartua da hura, 57 urteko aretxabaletarra. EH Bilduko kideen esanetan, kudeaketan jardutea zer den badaki Igartuak, lan esparruan –Oñatiko Ulman dihardu–. Udal mailan eta alderdiko zereginetan esperientziarik gabea da, baina "herri mugimenduan" jardun izan duela gaineratu zuten.



Xabier Igartua joan den zapatuko parte-hartze saioan. | JULEN IRIONDO

**Zerrendarako proposamenak**

*Aretxabaleta aldatzen (h)ari gara* leloarekin egindako saioan, agintaldiaren balorazioa egin zuten eta hauteskunde programarako ekarpenak jaso zituzten. Balorazioari dagokionez, EH Bilduko kide Itsaso Pagoagak adierazi zuen ekonomia alorra nabarmendu zela: "Lau urteotan Udalak hartutako neurrien artean neurri ekonomikoek dute pisua, udal zorra erdira gutxitu da eta, gainera, gauza mordoa egin dira: ingurumenean, kulturan, hezkuntzan...". Eta arlo bakoitzeko udal zinegotziek euren esparruen gainean jardun zuten, orain arte egindakoak, egiteko geratu direnak eta hobetu beharrekoak azalduta, hain zuzen.

Etorkizunari begirako ekarpenei dagokienez, bi arlo nabarmendu zituzten: "Hirigintzari dagokion ekarpen asko egon dira eta komunikazioa indartu beharra agertu da", zioen Pagoagak. Dena den, arlo guztietako ekarpenak egin zituzten elkartutako 25 lagunek.

Parte-hartze prozesuak otsail bukaerara arte iraungo du eta zapatukoa bezalako beste saio bat egingo dute, hauteskunde programarako ekarpen gehiago jasotzeko. Horrez gain, zerrendak osatzeko proposamenak egiten eta jasotzen dabiltza, eta azken saio horretan onartuko dute zerrenda.

Batzarroz gain, beste bide batzuk ere jarri ditu Aretxabaletako EH Bilduk herritarrek ekarpenak egin ditzaten: webgunearen bidez; *ehbilduaretxabaleta@gmail.com* helbidera idatzita; eta Twitterretik *@ehbilduatxabalt*-era mezua bidalita.



M.A.

## Jolasgunea bukatzear dago

Gernika plazako jolasguneak itxura polita hartu du. Zortzi aktibitate izango ditu umeek jolas egin dezaten, eta eguraldiak ez lagundu arren azken astean, horietako elementurik garrantzitsuenak muntatu dituzte dagoeneko; besteak beste, sei metroko garaiera duen etxetxoa eta ia hamaika metro dituen txirrista.

## Zabalik da Gizarte Zerbitzuetan aldi baterako egoitzetako egonaldietarako eskaera egiteko epea

Aldi baterako egoitzetako egonaldiak gertatzen hasi dira Gizarte Zerbitzuak, Aste Santuko oporraldiei begira. Gipuzkoako Foru Aldundiaren bitartez antolatzen dituzte egonaldiok, eta dagoeneko zabalik dago eskaerak egiteko epea.

Udaleko Gizarte Zerbitzuen bulegora jo behar dute interesatuek, eta, horretarako, aurrez txanda hartzea komeni da; hona telefono zenbakia: 943-71 18 62. Azken eguna otsailaren 27a da, egubakoitza.



# Bertso afaria egin gura dute Korrika girotzeko

Eguaztenean elkartuko da berriro Korrika batzordea egitaraua lotzen joateko

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Hilabete pasatxo geratzen da Korrika martxan jartzeko eta Aretxabaletako batzordea buru-belarri dabil lanean azken asteotan. Hainbat kontu zehaztu dituzte dagoeneko: Korrika Txikia, bertso txikiteoa, bertso afaria... eta guztiak lotzen hasiko dira orain. Hurrengo batzarra eguaztenean dute, otsailak 18, 18:30ean, Arkupen, eta lanerako gertu dauden guztiak hartuko dituzte pozik: "Hemendik aurrera lan asko egongo da eta boluntarioek ateak zabalik dituzte", dio Nerea Egurzak, Aretxabaletako Korrika batzordeko koordinatzaileak.



Korrika batzordeko hainbat kide lehen batzarrean. | KORRIKA BATZORDEA

**Materiala otsailaren 23tik**

Gero eta gutxiago geratzen da Korrikaren testigua dantzan hasteko eta horren berri ematen eta hori girotzen hasiko dira Aretxabaletan ere. Bertso txikiteoa eta bertso afaria antolatzeko asmoa dute, baina oraindik zehazteko dituzte egunak. Era berean, 19. Korrikarako sortutako materiala ekarriko dute, eta otsailaren 23tik martxoaren 1era bitartean erakutsi Loramendi elkartean. "Kalean ere jarriko ditugu postuak hori erakusteko eta Internet bidez ere eros daiteke", jakinarazi du Egurzak. Beste edozein eratako argibideak gura dituenak, Korrika lagun egin edo kilometroa erosi, Loramendira jo dezake; baita mezu bat bidali ere honako helbidera: *korrika19debagoiena@gmail.com*.

Korrika Txikia ere egingo dute, azken urteetan legez; martxoaren 23an izango da, Korrika herrira iritsiko den egun berean. Horren ibilbidea dagoeneko zehaztuta dago eta Aretxabaletatik bi bider pasatuko da aurten. Hona: Mugarriko biribilgunea (08:04); kuartela; Durana kalea; Araba ibilbidea; Fagor Ederlan irteera (08:20); Eskoriatzako biribilgunea; Atseden taberna; Copreci lantegia; Kurtzebarri eskola; eta Aramaioko biribilgunea (08:45).

## Aingeru Guardakoa egunerako izen-ematea zabalik dago Basotxon

KOMUNITATEA GOIENA | BASOTXO ELKARTEA | ARETXABALETA

Basotxo erretiratuen elkarteko kideok zaindariaren eguna, Aingeru Guardakoa, ospatuko dugu martxoaren 1ean, eta egitaraua gertu daukagu: 11:30ean, meza parrokian; 12:15ean, salda Basotxon; eta 14:00etan, bazkaria Arrasateko Sara jatetxean –autobusa egongo da 13:15ean–. Izena emateko, Basotxoko bulegotik pasatu behar da –11:00etatik 12:00etara bitartean–, eta 35 euro ordaindu.

**Martitzenean Tolosara**

Bestalde, martitzenean Tolosako Inauterietara joango gara, mozorroen festa ikusi eta bertako giroa ezagutzera. 10:00etan irtengo gara, eta, goiza Tolosan pasatu ondoren, Urnietako Oianume sagardotegian bazkalduko dugu. Jatekoa eta edatekoa gura beste egongo da eta dantzan egin ostean bueltatuko gara.

Bigarren autobusa betetzeko jarleku gutxi batzuk geratzen direla jakinarazi gura dugu; hortaz, interesatuak lehenbailehen pasa daitezela Basotxoko bulegotik izena ematera.

## 'Mochuelo'-ren erakusketa plastikoa dago Arkupen



Almendrekin egindako pieza aretoko lurzoruan. | M.A.

**M.A.** | ARETXABALETA

Carlos Diez Crespo *Mochuelo* (Logroño, 1965) artista plastikoaren *Inintencionadamente* erakusketa dago Arkupen otsaila bukatu artean.

Haren lanik gehienak aparteko apaindurarik gabeko piezak dira, betiere, surrealismoaren ezaugarria galdu barik. Artistak dioenez, hainbat fasetan landutako produkzioa da Arkupen dagoena, eta egungo egoerarekin oso lotua dago, gainera: "Guztiak daude egungo gizarte egoerarekin erabat lotuta eta norberaren eta kolektiboaren haserrearen erakusgarri dira". Hala, erakusketa osatzen dute pinturek, grabatuek, eskulturek... Eta *Arkitektura plastikoa* izeneko atalaren barruan hainbat materialekin egindako lanak daude –egurra, beruna, plastikoa...– Baita bideo bat ere.

EMAKUMEEN II. FRONTENIS TXAPELKETA

## Taldekideen aurkako azken partiduak

Hirugarren jardunaldiko partiduak jokatuko dituzte bihar pilotalekuan, eta taldekideen aurkako azken partiduak izango dira.

Indarrak oso parekatuta daudela argi utzi dute lehen bi jardunaldiek eta norgehiagoka dotoreak ikusi dira orain arte.



Oihana Mata jokatzen. | MAITE FRAILE

**BIGARRENJARDUNALDIKO EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Larraitz Iñurrategi - Olatz Pagaldai / Anabel Aranzadi - Marijo Bastardo | 19-25 |
| Oihana Mata - Leire Valle / Miren Argi Zeziaga - Iratxe Bravo | 25-14 |
| Rosa Ojuel - Lore Martinez Axpe / Nagore Martin - Laura Saez | 4-25 |
| Ainhoa Galfarsoro - Agurtzane Elkoro / Amaia Bolinaga - Maite Txintxurreta | 25-16 |
| Maite Fraile - Maite Otxoa / Ariane Unanue - Ibone Arrieta | 25-10 |
| Oihana Irazu - Anabel Mondragon / Ariane Unanue - Ibone Arrieta | 22-25 |
| Urri Urizar - Miren Antxia / Oihana Irazu - Anabel Mondragon | 20-25 |

**BIHARKO PARTIDUAK**

| | |
|---|---|
| 09:00 | Oihana Mata - Leire Valle / Nagore Martin - Laura Saez |
| 09:30 | Larraitz Iñurrategi - Olatz Pagaldai / Eneritz Ollobarren - Virginia Pando |
| 10:00 | Anabel Aranzadi - Marijo Bastardo / Eneritz Ollobarren - Virginia Pando |
| 10:30 | Urri Urizar - Miren Antxia / Ariane Unanue - Ibone Arrieta |
| 11:00 | Rosa Ojuel - Lore Martinez Axpe / Miren Argi Zeziaga - Iratxe Bravo |
| 11:30 | Ainhoa Galfarsoro - Agurtzane Elkoro / Naiara Amezua - Anais Fernandez |
| 12:00 | Lur Delgado - Lierni Zangitu / Amaia Bolinaga - Maite Txintxurreta |



M.A.

## Maite: "Eskerrik asko guztioi!"

1996an jaiotako 50 lagunetik gora elkartu dira aurten Santa Ageda kantuan eta dantzan egiteko; neska-mutil kuadrilla galanta elkartu ere. Eta gogoan izan dute kinto izanda ere ezin izan dena eurekin taldean egon. Horregatik, joan den domekan plaza erdira atera eta dantzan egin zioten Maite Urretari: "Ezin azaldu etxekook sentitu duguna gure Maitetxo bere kintoekin batera plaza erdian ikusi dugunean. Horregatik, mila esker Maiteren izenean", zioten senideek.

Azken dantza saioa geratzen zaie egiteko aurtengo kintoei; etzi, Aratuste-domeka, egingo dute, 19:00etan, Herriko Plazan.

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario
ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

# Oxel Erostarbe: "Jasotakoa baino zor txikiagoarekin utziko dugu Udala"

## Zortzi urteotako errepasoa egin zuen Goiena telebistako 'Harira' saioan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Alkatetzan bigarren eta azken agintaldia du Oxel Erostarbe elgetarrak, eta martitzenean, Goiena telebistako *Harira* saioan izan zen. Kulturan, Espaloia kafe antzokiaren ibilbidea nabarmendu zuen; turismo alorrean, Intxortako ibilbide tematikoak lortuta emaitzak; eta hirigintzan, herrian egindako hainbat hobekuntza: Salbador kalea, frontoi zaharra, kiroldegiko jolasparkea...

Onartu zuen agintaldi honetan hondakinen kudeaketak dedikazio handia eskatu duela. "Oraindik ez daukagu datu zehatzik, baina sistema honetan organikoaren kudeaketa oinarrizkoa da", esan du. "Gutxi gorabehera, herritarren %50 ari dira organikoa herrian bertan konpostatzen, eta nabarmen daiteke nahiko kalitate oneko organikoa dela". Alkateak esan duenez, lagun batzuek jarraitzen dute zabor-poltsak lurrean uzten: "Baina gutxiengoa dela esango nuke, eta uste dut denborarekin konponduko dela kontu hori ere".



Oxel Erostarbe alkatea Eneko Azkaraterekin *Harira* saioan. | GOIENA

### Udalaren zorra txikiagoa

Erostarbek azaldu duenez, Udalaren egoera ekonomikoa hobea da gaur egun orain dela zortzi urte baino. Onartu du Alberto Olalde aparejadore ohiaren auziak eragina izan duela. "Udalak 400.000 euro ordaindu behar dizkio Gizarte Segurantzari. Gure asmoa da maiatzerako horren zati handi bat ordainduta lagatzea. Geratuko den kopuruak, dezentekoa izanda ere, ez du Udalaren egunerokoan eragingo", azaldu du Erostarbek. "Udalean sartu ginenean zorra 1.300.000 euro zen. Lagako dugu, gutxi gorabehera, 700.000 euroko zorrarekin. Dezenteko zorra da, baina topatu genuena baino txikiagoa".

Norbanakoei dagokienez, langabeziak gora egin du Elgetan, eta herriko zenbait lantegi egoera kaskarrean dira. Erostarberen ustez, hurrengo agintaldietan ere garrantzitsua izango da Udaleko Gizarte Zerbitzuak herritarren ondoan egotea.

### Ondorengoei, garbi jokatzeko

Erostarbe ez da maiatzeko hauteskundeetan hautagai izango, eta hurrengo etorriko direnei aholkatzen die, batez ere, herritarrekin zintzoak izateko. "Gauza batean sinistuz gero, onena da argi esatea", adierazi du. "Eta gero, jendeari norberaren proposamena zein den ondo azaltzea, eta zalantzak argitzea. Baina, batez ere, argia izatea, ez duelako balio gauza bat esan eta handik urtebetera kontrakoa egitea. Hondakinen gaian edo beste edozeinetan. Datozenek esan dezatela zein programa duten. Zein asmo duten Espaloiarekin, hondakinekin, kiroldegiarekin...".

# Mozorroen kalejira, afaria eta musika gaur Elgetan

L.Z. | ELGETA

Eskolako umeen mozorroen kalejirarekin emango diete hasiera Aratusteei gaur, barikua, Elgetan. Eskolatik abiatuko dira 15:30ean, eta herriko plazan amaituko dute 16:00etan —eguraldi txarra bada, frontoian—. Jarraitzeko, umeendako jolasak eta txokolate-jana iragarri ditu guraso elkarteak. Festak Espaloia kafe antzokian izango du segida. Karaokea eta dantzaldia egingo dute DJzirkin-ekin.

Gaztetxetik, berriz, afaria iragarri dute. 22:00etan emango diote hasiera, eta ondoren jolasak eta karaokea egingo dituzte. Espaloia kafe antzokian ere egongo da dantzarako aukera. Klorofila DJ eta Txapeldunk iragarri dituzte 23:00etatik goizaldeko ordu txikiak arte.

### Erretiratuek txokolate-jana

Aratuste-martitzenean elkartuko dira erretiratuak, 17:00etan, Ozkarbi elkartean. Txokolate-jana eta bingoa antolatu dituzte lagunartean arratsalde-pasa egiteko.



ENAITZ EZPELETA



NEREA VILLA

# Irakurleek bidalitako argazki sorta politak

Eskertzekoak dira aurreko astean zenbait irakurleren eskutik jasotako argazkiak. Enaitz Ezpeletak Elgeta eta Kanpanzar arteko errepidearen egoeraren berri ematen zuten argazkiak bidali zituen barikuan, hilak 6. Eta Nerea Villak Asentzion eta Elgeta inguruko basoetan naturari ateratakoak, otsailaren 5ean eta 9an. Gustura jasotzen dira horrelakoak, eta, jakina, ongietorriak dira beti.



L.Z.

# GOIENA banatzen, leran

Gauza jakina da elurteak askotariko egoerak eragiten dituela, eta aurreko astean karrotxoa barik lera erabili zuen Goienak Elgetarako duen banatzaile berriak, Amagoia Irazabalek. Argazki polita, inondik ere, baina lan gogorra GOIENA eta *Puntua* astekariak banatzen dituen Irazabalendako.

LEINTZ GATZAGA

# Biharko (zapatua) bazkaria antolatu dute Soranen

## Eskolako neska-mutikoek plazan dantza ikuskizuna egingo dute, martitzen goizean

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Eguerditik gauera arteko jaia antolatu dute Aratuste-zapaturako Soran jauregian. "Orain arte afaria izan da, baina ume asko egoten da eta haiek ez dira gauez ibiltzen; hala, gurasoetako bat bakarrik etor zitekeen; hori dela eta, aurten bazkaria antolatu dugu, 14:00etan", esan du Montse Valeriok, Soran jauregiko ugazabak. Nagusiendako menua –17 euro– eta umeendakoa –10 euro, biendakoak antolatu dituzte –izen-ematea bertan. Valeriok iragarri du bazkalosterako dantzaldia izango dela bertan.

### Umeak, martitzenean

Eskolako umeek, berriz, dantza saioa egingo dute martitzenean, 11:30ean, plazan. Charles Chaplin *Charlot* aktorea aukeratu dute mozorrotzeko, eta hark egiten zituenak moduko dantza pare bat egingo dituzte.

### Hezkuntza eskaintza: 0-6

Bestalde, eskola kontuekin segituz, alkateak zehaztu du herrian bermatuta dagoela 0-6 urte arteko eskaintza; eta orain Jaurlaritzatik ezezkoa jaso arren, 6tik 12 urtera bitartekoa lortzeko ez dutela "esperantzarik galdu". Gainera, Hezkuntzako ordezkariak Gatzagara joatekoak dira, zaintza eta jantoki zerbitzuei buruz berba egitera.

LEINTZ GATZAGA

# Martin Mendizabalek gaur (egubakoitza) egingo du hitzaldia

Joan den astean atzeratutako berbaldia gaur egingo du Martin Mendizabal frantziskotarrak, 18:30ean, kultura etxean. Hiru gairen gainean jardungo du: 1548ko Leintz Gatzagako Udalaren erabakiak eta haiek gaur egunean izandako eragina; Dorletaren jatorria eta baserrien izenak.

# KIROLA

**Aitor Alcaide eta Ekaitz Mendizabal** | Arrasate Arlutz Xake Taldeko ordezkariak

# "Xakeak adimentsuago egiten gaitu, baina xakean jokatzeko bakarrik"

- Aretxabaletako eta Arrasateko klubak batu zituzten maila gorenean lehiatzen jarraitzeko
- Egun lau talde dituzte guztira, eta hirugarren mailakoa harrobiko gazteekin osatu dute

XABIER URZELAI | ARRASATE

Badira urte batzuk Debagoieneko xake talde nagusienak batu zirela, Arrasate San Andres eta Arlutz. Horri esker, klubeko talde nagusiak Euskal Herriko maila gorenean jarraitzen du lehian, eta aurten ere kategoriari eusteko bidean daude. Gainontzeko hiru taldeak, ostera, Gipuzkoako kategoriatan dabiltza, eta hirugarren mailan jokatzen dabilena azpimarratu gura izan dute Aitor Alcaidek eta Ekaitz Mendizabalek: "Gure harrobiko xakelari gazteak dabiltzalako bertan, eta mailaz igotzeko aukerekin, gainera".

**Zer moduz joan da asteburua?**

Ekaitz Mendizabal: Gu ez gara oso ondo ibili [Gipuzkoako preferentean], Donostiako Gros taldearen kontra 3-1 galdu genuelako. Ez genuen halako aldeaz galtzerik espero.

Aitor Alcaide: Guk, berriz, 2-2 berdindu genuen Gasteizko San Viatorren kontra.



Ekaitz Mendizabal eta Aitor Alcaide, aste barruan Arrasaten. | XABI URZELAI

**Dagoeneko liga erdia jokatu duzue, zer moduz doa denboraldia?**

Mendizabal: Gu nahiko kaskar ari gara eta kategoriari eusteko gogor borrokatu beharko dugu, baina lortuko dugula uste dut.

Alcaide: Gu hirugarren gaude sailkapenean, baina ez da erreala, hainbat taldek atzeratutako partidak dituztelako. Uste dut partida horiek guztiak jokatzen dituztenean laugarren edo bosgarren egongo garela.

**Talde nagusiaren erronka hori da, maila gorenean [Ohorezko mailan] jarraitu ahal izatea, Euskal Herriko xakelari onenekin lehian. Aurten ere lortuko duzue?**

Alcaide: Bai, orain artekoak ikusita mailari eutsiko diogu. Kategoria zorrotza da, klub batzuetako xakelariak profesionalak dira, baina guk ere maila oneko jendea dugu.

**Ez da erraza kategoria bakoitzean laukotea mantentzea.**

Mendizabal: Alde horretatik nahiko meritu dugu, herri gutxi daudelako halako ordezkaritzarekin, guztira lau talderekin. Grosek –Donostian– eta Hondarribiak, ez dut uste beste herririk dagoenik.

**Eta azpimarratzekoa, gazteekin hirugarren mailan lehian dabilen taldea sortu duzuela.**

Alcaide: Bai. Xakeko eskolak ematen ditugu gazteen artean, xakea irakasten ahalegintzen gara, eta izena eman zuten gazteen artean, eta euren gurasoen laguntzarekin, talde polita osatu dute. Gaur egun euren kategorian lehenengo postuan daude, eta esango nuke matematikoki liga irabazita daukatela.

**Urtetan Arrasatek talde propioa izan du, eta baita Aretxabaletak ere. Zer dela-eta bateratze hori?**

Alcaide: Maila gorenean lehiatzeko ez da erraza laukote bat osatzea. Eta Aretxabaletan hutsune bat behar den moduan betetzeko zailtasunekin ibiltzen ginen. Eta, Arrasatekoendako ere interesgarria zen indarrak batzea, eta gauza naturala izan zen, lehenagotik ere harreman oso ona geneukalako.

**Egongo zen *pike*-ren bat...**

Alcaide: Bai, bai [Barre] baina harreman ona genuen, pike sanoa. Esaterako, Aretxabaletakook Arrasateko klubeko bazkide ginen, hori ez da oso ohikoa...

**Adibidea futbolera ekarrita, ez dut ikusten Mondrako zale bat UDAko bazkide, edo alderantziz...**

Mendizabal: [Barre] Gu lehenagotik ere lagunak ginen, eta azkenean beharrak bultzatuta batu ginen.

Alcaide: Klub moduan oraindik bakoitzak bere egoitza du, baina bateratze hori ez zen lehenengo taldean bakarrik gertatu, kategoria guztietako taldeak batu genituen, eta jendea oso gustura dabil, oso harreman ona dago.

**Eskubaloiko edo pilotako entrenatzaileei entzun izan diet, bi adibide esatearren, oso zaila dela gazteak euren kirol jarduerara erakartzea, futbolean egin gura dutelako denek. Eta nik diot, gazteak xakera erakarri gura dituenak zer esango du...**

Alcaide: Ez dut uste guk xakera erakartzen ditugunik, xakean egin gura duena etortzen da gurera, berak du aurrez interesa, etxean gurasoak ikusi dituelako xakean... Baina bai, tamalez, futbolean hasten direnean gehienek xakea baztertu egiten dute, %80ak gutxi gorabehera.

**Zaila izango da xakea kirol erakargarri egitea, besteak beste, komunikabidetan ere oihartzun txikia duenean. Eta hori, garai batean xakeak indar handia izan zuela.**

Alcaide: Bai, oraindik ere Errusian, Georgian, Ukrainian... Halako herrialdetan zaletasun handia dago. Eta ez pentsa, atzetik ere badatoz xakelari gazteak, jarraitzaile askorekin. Orain momentuan Carlsen [Magnus] da jokalaririk entzutetsuenetako bat, eta G-Star arropa markako ordezkaria da. Nik duela 10 urte ez nuen Karpov halakoetan imajinatuko. Uste dut poliki-poliki xakea badatorrela ostera ere gorantz.

Mendizabal: Nik uste dut sasoi guztietan egon direla xakelari oso onak, baina xakea beti izan dela gutxiengoen kirola, besteak beste, kirol hori jarraitzeko ulertu egin behar delako. Ez du sekulako dirutzarik mugitzen, eta seguruenik ez da izango saltzeko ere kirolik errazena.

**Zer dauka, bada, xakeak?**

Mendizabal: Ez dakit erantzuten. Hasteko, taula bera eta piezak erakargarriak dira. Eta jokatzen hasten zarenean xakeak harrapatu egiten zaitu. Ez da monotonoa, jokaldiek ez dute mugarik, partida guztiak dira ezberdinak, eta bakoitzak bere estiloa landu dezake. Batzuk defentsiboak izango dira, beste batzuk ausartagoak...

**Norberaren izaera islatzen da xakean jokatzeko moduan?**

Mendizabal: Bai, nik baietz esango nuke.

Alcaide: Baliteke, baina nik kontrako kasuak ere ezagutzen ditut, pertsona oso lasaiak direnak, baina xakean hasten direnean *hiltzaile* hutsak direnak.

**Eta, xakean aurrera egiteko ezinbestekoa da liburu artean murgiltzea? Hau da, ikastea?**

Mendizabal: Ez, ez da derrigorrezkoa. Duda barik, jokaldiak eta halakoak ikasteak lagundu egiten du, baina ez da derrigorra.

**Sarri lotu izan da xakea adimena garatzeko kirol apropos moduan.**

Alcaide: Aspaldi galdetu zioten mundu mailako puntako xakelari bati, ea xakeak adimentsuago egiten zuen jendea. Eta zera erantzun zuen: "Bai, baina xakean jokatzeko bakarrik [Barre]".

**"Ohorezko mailan lehiakor izaten jarraitzeko erabaki genuen batzea"**

**"Carlsen G-Star arropa markako irudia da, lehen ez nuke imajinatuko"**

**"Xakean jokatzeko moduak ez du beti norberaren izaera erakusten"**



Oñatin egindako aurreko Urrezko Aizkorako finalerdia Zubikoan izan zen. | GOIENA

# Urrezko Aizkorako finalerdia jokatuko dute etzi Oñatin

## Olasagasti min hartuta dago, eta Mikel Larrañagak ordezkatuko du

**XABIER URZELAI** | ARRASATE

Domekan, hilak 15, Urrezko Aizkorako finalerdia jokatuko dute Oñatin, 12:00etan: "Eguraldiak laguntzen badu plazan izango da ikuskizuna, eta, bestela, Zubikoan egingo dugu", adierazi dute antolatzaileek. Hala, aizkolarien arteko lehian aldaketak izan badira ere –Olasagasti lesionatuta dago, eta Mikel Larrañagak beteko du Igeldokoaren lekua–, lehia handia izango da.

Hala, batetik izango dira Ugaitz Mugartza eta Aitzol Atutxa eta aurrez aurre izango dituzte Felix Etxeberria eta Mikel Larrañaga.

### Mugartza eta Atutxa faborito

Antolatzaile lanetan dabilen Angel Villaren ustez, lehia polita izango da, baina Mugartza eta Atutxa dira faborito: "Atutxa oso momentu onean dago, iaz Euskal Herriko txapeldun izan zen eta oso maila ona du. Bere bikotekide Mugartzak ez du horrenbesteko indarrik, baina oso bizia da".

Beste aldean, ikusteko dago Larrañagak zelan betetzen duen Olasagastiren hutsunea: "Olasagastik badu zerbait berezia, ez dago zalantzarik, eta Larrañagarekin bikote ona egiten zuen, iazkoa baino orekatuagoa. Baina Larrañaga Gipuzkoako txapelduna da, sasoian dago eta maila ona erakutsi du orain arte".

Oñatikoa finalerdietako bat izango da –sarrera doakoa da– eta onenek martxoaren 8an Azpeitiko Izarraitzen jokatuko duten finalerako txartela eskuratuko dute: "Eskerrak eman behar dizkiegu babesleei, eurei esker antolatu ahal izan dugulako hitzordu hau".

### Tartean, harri-jasotzaileak

Aizkolariekin batera, baina, harri -jasotzaileek ere ikuskizuna emango dute domekan. Izan ere, aizkolarien lehiako hutsarteak Idoia Etxeberriak eta Eizmendik beteko dituzte harriak jasotzen.

**ESANAK**

**"Olasagastiren hutsunea ondo beteko du Larrañagak"**

ANGEL VILLA | ANTOLATZAILEA

# Ibarreko hainbat pilotu daude iazko azkarrenen artean

**X.U.** | ARRASATE

Joan den zapatuan banatu zituzten, Durangon, Euskadiko Automobilismo Federazioaren eskutik 2014ko pilotu azkarrenen sariak, eta, azken urteotan moduan, tartean egon ziren bailarako hainbat pilotu.

Hala, pilotu nabarmenen artean, mendiko saria Aitor Zabaletarendako izan zen, Joseba Iraolaren aurretik; turismoetan, Markel Cestafe nabarmendu zen, Aitor Ramirez oñatiarraren eta Jose Inazio Erdoizaren aurretik; eta formula libre kategorian, Ander Corcuera izan zen onena, Josetxo Duperouren eta Intsaustiren aurretik.

Bailarako pilotu onenen zerrenda ez da, baina, hor amaitzen. Izan ere, kategoria guztiei erreparatuz gero, Eskoriatzako Aitor Frutos pilotua izan zen 2 klasean onena eta 6 klasean, berriz, Aitor Ramirez gailendu zen.

### Gipuzkoakoan ere aurrean

Euskadikoak banatu aurretik, abenduaren 31n banatu zituzten Gipuzkoako pilotu onenen sariak; hala, zapatuan Durangora joan ziren protagonistak lehenagotik ere eskuak sariekin beteta zituzten, Gipuzkoakoan ere nabarmendu ziren-eta. Joseba Frutosek, gainera, rallyetan bigarren sailkatuaren saria jaso zuen.

Durangoko ekitaldiak Euskadiko pilotu onenak batzeaz batera hastera doan denboraldi berrira begira motorrak berotzen hasteko balio izan zuen: martxoaren 1ean Gabirian hasiko da ikuskizuna.



Saridun guztiak talde argazkian Durangon. | EDUARDO MATURANA

# Talde gaztean, esperientzia izango da Aristiren ekarpena

**X.U.** | ARRASATE

Fundacion Euskadi-EDP taldeak dagoeneko aurkeztu du 2015era begira izango duen proiektua, eta Mikel Aristi bergararra bertan izango da. Guztira, hemeretzi txirrindulari izango dituzte, eta talde nagusia eliteko 23 urtez azpikoen mailan lehiatuko da. Hala, nahiz eta bergararra adinez oraindik kategoria horretakoa den, esperientzia polita batu du lasterketa handiagoetan, eta hori oso baliagarria izango da taldean.

Ikusteko dago zein izango den taldearen egutegi osoa, baina Espainiako Kopan lehiatzeaz batera beste lasterketa hauetan ere egongo dira: Alenteixoko itzulia, Volta do Futuro –Portugalen–, Essor Basque, Ronde de L'Isard, Jurako Tourra eta Tour des Pays de Savoye –Frantzian–, eta Aristi eta konpainia hor ahaleginduko dira itxura ona ematen; hain zuzen, Madariaga presidenteak aurkezpenean eskatu ziena egiten: "Babesleek eta bazkideek egiten duten esfortzua kontuan hartzeko eskatu diet ziklistei, eta ondo egin dezatela lan".


Mikel Aristi. | FUNDACIONEUSKADI.COM

### Euskalteleko hainbat lagun

Hain zuzen, Euskaltelen jardundako hainbat lagun izango dira taldea zuzentzen: Gorka Gerrikagoitia izango da zuzendaria eta kirol arloa Jorge Azantzaren esku egongo da.

# Gaztetxoen begiradapean entrenatu zen Alaves

Alaves futbol taldeak Aretxabaletako Ibarran egin zuen martitzeneko entrenamendu saioa, elurragatik zuritutako futbol zelaietatik ihesi. Hala, gasteiztarrek Aretxabaletaren instalazioak erabili zituzten Bartzelonaren kontrako partidua prestatzeko. Gaztetxo kuadrilla politaren babesa ere izan zuten.


ARANTZAZU EZKIBEL

# Euskadiko Ligako hockey partiduak ikusteko aukera bihar Labegaraietan

Hanka Labanka taldeak Gasteizko Sumendiren aurka jokatuko du norgehiagoka, 12:30ean hasita

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Bailaran ohikoa ez den kirol batez gozatzeko aukera egongo da Bergarako Labegaraieta kiroldegian bihar, zapatua. Euskadi mailako hockey partiduak jokatuko dituzte; hain zuzen, Euskadiko Liga izango da, hirugarren ekitaldia.

Bergarako Hanka Labanka taldeak Euskadiko txapelketan parte hartzen dihardu. Bihar, 12:30ean izango dute partidua Gasteizko CD Sumendiren aurka. "Partidu zaila izango da, Sumendik maila handia dauka-eta", azaldu dute Hanka Labankako kideek. Erronka "gol gutxi" jasotzea izango dute.

## Maila handiko taldeak

Lehenengo lehia amaitutakoan, Metropolitano eta Dragons taldeen txanda izango da. Oso partidu interesgarria izango da. Metropolitano talde indartsua da eta gauzak zail jarriko dizkio Dragonsi. Gainera, azken horiek izan duten bilakaera ikusteko unea izango da biharko partidua. 13:45ean izango da.

16:00etan, Metropolitanok eta Sumendik jokatuko dute lehia. Lehenengo postua erabakitzeko lehia izango da. Aurreko jardunaldian, Metropolitanok irabazi egin zion Sumendiri; hala, gasteiztarrek lau goleko aldearekin irabazi beharko dute lehenengo postua eskuratu nahi badute.

## Hanka Labankako gazteak

Ligaxkako partiduak amaitu ondoren, Hanka Labankako gazteek –12 urtetik beherakoak– lagunartekoak jokatuko dituzte.

Jardunaldia amaitzeko, Kazkabarra elkarteko izotz hockeyko neskek eta Hanka Labankako neskek Hanka Labankako mutil gazteen aurka jokatuko dute. Azkenekoan, gazteek galdu zuten.

# Elgoibarko krosa irabaztea du helburu Aloña Mendik



Aloña Mendiko Sergio Gartzia eta Yerai Varela. | ALOÑA MENDI

A.E. | OÑATI

Aloña Mendiko atletak Elgoibarko krosean izango dira domekan. Taldearen helburua distantzia luzeko krosean –11 kilometro– Espainiako txapelketa jokatzeko gutxieneko denbora egitea izango da. Yerai Varelak azaldu du asmoa taldeka "krosa irabaztea" izango dela. Aloña Mendik dagoeneko lortu du distantzia motzeko –4 kilometro– gutxieneko denbora Espainiako txapelketa jokatzeko –Azpeitian–. Espainiako txapelketak Caceresen izango dira, martxoaren 1ean.

Bestalde, pista estaliko Euskadiko txapelketan, Sara Gomezek bere marka pertsonala egin zuen: 1.500 metro 4.58.66. Martxoaren 7an Valentzian jokatuko den Espainiako txapelketarako sailkatu da Gomez.

**Iker Barbero** | MUko jokalaria

# "Izendapenaren atzean lan handia dago, partiduetan eta entrenamenduetan"

Iker Barbero arrasatearra izendatu zuten aste bukaerako MVP jokalari 14. jardunaldian

A.E. | ARRASATE

Valladolideko Unibertsitatearen aurkako lehia galdu arren, aste bukaerako jokalari baloratuena (MVP) izendatu zuten Iker Barbero. EBA mailan lehenengo izendapena izan dela dio, eta azkena ez izatea espero du.



Iker Barbero jokoan. | GOIENA

**Zorionak! Gustura zaude jasotako aipamenarekin?**

Eskerrik asko! Oso pozik nago, sari honen atzean lan handia dagoelako; ez bakarrik partiduan, baita entrenamenduetan ere. Hala ere, poza ez zen erabatekoa izan; izan ere, galdu egin genuen.

**Nolako partidua izan zen?**

Aurten, talde guztiak fisikoki indartsuak dira; batez ere, jokalari altuak dituztelako. Gu talde nahiko txikia gara, eta, alde horretatik, pibotok lan handia eta gogorra izaten dugu astero. Partidu hura ez zen salbuespena izan. Gure jokatzeko modua betidanik kanpotik jokatzea izan da; kasu honetan, hiruko portzentaje txikia eduki genuen. Gainera, lau bat jaurtiketatan zorte handia izan zuten. Defentsa ona egin ostean horrelako saskiratzeak jasotzeak min handia egiten du.

**Zer uste duzu baloratu zutela izendapen hori ematerakoan?**

Izendapen hori emateko estatistikak begiratzen dituzte. Nabarmendu beharra da ez direla askok uste duten moduan lortutako puntuak bakarrik kontuan hartzen. Beste alderdi asko ere hartzen dituzte kontuan. Horien artean, defentsarekin lotuta dutenak hartzen dituzte kontuan.

**Aurrera begira lanean jarraitzeko animoak ematen ditu?**

Horrelako sariek animatu egiten dute; lehen esan dudan moduan, atzean dagoen lanaren goraipamena direlako.

**Lehenengo aldia da horrelako izendapen bat ematen dizutena?**

EBA mailan bai, eta espero dut azkena ez izatea. Hala ere, 2009ko Arrasateko Gabonetako txapelketan MVP jokalariaren eta saskiratzaile onenaren sariak eman zizkidaten.

Aratusteak 2015
Bergaran
Ondo ondo pasau!







Azpeitxi • Etxagi • Irish Pub Galways • Bule • Euxebio II
Toki Ona Bodegoia • Usoa • Ariznoa • Pol Pol


Antzuolako Mikel Zabala, Real Unionen aurkako lehian. | GOIENA

# Aste bukaerako futbol partiduak bertan behera utzi dituzte

Espainiako Gobernuak hartu gura dituen neurrien aurkako protesta da

**ARANTZAZU EZKIBEL** | ARRASATE

Euskadiko Futbol Federazioko zuzendaritza batzordeak erabaki du bere txapelketa guztiak bertan behera uztea –baita Espainiako Federazioak eskuordetzen dituenak ere–. Hori kontuan hartuta, aste bukaera honetan ez da futbol partidurik izango bailaran.

Erabaki hori Espainiako Gobernuak hartu gura dituen neurri batzuen aurka protesta egiteko modua da. "Oinarrizko futbolaren eta futbol amateurraren aldeko neurria da", azaldu du federazioak ohar bidez.

### Langile guztiek kotizatu

Txapelketa bertan behera uzteko arrazoietako bat hau da: Kirol Kontseilu Gorenak eta Enplegua eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak egindako azterketa baten arabera erabaki dute kluben jarduerarekin lotura duten pertsona guztiek kontratua izan behar dutela eta Gizarte Segurantzara kotizatu. Horren arabera, monitoreak, entrenatzaileak, futbolariak... horiek guztiek kotizatu egin beharko lukete. "Erregulazio propio eta berezia garatzea eskatzen dugu, kirol ez profesionalarendako", dio oharrak. "Elkarte txikietan zaila izaten da jendea aurkitzea, beti berdinak gabiltza lanean. Hala, guri laguntzen ibiltzen direnei deklarazioa egin behar dutela esaten badiegu, ba, jendea ez da animatuko lanean jarraitzera", azaldu du Ramon Azkaratek, Mondrako zuzendaritzako eta Gipuzkoako eta Euskal federazioetako kideak.

Horrelako neurriekin oinarrizko futbolean lanean diharduten elkarte asko desagertu egingo liratekeela uste du Azkaratek.

### Kinielen dirua

Greba egiteko beste arrazoi bat kinielen diruari dagokiona da. "Kinielen dirua banatzeko orduan, futbol profesionalaren eta ez profesionalaren artean dagoen bereizketa handia da", dio oharrak. Azkaratek azaldu du orain arte kinielen %1 jasotzen zutela: "Federazioak banatzen du diru hori eta elkarte askorendako diru laguntza handia da. Estadioak, berdegunea, argiteria... konpondu izan da diru horrekin". Diru laguntza hori ere kendu nahi dutelako protesta egingo dute.

Bestalde, txapelketa profesionaletako ikus-entzunezko eskubideen diru banaketa ere ez da justua, federazioaren ustez; eta, gainera, Espainiako Federazioak ezarri gura dituen hainbat arau atzera bota gura ditu Kirol Kontseilu Gorenak. Horregatik guztiagatik ere egingo dute protesta.

Esan bezala, aste bukaera honetako lehiak ez dituzte jokatuko –22. jardunaldia–. Hala ere, aurreko astean elurragatik atzeratutako batzuek egubakoitzean joka dezakete.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKAL LIGA**
**Eskoriatza-Elorrioko**
Egubakoitza.20:30. Manuel Muñoz kiroldegia.

**BIGARREN MAILA**
**Mondrate-Gamon Aker**
Zapatua.17:15. Musakola.

**GAZTE MAILA**
**Mondrate**
Atsedena.

**ESKUBALOIA**

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
**Urdaneta-Ford Mugarri**
Zapatua. 20:00. Urdaneta.

**EUSKADIKO TXAPELKETA, GIZONEKZOAK**
**Bergara-Bidasoa Irun**
Zapatua. 19:30. Labegaraieta.

**EUSKADIKO TXAPELKETA, EMAKUMEZKOAK**
**Aloña Mendi**
Atsedena.

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**
**Izarraitz Aloña**
Atsedena.

**SASKIBALOIA**

**EBA MAILA**
**Mikeldi-MU**
Zapatua. 19:20. Bizkaia.

**SENIOR GIZONEZKOAK**
**Natra Oñati-Jarrilleros**
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

**EMAKUMEZKO SENIORRAK**
**Eskoriatza**
Atsedena.

**SENIOR GIZONEZKO 2. MAILA**
**MU-Oiarso**
Egubakoitza. 20:00. Musakola.
**Soraluze Bergara-Erroibide**
Egubakoitza. 20:00. Labegaraieta.

**HOCKEY**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
**Hanka labanka- Sumendi**
Zapatua. 12:30. Labegaraieta

**PILOTA**

**ARETXABALETA**
**Egubakoitza, 20:00etan**
Aretxabaleta-Tolosa (infantilak).

**ARRASATE**
**Egubakoitzean, 20:15ean**
Arrasate-Tolosa

**HERRI PROBAK**

**URREZKO AIZKORAKO FINALERDIAK**
**Domekan, 12:00etan Oñatin.**

*OHARRA: ARATUSTEAK DIRELA-ETA, TALDE ASKOK ATSEDENA IZANGO DUTE ASTEBURUAN. ETA FUTBOLEAN, GREBA DELA-ETA EZ DA PARTIDURIK IZANGO.


Elorrioko taldea hartuko du Eskoriatzak. | IMANOL SORIANO

## MUk Centro de Estudios Mikeldiren aurka jokatuko du

EBA mailako taldeak zapatuan jokatuko du Centro de Estudios Mikeldiren aurka, 19:20an, Mikeldiren kantxan. Bizkaitarrak sailkapeneko azkeneko tokian daude, baina, hala ere, arrasatearrek argi dute ez direla fidatu behar. "Talde fisikoa da, eta horrek esan nahi du korrika asko egin beharko dugula", dio Iker Barbero jokalariak. Sailkapena nahiko estu dago EBA mailako A taldean; horregatik, partidu bakoitza hil edo bizikoa izango da arrasatearrentzat. "Oso partidu gogorra eta polita izango dela uste dut", dio Barberok biharko lehia dela eta.

## Bergarak Bidasoa Irun liderra hartuko du etxean bihar, 19:30ean

Labegaraietako kiroldegian jokatuko du Bergarak bihar, zapatua, Bidasoa Irunen aurka. Partidua 19:30ean izango da. Bergara sailkapeneko 8. tokian dago 15 punturekin; eta Bidasoa Irun liderra da. Irundarrek 29 puntu dituzte. Partidu polita izango da Labegaraietakoa. Bestalde, Ford Mugarrik etxetik kanpo jokatu beharko du. Zapatuan Urdanetaren aurka lehiatuko dira arrasatearrak, 20:00etan, Urdaneta kiroldegian. Arrasateko taldea sailkapeneko bosgarren tokian dago, 27 punturekin; Urdaneta, aldiz, azkeneko tokian dago, lau punturekin.

## Debagoieneko Lanbide Heziketako esperientziak ezagutuz

GOIAZ! Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

**GOIAZ! 2015**
*Lanbide Heziketaren Azoka*
Apirilaren 15ean eta 16an;
Kulturaten, Arrasaten.

Prestakuntza arloko eskaintza
Enplegu zerbitzuak
Ekintzaileentzat zerbitzuak
Tailerrak eta hitzaldiak
Aparatuak eta esperimentuak

www.facebook.com/goiazdebagoiena
www.twitter.com/goiazdebagoiena

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
Gipuzkoako Foru Aldundia
Gipuzkoa ekintzailea

**Danel Gereta oñatiarra, Mekanizazioko erdi mailako zikloa ikasten ari da. bigarren maila egiten dabil, eta bi aste barru praktiketara joango da enpresaren batera. Horretaz gain, goi mailako zikloa egiteko sarbide proba prestatzen ari da, ondoren ikasten jarraitzeko.**

**Zergatik aukeratu zenuen Lanbide Heziketa?**
Betidanik gustatu izan zait tailerreko lana. Garbi neukan, batxilergoa egin arren, Mekanizatuko goi-maila egingo nuela. Orduan, erdi mailako zikloan hastea gomendatu zidaten, horrela goi mailara heldutakoan oinarri bat izateko.

**Nola ezagutu zenuen Lanbide Heziketa?**
Zuazola-Larrañan ikasi dudanez, ezagutzen nituen hemengo eskaintza eta instalazioak. Gainera, irakasle batzuk bi ikastetxeetan egoten dira, eta ezagunak ziren.

**Zer azpimarratuko zenuke Lanbide Heziketatik?**
Gehien gustatzen zaidana tailerrean ibiltzea da, eta hemen egunero joaten gara makinetara. Ez da eskolan bezala.

**Eta orain, bigarren maila egiteaz gain, goi mailako sarbide proba ari zara prestatzen, ezta?**
Bai. Euskara eta Matematika ikasgaiak lantzen ari gara arratsaldez.

**Eta sarbide proba gainditu ondoren, zer ikasiko duzu?**
Goi mailako mekanizazio zikloa, Miguel Altunan edo Goi Eskola Politeknikoan.



*"Gehien gustatzen zaidana tailerra da eta hemen egunero ibiltzen gara"*

**Ez zara oraindik lanera begira egongo, ezta?**
Ez, garbi daukat ikasten jarraitu nahi dudala, baina agian praktikak egiten ditudan enpresan udan geratzeko aukera izan dezaket.

**Gomendatuko zenioke lagun edo ezagunen bati Lanbide Heziketa?**
Bai, Lanbide Heziketako goi maila egin nahi duten lagunei gomendatuko nieke, erdi mailako zikloa egitea, batxilergoaren ordez. Horrela, goi mailarako ezagutza batzuk hartzeko.

# KULTURA

# Poetari, gorputzari eta maitaleei idatzitako gutunak, saridunak

- Jardunen 23. Amodiozko Gutunen Lehiaketak orain arteko parte hartze handiena izan du
- Sari banaketa gaur izango da, egubakoitza, Bergarako kultura etxean, 19:00etan

A. ARANBURUZABALA | BERGARA

Nafarroara joango dira gaur, egubakoitza, banatuko dituzten Jardunen Amodiozko Gutunen 23. Lehiaketako bi sari nagusiak: Josune de Goñik eta Fernando Anbustegik idatzitako lanak izan dira, hurrenez hurren, aurtengo edizioko onenak. Maite Toledo idazleak, Hesian taldeko Fran Urias abeslariak, Urko Egaña bertsolariak eta Amaia Artola iazko lehiaketako irabazleak hartutako erabakia da hori; laurek osatu dute aurten epaimahai nagusia. "Gustura jardun dut lan horretan, eta nahiko erraz iritsi gara adostasunera. Bi txandatan banatu zizkiguten gutunak. Lehenengo irakurketan gure iritziz hamar onenak zirenak aukeratu genituen. Gero, lehiaketako koordinatzaileak, Maitane Arizabaletak, beste epaimahaikideek aukeratutako gutunen berri eman zigun. Berrirakurketa prozesu bat hasi genuen hor. Dena dela, saritutako gutunak hasieratik nabarmendu ziren", esan du Maite Toledok, eta zera gaineratu du: "Erromantikoa naiz oso, eta pertsonon arteko harremanak ditut gustuko. Lotsak albo batera laga, eta sarriago idatzi beharko genioke maite dugun horri. Amodio eta desamodio kontuek, maiteminak, sexuak eta biolin doinuek hunkitu naute, batik bat. Nire aukeraketak bide horretatik joan dira. Eta noski, testuingurua, erretorika eta idazkera literarioa ere kontuan hartu ditut; baita ondo idatzita eta borobilduta egotea ere. Eta, nola ez, amaiera on bat".

Aranzadi Ikastolako Goizane Larrañagari, Irati Sanzi eta Maddi Alberdiri eta Ipintza Institutuko Monika Alberdiri eta Helene Baztarrikari egokitu zaie 26 urtez azpikoen gutunak irakurri eta horien gaineko iritziak ematea. Irabazlea aukeratzeko orduan euren artean eztabaida izan zutela diote; azkenean, baina, saria Ikaztegietako Leire Urretabizkaiari ematea adostu zuten.

Hiru sari horiez gainera, bergarar onenaren saria ere banatuko dute: Maddi Elortzak jasoko du, bere gorputzari idatzitako eskutitzarengatik.



Epaimahaiko Fran Urias eta Maite Toledo eta Jarduneko Miguel Angel Elkoroberezibar eta Maitane Arizabaleta. | JARDUN

## Aurtengo Amodiozko Lehiaketako gutun irabazlea

*Poetari:*

*Zuregana doaz nire kresal-hitzak, mendeetan zehar, denbora arnas hartze bat balitz bezala. Ez ditut musen izenak aipatuko, ez amodioaren itzalak. Begiak itxiko ditut eta ametsaren ezpainetan ahaztuko dut nire gorputza, zure ahots guztiak, bion artean igaro diren gauak.*

*Gogoan ditut zure eskuen laztanak, arrosa zimelen hostoak ernaberritzen zituzten eskuak. Gogoan dut zure urratsen erritmo barea, betiletan zeneraman harearen kolorea. Gogoan ditut ekaitzak, malkoak, zure larruazalaren ilunabarrak.*

*Adatsa biltzerakoan izotzak ezagutzen ez duen zuritasuna desestaltzen zenuen, eta nik zure lepoan urperatu nahiko nituzke esan beharreko guztiak, poesiaren belaontzi galduak. Aparrez jantziko banintz, hesitzen nauen azalaren ordez ezkatak banitu, agian orduan izango ginateke itsaso.*

*Ez dakit tarteen jostura orainetik desegiten ote den, edo iraganeko kantuek gorputzen arteko zubiak eraikitzen dituzten, zuregana heltzeko antzinateko jainkosei otoitz egin behar diedan, hitzezko ontziren batek eramango nauen gurea izan zen irla hartara. Inoiz ez diot zure ilargiari poemarik idatzi; zorigaitz gehiegi ikusi du nireak elkarri agur esan zeniotenetik. Guda gehiegi. Hildako seme gehiegi.*

*Baina gogoan dut Mitileneko emakumeen ahotsa, begietan zeramaten sua. Kaioen itzalak itsasoari zainak marrazten zizkion, urak bihotza balu bezala, arrainen taupada badiarena bailitz. Eta han zeunden, zeruertzean infinitua bilatzen, haizearen xuxurlan amodioa izendatzeko moduak eta olatuen azpian bion gorputza.*

*Gogoan zaitut, Safo. Gogoan dut brontzezko ispiluek sorgintzen zuten begirada hura, Lesboseko harresien arrailak. Nire ahotsa ez da jainkosaren hatsa, nire hitza ez da zurea, baina goizaldeak dakarren lore-begia zure itsasoan erein nahiko nuke, gure gorputzen arteko mende luze hauetan.*

*Bihotzez ala kresalez,*

*Nerea*

**Josune de Goñi Garzia**

### Ohiko gaiak eta originalak

Amodioa, desamodioa, maitemina, traizioa, maitasuna, gorrotoa, atxikimendua, nartzisismoa, dolua, gorrotoa, eskatologia, eskertzea… askotariko gaiak eta hartzaileak daude aurten jasotako gutunetan. "Alabaina, amodio kontuei lotutako gai bat gutxi aipatzen da: sexua", dio Maite Toledo epaimahaikideak.

Gutunetako hartzaileetan ere aukera zabala dagoela gaineratu du Toledok: "Zenbait gutun, nahiz eta oso ondo eta euskara maila jazoarekin idatzita egon, gutun-ariketa soilak iruditu zaizkit; izan ere, gaia amodioa izaki, pertsonak ez diren denetariko hartzaileak daude, eta zenbaitetan protagonista zein den jakiteaz bat erori egin zaizkit istorioak. Pertsonen arteko amodio kontuak ditut nik gustuko. Oro har, gatazkak oso ondo garatuta daude, eta amaiera edo itxiera egokia dute".

Maitaleei idatzitako gutun asko jaso dituzte aurten ere: hilda dagoen maitale ezkutuari idatzi dio Gazte saria jaso duen Leire Urretabizkaiak eta bigarren sari nagusia eskuratu duen Fernando Anbustegik, berriz, hirurogei urte elkarrekin daroan bikotearen kontakizuna egin du, itsu dagoen senarrari idazten dion emakumearen paperean sartuta. Baina badira bitxikeriak ere: Goñi irabazleak antzinako Greziako Safo poetari idatzi dio eta Bergarako gutun onena, berriz, idazlearen gorputzari eskainita dago: "Gizarteko edertasun estereotipo perfektuetatik kanpo badago ere, maite dudala adierazi gura izan diot nire gorputzari", azaldu du Maddi Elortzak; hona hemen gutunaren pasarte bat:

*Ene gorputzari:*

*Ezer baino lehen, barka nazazu gaur goizean, egiten zuen hotza kontuan izan gabe, ispiluaren aurrean biluztu izanagatik. Baina, barkamena eskatzen dizudan arren, aitortu behar dizut ez naizela damu. Ez naiz damu, ikusi egin nahi zintudalako, hobeto ezagutzeko, eta horrela, zu maitatu ahal izateko. Ikusteko biluztu zaitut; ezagutzeko biluztu zaitut; maitatzeko biluztu zaitut...*

>

**> Asko eta maila onekoak**
87 gutun jaso dituzte, guztira; horietatik 62 emakumeek idatzitakoak dira. Jatorriari dagokionez, berriz, gehienak gipuzkoarrak dira (65); horien artean daude Debagoieneko hogei lan. Jardun elkarteko Maitane Arizabaletak azaldu du pozik daudela jasotako kopuru eta lanen maila onarengatik: "Azkenengo urteetan egon den igoerarik nabarmenena izan dugu eta ia Euskal Herriko txoko guztietatik jaso ditugu gutunak, nahiz eta oraindik Iparraldeko gutunen hutsunea izan. Nafarroakoen kopuruak nabarmen egin du gora eta oso onak dira, gainera; horren erakusle da bi sari nagusiak lortu dituztela. Debagoieneko lan gehiago jasotzea gustatuko litzaiguke. Parte-hartzaileen adinari dagokionez, batez bestekoa gaztea da, 26 urte".

**Guztiak gonbidatuta**
"Edonor etor daiteke sari banaketa ikustera, eta ongietorria izango da", dio Jarduneko Maitane Arizabaletak; eta zera gaineratu du: "Ekitaldi xume baina polita izaten da. Gaur, Gazte epaimahaikoek egingo dituzte 19:00etan kultura etxean hasiko den ekitaldiko aurkezpen lanak. Herriko musika eskolako hari taldearen laguntzarekin irabazleek euren gutunak irakurriko dituzte eta ondoren luntxa izango da. Beraz, animatu, gustura hartuko zaituztegu-eta".

Laster zilarrezko ezteiak ospatuko ditu lehiaketak. *Berrigara* astekariaren 100. zenbakiaren aitzakian jaio zen; gerora antzerako lehiaketak sortu dituzten arren, Bergarakoa da aitzindaria. Euskaraz idaztea bultzatzea izan du hastapenetatik helburu.


Aurtengo Gazte epaimahaikideak. | JARDUN

**JOSUNE DE GOÑI GARTZIA** | AURTENGO IRABAZLEA

## "Ametsetan bakarrik aurki daitekeen atmosfera sortzea izan dut helburu"


JOSUNE DE GOÑI

Josune de Goñik (Burlata, 1993) eskuratuko du aurten Bergarako Amodiozko Gutunen Lehiaketako saria. Ikaslea da: Filosofiako gradua amaitzen dabil Donostian eta, aldi berean, UNEDen ingeles ikasketak egiten ere badihardu.

**Ezeren aurretik, zorionak!**
Eskerrik asko! Ohore handia da niretzat saria eskuratu izana, eta berria eman zidatenetik oso pozik nago.

**Sorpresaz harrapatu zaitu?**
Sorpresa handia izan da, bai. Aukeratutako gaia eta tratamendua beste edizioetako gutun saridunekin bat ez zetozelako, batik bat; irabazlea naizela jakitea ikaragarria izan da.

**Noiz eta nola idatzi zenuen?**
Bi egun ezberdinetan idatzi nuen, eta bien artean denbora luze samarra igaro zen —hilabete osoa, gutxi gorabehera—. Lehenengoan, ia pentsatu gabe hasi nintzen idazten, azkar, gogoz eta sutsuki. Tarteko denbora hartan irakurketa lana egin nuen; jorratutako gaiari buruzko liburuak bildu nituen eta idazten jarraitu aurretik oso argi nuen zer zen esan behar nuena eta nola esan behar nuen.

**Zer kontatzea izan duzu helburu?**
Gaur egungo emakume batek Greziako Mitileneko Safori idatzitako gutuna da. Hasiera batetik lortu nahi izan dudana ametsetan bakarrik aurki daitekeen atmosfera bat sortzea da, hainbeste mende zeharkatzeko gai diren hitzak eta irudiak erabilita. Kontua XXI. mendeko emakumearen eta poeta grekoaren arteko distantzia ezabatzea da, bakoitzaren *nia* bata bestearen aurrean jarriz desegitea, urtzea.

**"Historiak banantzen dituen bi idazlumaren arteko erlazioaz idatzi dut"**

**Zergatik gai hori?**
Amodioa bikotekide edo familia berekoak diren pertsonen arteko sentimendu bat balitz bezala ulertzen dugula uste dut; hau da, ezagunen artean bakarrik sor daitekeen emozioa. Baina askoz gehiago izan daiteke. Kasu honetan, historiak banantzen dituen bi idazlumen arteko erlazioa da. Horrez gain, oso gustuko dut antzinako Grezia eta emakume idazleen irudiak poemetan erabiltzea.

**Baduzu lehiaketetan parte hartzeko ohiturarik?**
Aspaldiтik ez nintzen lehiaketetara aurkezten, baina hau irabazten dudan laugarrena da. Duela urte batzuk Satarka, Urruzuno eta Egile Berriendako Euskarazko Literatur Lehiaketak irabazi nituen.

**Nola izan zenuen Bergarako lehiaketaren berri?**
Duela hiru urte lehenengo aldiz aurkeztu nintzen, baina ez nuen saria lortu. Euskal Idazleen Elkartearen webgunean izan nuen lehiaketaren berri eta aukera interesgarria iruditu zitzaidan: euskaraz idazteko zaletasuna bultzatu egiten du, genero berezi batean gainera.

**Ez zara sari banaketan izango, kanpora zoaz–eta; hala ere, ez zara sari gabe geratuko. Non inbertituko duzu irabazitakoa?**
Klase–kideekin Marokora noa, graduko azken urtea dela–eta. Oraingoz, ez dut horretan pentsatu, baina bidaian gastatuko dudana berreskuratzeko ongi datorkit. Beti inbertitzen dut dirua betiko bi gauzatan: liburuak eta bidaiak.

# 'Loreak' filmeko taldea sari gabe bueltatu da Goyetatik

## Debagoiena ez da sari gabe geratu, Karra Elejaldek taldeko aktore onenaren Goya saria eskuratu du–eta

**IMANOL GALLEGO** | OÑATI

*Loreak* filmak ez zuen saririk eskuratu; film onenaren eta musikaren Goya sarietarako hautagaia zen. Galako irabazlea *La isla mínima* izan zen: hamar lortu zituen; tartean, film onenarena.



*Loreak* filmeko ekoizleak Goya sarietako *photocall*–ean. | INES BARREDA

**"Bertan egotea" izan da saria**
Moriartikoek *Loreak*-ekin egindako ibilbidea izugarria izan da. "Izendapena saritzat hartu genuen, eta Madrilera disfrutatzera joan ginen", dio Aitor Arregi filmeko ekoizleak.

Argi dago Goyarik irabazi ez arren *Loreak*-ek Moriarti ekoiztexea mapan jarri duela. Antonio Banderasek galan esandako hitzak Moriartikoendako balekoak dira: "Atzera begiratzean egindako ibilbideaz ohartzen naiz, baina aurrera begiratuz gero, bide luzeagoa geratzen zaidala konturatzen naiz".

**Gatzagarraren bigarren Goya**
Debagoieneko ordezkaritza ez zen esku-hutsik bueltatu Madrildik. Karra Elejaldek bere bigarren saria jaso zuen *Ocho apellidos vascos* filmean egindako lanagatik. Saria jaso ostean, lankide izan zituenak eta Emilio Martinez Lazaro zuzendaria izan zituen gogoan. Horiez gain, aitari, osabari eta alabari eskaini zien saria. Bukatzeko, duela hilabete batzuk auto istripu batean hil zen Alex Angulorekin ere gogoratu zen.

**Gala luzeegia**
Dani Rovirak bere lana ongi egin zuen arren, oso gala luzea izan zen. Hasierako saio musikala ongi egon zen arren, hurrengoak ez ziren hain borobilak izan.

Wert ministroak BEZaren inguruko komentario bat edo beste entzun behar izan zituen arren, orokorrean politikak ez zuen protagonismo handirik izan.

# Mikel Laboaren oroitzapena eta elurra, oholtza gainean

**MAIALEN TORRES** | BERGARA

2008an Mikel Laboa hil zenean, elurra ari zuen. Egoerak inspiratuta idazteari ekin zion Bernardo Atxagak, eta orduko lanaren emaitza da *Zazpi aldiz elur* antzezlana. Datorren egubakoitzean, hilaren 20an, izango da ikusgai Bergarako Udal Pilotalekuan, 22:00etan.

Sarrera eskaera handia espero dute antolatzaileek, eta, horregatik, modu berezian jarriko dituzte salgai. Pilotalekuko aulkien lerro bikoitiak Internet bidez eros daitezke dagoeneko, *www.bergara.net* webgunean, otsailaren 18ko 21:00ak arte. Lerro bakoitietarako sarrerak, berriz, kultura etxean erosi beharko dira, 17:30etik 20:30ak arte.

Modu horretan, bi salmentak erabat bereizi nahi izan dituzte, erosketa txandekin gatazkarik egon ez dadin.

Sarrera guztiak saltzen ez badira, emanaldiaren egunean bertan leihatilan izango dira eskuragarri, 21:00etan

Edozein kasutan ere, sarrerak erostean, eserlekuak aukeratu ahal izango dira.

# Pucciniren 'Tosca'-rako sarrerak domekan salgai

**M.T.** | ARRASATE

Martxoaren 28an, 20:30ean, iritsiko da Pucciniren *Tosca* opera Arrasateko Amaia antzokira. Dena den, sarrerak domekan jarriko dituzte salgai, herrian mota horretako emanaldiek sortzen duten ikusmina dela eta.

Maitasuna, misterioa eta heriotza batzen ditu, besteak beste, *Tosca*-k. Ozenki elkartearen eskutik, Amparo Navarro sopranoak emango dio bizitza Tosca protagonistari, baina estatu mailako artista gehiago ere izango dira oholtzan. Horretaz gain, Arizmendi Ikastolako umeek operaren koruak egingo dituzte.

Emanaldia ikustera joateko, 30 eurotan erosi ahal izango dira sarrerak. 23, 24 eta 25 lerroetakoek, berriz, bost euro gutxiagotan eskuratuko dituzte sarrerak.

*Arrasate.eus* eta *Ticket.kutxabank.es* webguneetan jarriko dituzte salgai, baina *ozenkielkartea@hotmail.es* helbidera idatzita edo Amaia antzokiko leihatilan ere lortu ahal izango dira.



Euskadi Brass proiektuaren aurkezpen ekitaldiko emanaldia. | EUSKADI BRASS

# Euskadi Brass, musikari beste ikuspegi batetik begiratzeko aukera

Metalezko instrumentu–jotzaile profesional eta amateurrak elkartuko dira literaturaren bueltan, eta tailerrak, kontzertuak eta erakusketak izango dira

**MAIALEN TORRES** | ARRASATE

Euskadi Brass egitasmoak egun osoko egitaraua prestatu du datorren domekarako. Hilaren 22an, beraz, Arrasate metal instrumentu-jotzaileen elkargune bihurtuko da. "Kultura mailako arlo desberdinekin fusioak egitea" da topaketaren helburua, Alberto Urretxo proiektuaren sortzaileak azaldu duenez, eta, bide batez, "jendeari musika entzuteko ikuspegi desberdin bat" eskaintzea. "Denok izaten dugu elkarrengandik ikasteko aukera", dio Urretxok.

Iaz aurkeztu zuten Euskadi Brass, eta azaroan iritsi zen lehen topaketa, Atarrabian. Orduan, musika eta antzerkia uztartu zituzten. "Esperientzia ederra izan zen", gogoratzen du Urretxok. Oraingoan, ordea, literaturari helduko diote eta hainbat tailer, erakusketa, literatura saio eta kontzertu antolatu dituzte.

### Tailer instrumentala

Eguna hasteko, Arrasate Musikalen hainbat instrumenturekin tailerrak egingo dituzte, eta orkestra munduan dabiltzan "goi mailako jotzaileek" gehienez 30 ikasleri eskolak emango dizkiete.

Perkusioa, tuba, bonbardinoa, tronpa, tronboia edo tronpeta jotzen dakitenek, beraz, aukera bikaina izango dute onenengandik ikasteko. 30 euroren truke, 09:30ean hasi eta 12:00ak arte parte hartu ahal izango da ekintza horretan.

### Edonorentzako tailerrak

Bitartean, Kulturaten, instrumenturik gabeko tailerrak izango dira adin guztietakoentzat, 10:00etatik 11:30era, eta 20 euro ordainduta. 3-5 urtekoek *Txangoa oihanera* gaiarekin eta 6-9 artekoek *Denboraren makina* izenburupean, ipuin bana landuko dute. Txikienen taldean oraindik bada izena emateko tokia. Helduentzat, berriz, *Los colores del viento, los colores de la música* hitzaldia izango da. 16:00etatik 17:30era Kirmen Uribek literatura tailerra eskainiko du.

### Kontzertuak

Goizean umeek euren tailerretan egindakoaren erakustaldia egingo dute, 12:30ean, Euskadi Brass ensenblearekin batera. Ikusle soil izan nahi dutenek, beraz, hori dute gerturatzeko aukera.

19:00etan, berriz, Kirmen Uribek bere hiru liburutako pasarteak irakurriko ditu, Euskadi Brassekin elkarlanean. Urretxok esan bezala, helduen tailerretan jasotakoa praktikan jartzeko tartea izango da hori.

Informazio gehiago eta ordutegi zein prezioen xehetasun guztiak: *www.euskadibrass.com*.

# Igor Sala: "Abestia Jul agurtzeko eta gurekin dela gogoratzeko egin dugu"

The Potes taldeak 'La sombra del banjo' abestia konposatu du, Bolinagaren omenez

**M.T.** | ARRASATE

Jul Bolinagari agur berezia eskaini nahi izan diote The Potesen haren taldekide izandakoek. *La sombra del banjo* abestia kaleratu dute horretarako.

"Agian, egunen batean, berriro gogoratuko dugu, gure alboan sentituko zaitugu, eta gozatuko dugu banjo zaharraz kontzertuetan", dio abestiak, eta, hain zuzen, horixe da The Potes taldekoek nabarmendu nahi izan duten mezua, oraindik eurekin dagoela eta aurrerantzean ere eurekin izango dutela.

Hala baieztatu du, behintzat, Igor Salak, The Potes taldeko soinu-jotzaileak. "Jul agurtzeko eta gurekin dagoela gogoratzeko egin dugu *La sombra del banjo*", azaldu du.



Abestia grabatzen. | IGOR SALA

### Itzultzeko asmotan

Salak esan duenez, oholtzetara itzultzeko asmoa dute: "Bagabiltza kontzertuak lotzen, eta, dena ondo badoa, martxoaren 21ean Arrasateko gaztetxean izango gara". "Ez gaude beti bezala, baina aurrera egingo dugu. Julek zabaldu zuen proiektua, eta guk jarraipena emango diogu", gaineratu du.

Aurrera egiteko bide horretan, disko bat grabatzea ere badute buruan, baina, Salak azaldu duenez, ez dute ohiko eran egingo. Orain egin duten moduan, prest izan ahala grabatu eta kaleratuko dituzte abestiak, eta gero, guztien bildumarekin, disko bat osatu.

## Tributo a Joaquin Sabina taldea bihar Espaloian; datorren astean, Monologo Mostra

**M.T.** | ELGETA

Zapatuan Joaquin Sabinaren ahots urratuaren oihartzuna izango da Espaloian, Tributo a Joaquin Sabina taldearen eskutik. Jokin Pallaresen eta Txuma Flamarikeren zaletasunetik jaio zen taldeak 22:30ean hasiko du saioa. Sarrera 10 euro da; eta aurrez erosita, 8.

### Umorezko bakarrizketak

Datorren asteburuan, berriz, III. Monologo Mostrari ekiteko, J.J. Vaquero eta Iñaki Urrutia izango dira Espaloian. Egubakoitzean eta zapatuan egingo dituzte emanaldiak, 22:30ean. Sarrerak 15 eurotan izango dira salgai leihatilan, baina aurrez ere eros daitezke, 12 eurotan.

ARATUSTEAK



GOIENA TELEBISTA | DEBAGOIENEKO ARATUSTEAK
ASTELEHENEAN | OTSAILAREN 16AN, 20:00ETAN | DEBAGOIENA ZUZENEAN
OSTIRALEAN, OTSAILAREN 20AN, 22:00ETAN | ARATUSTEAK 2015

BABESLEA:
ARETXARGI
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aramaio.** Pedro Inazio Barrutia 20an etxebizitza salgai edo errentan. Beheko solairua da. 60 metro koadro erabilgarri. Kalitatezko sukaldea, komuna, logela eta egongela handi eta eguzkitsua. 2009an eraikia. Trasteleku eta igogailua. 25 metro koadroko terraza ederra. Etxebizitzak hobekuntza batzuk eginak dauzka. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 685 71 66 15 edo 658 39 00 63

**Elgeta.** 84 metro koadro erabilgarri. 2001ekoa. Hiru logela, jangela-egongela, bi komun eta sukaldea. Berokuntzarekin. 5x3 metroko garaje itxia, tarteko solairuarekin. Jantzia. Dena kanpoaldera begira. Patio estalia. 170.000 euro, negoziagarri. 697 25 92 48 (Sonia)

**Urgentea.** Bergara erdigunean 100 metro koadroko etxebizitza salgai. 245.000 euroan tasatua. Hiru logela, egongela handia, bi bainugela eta sukaldea. Berokuntzarekin. Gas naturala. Dena kanpoaldera begira. Prezioa, 100.000 euro. 609 36 15 64

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan erdialdean, Erdiko kalean. Informazio gehiago telefono honetan: 635 71 12 17 (Txus)

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Bolun. Hiru logelakoa. Jantzita eta berokuntzarekin. 609 79 47 30 edo 943 76 14 14 edo anuki1301@gmail.com

**Bergara.** Martoko kalean etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bi terraza eta trastelekua. Hilean 475 euro. 638 75 90 03

**Oñati.** Ugarkalden etxebizitza ematen da errentan, "etxebizitza libreetan". Hiru logela, sukaldea, bi komun, egongela eta terraza. Hilean 650 euro. 645 71 98 84

### 104. ERRENTAN HARTU

**Antzuola.** Herrian etxebizitza bila gabiltzan hiru gazte gara. Interesa izanez gero deitu zenbaki honetara. 680 61 96 97

**Arrasate.** Bikote gaztea gara, bi umerekin, eta etxebizitza behar dugu errentan prezio onean. Lana daukagu. 622 05 30 57

**Arrasate.** Kaixo, etxebizitza bila nabil Arrasaten, ahal bada San Andres auzoan. Hilean 400 euro ordain badezaket, hobeto. Nahiago nuke erdi jantzia egotea, nire altzariak eramango nituzke-eta. Interesatuok deitu edo whatsapp-a bidali zenbaki honetara. Eskerrik asko. Telefonoa: 699 11 43 23

**Baserri bila Debagoienean.** Bikote arrasatearra Debagoienean edo inguruan errentan hartzeko baserri bila dabil. 680 34 29 60 edo 699 28 99 06

**Bergara.** Bi edo hiru logelako etxebizitza errentan hartuko nuke. 400 eta 500 euro artean ordaintzeko prest nago. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 68 12 18

**Bergara.** Etxebizitza txikia hartuko nuke errentan. 619 52 98 04

### 105. ETXEAK OSATU

**Bergara.** Logela ematen da errentan sukaldea eta komuna erabiltzeko aukerarekin. Leku lasaia da. WiFi-a daukagu. Interesatuak deitu telefono honetara: 637 18 07 23

**Pisukide bila Arrasaten.** Neska langile euskalduna pisukide bila dabil martxotik aurrera. 225 gehi gastuak. Interesatuok deitu. Idoia. 628 59 03 93

**Pixukide bila.** Bi langile gazte gara eta pixukide baten bila gabiltza Bergaran. 605 74 78 29

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** Marradun bi garaje salgai Iturriko auzoan, Ozaetan. 636 14 26 00

### 202. EROSI

**Antzuola.** Garajea erosiko genuke Buztinzurin, Sagastin edo Ondarren. 616 22 03 63 edo 943 76 66 23

## 3. LOKALAK

### 301. SALDU

**Arrasate.** Erguin auzoan, Udalpe kalean, 60 metro koadroko lokala salgai. Ura, argindarra eta komuna ditu. Egokia gremioentzat edo etorkizunean etxebizitza egiteko bertan. Solairu bikoitza dauka. Sarrerarako hiru ate dauzka. 610 53 55 49

### 303. ERRENTAN EMAN

**ESKORIATZA**

160m²-koa, 380m²-ko lursailarekin. Jatetxe, pizzeria edo elkartea egiteko gertatuta. Salgai ere bai.
626 21 22 09
943 71 49 61

### 304. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** 15 mutil gazte eta arduratsu gara eta lokal bila gabiltza Arrasaten. Lokalak baldintza onak (argia, ura eta komuna) edukitzea eskertuko genuke. 646 39 04 05 edo 688 69 64 74

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Pertsona bat behar da goizez etxeko lanak eta pertsona nagusiak zaintzeko. 619 40 20 54

**Debagoiena.** Neska arduratsua sukaldaritza eta geriatria ikasketak dituena, lan bila dabil. Nagusiak zaindu, zerbitzari lanak egin eta abar. 615 06 28 04

### 402. ESKAERAK

**Arrasate edo Aretxabaleta.** Neska arduratsua, zaintza sozio-sanitarioko ikasketaduna, nagusiak zaintzeko gertu. 618 14 71 34

**Arrasate, Bergara edo Oñati.** Erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. San Juan de Diosen eta Aita Mennin lan egindakoa naiz. 943 78 62 19 edo 639 66 57 88

**Arrasate.** Neska arratsaldez edo asteburuetan lan egiteko gertu. B622 05 30 57

**Bergara.** Esperientziadun neska euskalduna, goizetan umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. 685 77 40 26 edo 943 76 52 79

**Debagoiena.** Denetariko garbiketan egiten, ume zein nagusiak zaintzen edo sukalde laguntzaile moduan lan egingo nuke. Raquel. 631 48 33 08

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**

Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.

**- Profesionalen moduluak.**

Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

| 1. ETXEBIZITZAK | 2. GARAJEAK | 4. LANA | 6. MOTORRA | 8. DENETARIK | 9. HARREMANAK |
|---|---|---|---|---|---|
| 101. Saldu | 201. Saldu | 401. Eskaintzak | 601. Saldu | 801. Saldu | 901. Agurrak |
| 102. Erosi | 202. Erosi | 402. Eskaerak | 602. Erosi | 802. Erosi | 902. Harremanak |
| 103. Errentan eman | 203. Errentan eman | 403. Bestelakoak | 603. Errentan eman | 803. Eman | 903. Deiak |
| 104. Errentan hartu | 204. Errentan hartu | | 604.Bestelakoak | 804. Hartu | 904. Bestelakoak |
| 105. Etxeak osatu | 205. Bestelakoak | **5. IRAKASKUNTZA** | | 805.Trukatu | |
| 106. Bestelakoak | | 501. Jaso | **7. ANIMALIAK** | 806.Galdu | |
| | **3. LOKALAK** | 502. Eman | 701. Saldu | 807.Aurkitu | |
| | 301. Saldu | 503. Bestelakoak | 702. Erosi | 808. Bestelakoak | |
| | 302. Erosi | | 703. Eman | | |
| | 303. Errentan eman | | 704. Bestelakoak | | |
| | 304. Errentan hartu | | | | |
| | 305. Bestelakoak | | | | |

**Debagoiena.** Denetariko garbiketan egiten, ume zein nagusiak zaintzen edo sukalde laguntzaile moduan lan egingo nuke. 602 69 31 56

**Debagoiena.** Elektrikari, margotzen, iturgin, pladurra jartzen edota pertsianak konpontzen eskarmentua dut. Baita nagusiak zaintzen ere. 632 08 57 69

**Debagoiena.** Emakumea eskaintzen da lan egiteko. 606 50 25 67

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusi eta umeak zaindu edota garbitasun lanak egiteko. Egunez, gauez, orduka edo etxean bertan bizi izanda. Interesatuak elefono honetara deitu: 638 59 04 71

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Fax: 943 76 07 97
www.inmokorosti.com
INMOBILIARIA

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Bolun 135 m²ko Elkartea salgai. Ekipatua. 123.600 €.
- Angiozarren Erretegia alokagai. Erretegi bezala erabiltzeko dena ekipatua eta martxan.
- San Antón Abad 71 m², 3 logela. 2 aparkaleku eta txokoarekin. 85.000 €.
- San Lorenzo 85 m², 3 logela, garaje aeta trastelekuarekin. 150.000 €.
- Espoloia 95 m², 3 logela. Garajea eta trastelekuarekin.
- Irizar pasealekua. 3 logela, igogailuarekin. 200.000 €.
- Simon Arrieta 68 m², 2 logela, 80 m2ko terrazarekin. 132.600 €.
- Simon Arrieta 69 m², 3 logela. 20 m2ko terrazarekin. 107.100 €.
- Ibargarai 73 m², 3 logela. 235.000 €.
- Zubieta 110 m², 3 logela. Hortua, lokala eta trastelekuarekin. 95.000 €.
- Fraizkozuri 162 m², 4 logela. Trastelekuarekin.
- San Pedro 73 m², 3 logela. 13 m2ko terrazarekin. 115.000 €.
- San Antonio 86 m². 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000 €.
- Angiozar 170 m², duplexa. Garajea, txokoa eta 180 m²ko lur sailarekin.
- Artekale 47 m², 2 logela. Berriztua. Trastelekuarekin. 100.000 €.
- Barrenkale 113 m², 3 logela, duplex berria. Igogailuarekin.
- Masterreka 72 m², 2 logela, duplexa. Trastelekuarekin. Berria estrenatzeko. 150.000 €.
- San Lorenzo 65 m², 2 logela. Garajea eta trastelekua aukeran. Berria. 200.850 €.
- Zubiaurre 70 m², 2 logela. Erabat berriztua 180.000 €.
- Simon Arrieta 82 m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000 €.
- Ibargarai 57 m², 2 logela, oso ondo. Garajearekin. 215.000 €.
- Bidekurutzeta 71 m², 2 logela, erabat berriztua. Igogailua eta terraza haundiarekin. 204.344 €.
- Angiozar 60 m², 2 logela, erabat berriztua. Trastelekuarekin. 92.000 €.
- Zubiaurre 104 m², 2 logela. Berria. Igogailua. Trastelekua, Terrazarekin.
- Martoko 60 m², 2 logela, berogailua eta igogailua. 60.000 €.
- Aranerreka 79 m², 3 logela, berogailua, trastelekua. Garajea aukeran. 164.850 €.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 100.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN
- Ibargarai, 60 m², 2 logela. Berria. Oso ondo. 229.000 €.
- Matxiategi, 115 m², 3 logela, trastelekua eta balkoia. Berriztua. Oso ondo.

**ANTZUOLA:**
- Sagasti 140 m², duplexa. 250.000€
- Sagasti 86 m². 3 logela. 163 m2ko terrazarekin. AUKERA BIKAINA. 216.364 €.
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Aiherra 83 m². 3 logela. Igogailua eta balkoia.Oso ondo. Prezio ona.
- Kale Goi. Oso ondo. AUKERA BIKAINA. 125.000 €.

**SORALUZE:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

**ELGETA:**
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m2 + 45 m2 garajea + 90 m2 lursaila.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85 m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.

**Debagoiena.** Eskarmentua eta erreferentzia onak dituen emakumea nagusiak zaintzeko gertu. Baita etxean bertan bizi izaten ere. Rosario. Telefonoa: 632 85 14 97

**Debagoiena.** Eskarmentudun emakumea gertu zerbitzari, umeak zaintzen edota garbiketa lanetan jarduteko. Magdalena. 697 24 52 31

**Debagoiena.** Eskarmentudun neska gertu asteburu eta jaiegunetan ume eta nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. 674 53 60 59

**Debagoiena.** Geriatria laguntzaile tituludun emakumea nagusiak zaintzeko gertu, egunez zein etxean bertan bizi izanda. Umeak zaindu edota garbiketak egiteko ere gertu nago. Gloria. 697 96 45 10

**Debagoiena.** Igeltsero, margolari zein garbiketan jarduteko gertu. 609 63 38 21

**Debagoiena.** Klinika laguntzailea gertu zaintza lanak egiteko, bai etxean eta baita ospitalean ere. 629 80 77 73

**Debagoiena.** Mutil senegaldarra gertu baserriko lanetan aritzeko. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Mutila eskaintzen da garbitasun lanetarako eta baita nagusiak zaintzeko ere. Esperientzia handikoa nagusien zainketan. Dokumentuak eguneratuta ditut. 658 74 94 63

**Debagoiena.** Mutila lan bila. 636 60 48 51

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Garbiketan eta hoteletan lan egindakoa naiz eta soldatze zein jaso-makinak gidatzeko ikasketak ditut. 662 26 07 09

**Debagoiena.** Nagusi edo umeak zaindu eta garbiketak egiteko gertu nago, 14:00etatik aurrera. Baita asteburuetan ere. Autoa daukat. 602 12 18 27

**Debagoiena.** Nagusi eta umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu nago. Diana. 617 11 67 09

**Debagoiena.** Nagusi eta umeak zaintzen, garbiketak egiten edota sukalde laguntzaile jardungo nuke. 691 03 25 02 edo 943 54 09 41

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edo elkarteak garbitzen lan egingo nuke. 603 63 21 99

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan jardungo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. Interesatuak elefono honetara deitu: 687 36 21 83

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edota taberna eta abarren garbiketak egiten lan egingo nuke. 666 92 49 92

**Debagoiena.** Neska arduratsu eta esperientziaduna lanerako gertu. Umeak zaindu, orduka garbiketak egin edota nagusiak zaindu eta paseoan ateratzeko laguntzen. 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska euskalduna ume eta nagusiak zaintzeko edo gauak ospitalean egiteko gertu. Esperientzia eta informeak ditut. Autoa daukat. 671 35 22 60

**Debagoiena.** Neska gertu asteburuetan taberna zein jatetxean zerbitzari lanetan jarduteko. 625 70 69 98

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu, etxeetan gaixoak zaintzeko edo ospitalean. Geriatriako tituluduna. Autoa daukat. Eskarmentu handia. 600 00 51 60

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Nagusi eta umeak zaintzen, garbitasun lanetan, sukalde laguntzaile, gozotegi eta okindegian lan egindakoa naiz. 632 87 22 46

**Debagoiena.** Neska langile eta arduratsua nagusi eta umeak zaintzeko edo garbiketak egiteko gertu. 603 34 58 20

**Debagoiena.** Neska nagusi eta umeak zaintzeko gertu; ahal bada etxean bertan bizi izaten. 678 35 64 23

**Debagoiena.** Pertsona aditua prest adineko pertsonen zaintza eta ardurarako. 696 70 55 09

**Debagoiena.** Sukaldari laguntzaile, garbitasun lanetan edota nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Ostalaritzan lan egindakoa naiz bai garbiketan eta baita sukaldean laguntzen ere. Autoa daukat. 636 11 23 40

**Debagoiena.** Ume eta nagusiak zaindu edota garbitasun lanak egingo nituzke. 630 74 67 61 edo 943 71 46 60

**Debagoiena.** Umeak eta nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko gertu nago. Telefonoa: 943 71 46 60

**Lan bila.** Garbitasunean, zerbitzari, sukaldari edota tailerrean lan egingo nuke. Autoa daukat eta berdin zait Euskal Herriko zein lekutan. (Tariq). 602 85 04 03

**Oñati.** Erizaintza laguntzaile titulua duen neska nagusiak zaintzeko gertu. Baita etxeko garbiketak egiteko ere. Orduka eta baita asteburuetan ere. 630 63 18 39 edo 943 25 07 84

**Sukaldaria.** Esperientziadun sukaldaria lanerako gertu: menuak, pintxoak, ogitartekoak eta abar egiten urtetan aritutakoa. 666 83 21 95

## 5. IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Arrasate.** Eskola partikularrak emango nituzke: matematika, fisika eta arlo zientifikoa. DBH eta Batxilergo mailatan. Ingeniaria naiz. 618 850 245

### 503. BESTELAKOAK

**Gitarra.** Gitarra joten ikasi gura baduzu, nik doan irakatsiko nizuke. 673 61 31 27

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Txakurkumeak.** San Bernardo arrazako txakurkumeak salgai. Urtarrilean jaiotakoak dira, konpromiso gabe ikus daitezke. Txertoekin eta desparasitatuta ematen dira. 688 66 35 20 edo 646 72 98 47

## 8. DENETARIK

### 802. EROSI

**Bugaboo bee.** Bugaboo bee, modelo zaharreko atzeko errubera erosiko nuke. 656 71 56 40

### 804. HARTU

**Bizikletak.** Botatzeko dagoen edo erabiltzen ez duzun bizikleta baduzu, nik jasoko nuke. Berdin da zein egoeratan dagoen. Inaki. 699 06 23 95

**Dendarako tresnak.** Ereindajan elkarteak gure baserrietako produktuak saltzeko denda ireki nahi du. Horretarako herritarron laguntza eskatzen dizuegu. Dendaren azpiegiturarako hurrengo gauzak behar ditugu, debalde edo prezio onean: balantza elektronikoa, kaxa erregistradorea, arraskak, hankazko pedaldun iturriak, denda eta biltegirako apalategiak, armairuak, mostradorea, hozkailuak (hiru atekoa eta erakuslea), bigarren solairura arteko andamioa, orgatila edo gurdia, arbela, aulkiak, mahaiak, lanparak, fotokopiagailua, proiektagailua, mangera, erosketa saski edo orgatxoak eta oihal zati handiak. 688 63 49 19 edo 653 70 84 09

### 807. AURKITU

**Brotxea Bergaran.** Domekan, otsailaren 8an, brotxe bat aurkitu nuen Santa Marinako aparkalekuan. Galdu baduzu, deitu zenbaki honetara: 615 79 61 16

**Ipod-a Aretxabaletan.** Zapatuan, otsailaren 7an, Ipoda aurkitu nuen San Migel inguruan. Galdu baduzu, galdetu Udaletxean.

## 9. HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

